



ELKARTASUN ADIERAZPENAK DEBAGOIENETIK KATALUNIARA

Esteladak, toki nabarmenean udaletxeetan / 4

Bergarako
udalbatzako
ordezkariak: Elena
Lete –alkatea–,
Aiert Lizarralde –
Irabaziko
zinegotzia– eta
Gorka Artola –EH
Bildukoa–, udaletxe
aurrealdean.

XABIER URZELAI

Frankismoaren aurkako kereila, epaitegian

Arrasateko Udalak aurkeztu du Bergarako epaitegian –lehenengo udalerria Gipuzkoan–, eta Elgetakoak martitzenean jarriko duela iragarri du / 5

**Aretxabaletako
Basotxo elkarteko
erretiratuek herriko
moda erakutsi dute
kalean** / 13



AMAIA TXINTXURRETA



ARETXABALETA JAIETAN / 17


SINADURAK

 JON ETXEBERRIA / 6	 PEDRO GARITANO / 30
 ANE GOROSABEL / 9	 XABIER IGARTUA / 37
 ANDERE ARRIOLABENGOA / 16	 AINTZANE OIARBIDE / 48



Kataluniari buruz,
han bizi diren
debagoiendarrekin

Juantxo Arakama
musikariari
elkarriketa



LEKAIXOKA!
KILOMETROAK 2017 OÑATI



Goizian goiztik uholde gisan
Zetorren jende erreka
Lekaixoa hitz bilakatuta
Igurtzi eta fereka
Eskerrik asko lortu baitugu
Proposaturiko meta
Eguzki printzek baino gehiago
Berotu gaituzue ta



Eskerrik asko!



Frankismoaren krimenen kontrako kereila, jarrita

Tropa frankistak Arrasaten sartu zireneko 81. urteurrenean, Udalak urratsa egin du, frankismoaren gehiegikeriak jasan zituztenen erreparazioa lortzeko. Elgetako Udalak ere bat egingo du egitasmoarekin; urriaren 4an aurkeztuko dute kereila

M.A ARRASATE

Era horretako kereila jarri duen Gipuzkoako lehen udalerrria da Arrasate. Laster, Elgeta ere gehituko zaio, urriaren 4an baitira aurkeztekoak. Argentinan mar txan da frankismoaren krimenak ikertzeko kereila bat, Maria Servini epaileak gidatua. Baina urrats bat harago joateko, Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformako kideek Euskal Herriko udalei gonbidapena egitea erabaki zuten, horiek instituzio gisa kereila kriminala jartzeko. Martxoan aho batez mozioa onartu ostean, Udalak herritarren testigantzak batzeko bulegoa ipini zuen BAZen. Guz-

tira, 23 biktimari buruzko 24 testigantza batu dira, eta horiei Intxorta 1937 elkarteak egindako dossier bat batu zaie, non frankisten errepresioa jasan duten 901 arrasatearren izenak ageri diren. Kereilak izan dezakeen bidez galdetuta, Arrasateko Udaleko zerbitzu juridikoak daramatzen Jon Andak dio ikus- teko dagoela zer gertatzen den. "Kereila aztertzen duen epaileak ikusiko du tramitera onartzen duen edo ez. 1977ko amnistiaren legearekin zaila izaten da era honetako kereilek aurrera egitea, baina epailaren erabakiak baldintzatuko du kereilaren ibilbidea".

Hurrengo, Elgetako Udala

Urriaren 4an, 12:30ean, Intxortako miliziano eta gudarien omenaldi egunarekin bat eginez, Elgetako Udalak kereila aurkeztuko du. Hala, bat egingo du Udak bezala kereila jartzeko egitasmoarekin. Elgetakoak jada eginga dauka herritarren testigantzen bilketa, eta, Arrasateko Udalak egin bezala, data berezi

**MEMORIA
HISTORIKOAREN
GAINEKO
JARDUNALDIAK
EGINGO DIRA ELGETAN**

batekin bat eginez aurkeztuko du kereila. Bestetik, 1936ko urriaren Elgetan eta Intxorta mendietan gertatutako erasoaldiak eta haiek izandako erresistentzia gogorra gogora ekarri, Memoria Historikoaren inguruko jardunaldiak antolatu dituzte: urriaren 4an, Leyre Arrietak *Lehen Eusko Jaurlaritza. Bilbo: 1936-1936* hitzaldia egingo du, 18:30ean, udaletxeko aretoan. Biharamunean, Pablo Beldarriaren *Historia Crítica de la Guerra en Euskadi* liburuen bigarren edizioa aurkeztuko du Intxorta 1937 Kultur Elkarteak, *Intxortako atea*-n, 18:00etan. Urriaren 6an, barikua, holokaustoko bik-tima elgetarra den Pascual Askasibar izango da protagonista eta haren erlojua kokatuko dute Euskal Memoria Historikoaren Interpretazio Zentroan, 18:30ean. Azkenik, urriaren 8an, Intxortako ibilbide tematikora antezetutako bisita gidatua egingo dute. Bisita doan izango da, baina aurrez izena eman behar da turismoa@elgeta.eus helbide elektronikoan urriaren 6an baino lehen. Taldea goizeko hamaretan abiatuko da.

"Aurreikuspenak gaingitu ditu" Kilometroak jaiak

Irekiera ekitaldia, omenaldia, zirkuitua, musika eta kultur proposamenak... Oñatin domekan ospatu zen Kilometroak 2017 jaiari "erantzun bikaina eman zioten bai herritarrek eta bai herritik kanpokoek ere", eta antolakuntzak egun horretarako prestatutakoetara jende asko batu zen. Irekiera ekitaldia izan zen bazetorre-naren isla garbia. Herritarrek kalera atera eta plaza bete zuten, egunari hasiera eman-gio zion ekitaldia hunkigarri bihurtuta. Halakoa izan zen, gero, Santa Ana antzokian egin zuten omenaldi-ekitaldia – Txantxiku Ikastolan tailerrak eman zituzten emakumeak omendu zituzten—. Jateko eta edateko postuek gainezka egin zuten eta Bereazoa eta Asentzio gazteen gunek bilakatu ziren. Anje Duhaldek eman zion bukaera jaiari, jendez betetako Oñatiko Foruen plazan. Jai "borobila" izan zela esan dute antolatzaileek.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZAREKIN

ETORKIZUNA ERAIKIZ

65 milioi euro proiektu estrategikoetarako

Gipuzkoako Foru Aldundiak 65 milioi euro bideratuko ditu, 2018-2025 bitartean, etorkizuneko erronkei aurre egiteko ezinbestekoak diren proiektu estrategikoetara. 2016an zehar, *Etorkizuna eraikiz* ekimenaren testuinguruan, hausnarketa prozesu zabala egin zen lurraldeko hainbat eragile sozial eta ekonomikorekin. Topaketa haietan identifikatu ziren lan eremu nagusiak Gipuzkoako etorkizuna berme guztiekin eraikitzen hasteko; hau da, lurraldearen garapenerako datozen hamar urteetan estrategikoak izango diren bost proiektu zehaztu ziren, baita zazpi proiektu esperimental berri ere.

Agenda politiko berriak bost proiektu estrategiko horien lanketa aurreikusi du. Diputatu nagusi Markel Olanok horien garrantzia nabarmendu du: "Kasu guztietan, gero eta garrantzi handiagoa duten alorrak dira bostak eta epe ertain-luzean gure lurraldearentzat berebiziko garrantzia izango dutenak. Gaur hasten bagara alor hauek lantzen, ziur egon bihar berme handiagoarekin egingo diegula aurre".



Zazpi foru diputatuak Markel Olanok diputatu nagusiarekin batera.

Bost proiektu estrategiko

Zibersegurtasun industrialeko zentroa da Aldundiaren agendan proiektu garrantzitsuenetakoa, lurraldeko enpresen lehiakortasuna babestera bideratutako ekimena, hain zuzen ere. 8,5 milioi euro bideratuko dira azpiegitura horretarako, eta askotariko funtzioak izango ditu: erasoei aurre hartu eta lehen mailako esku-hartzeaz gain, ikerketa, ebaluazioa eta kontrasterako laborategia izango du.

Sentsibilizazio eta heziketa helburu duten ekintzak ere garatuko ditu.

Adineko pertsonen eta mendekotasunaren arretan erreferentziatzeko zentroa eta berrikuntza-gunea da bigarren

proiektua, eta Trintxerpen kokatuko da. I+G+B unitatea izango du, eta uztartuko dituzte arreta jarduerak, jakintza kudeaketa eta adintze, osasun eta ongizate alorretako garapen teknologiko eta industrialak; 30,7 milioi inbertitzea aurreikusi dute eta eremu berean beste jarduerak batzuek ere izango dute lekua.

Hirugarren proiektuak, berriz, bi zutabe nagusi izango ditu: alde batetik, klima-aldaketakarako institutua; eta bestetik, esperientzia-gunea elektro-mugikortasunean eta energia efizientzian; kokapena oraindik zehaztu gabe du azken horrek.

Laugarren proiektuak mugikortasun jasangarria sustatzen duten azpiegiturak izango ditu ardatz, bi esparrutan lan eginez: lurraldeko bide berdeen berrindartzea, batetik; eta Gipuzkoarentzako trenbide eredu berriaren sustapena, bestetik. Eta, azkenik, bosgarren proiektua da Koldo Mitxelena 2040 Kultur-gunea, garai berrietara egokitutako zentro moderno eta aurreratua bilakatzeko duela helburu.

ORAIN GIPUZKOA



Informazio gehiagorako, eskaneatu QR kode hau.

Domeka honetarako, urriak 1, Kataluniako Gobernuak independentziaren inguruko erreferenduma deitu du. Horren harira, kataluniarrei elkartasuna adierazteko eta Espainiako Estatuak jarritako oztopoen kontra egiteko hainbat ekimen egiten ari dira

Domeka honetarako Katalunia-ko Gobernuak deitutako independentziaren gaineko erreferendumaren testuinguruan, hainbat ekintza politiko izan dira egunotan Debagoienean.

Udal ekimenei dagokienez, asteon eta joan den astean bailarako hainbat herritako osoko bilkuretan gaia eztabaidatu dute, eta ezohiko bilkurak ere egin dituzte horren harira. Hala, Bergaran, esaterako, atzo, estelada zintzilikatu zuten San Martin plazan, Udal Artxiboaren aurrealdean dagoen ikurrin handiarekin batera. Asteleheneko bilkuran, EA Jren, EH Bilduren



Atzo, Mondragon Unibertsitatean Ikasle Abertzaleak taldeak egindako agerraldia. I.A.

eta Irabaziren aldeko botoekin
eta PSEren kontrakoarekin har-
tutako konpromisoari jarraiki
egin dute hori.

Elgetan, EH Bilduk eta Gu Geuk mozio bana aurkeztu zuten. Azkena aho batez onartu zuten eta lehena berriz, aldeko lau botorekin eta abstentzio batekin. Udaletxeko leiho batean estelada jarri dute, hortaz.

Leintz Gatzagan ere atzo egin zuten bilkura, eta bukatzean, Herriko Plazan masta batean estelada jarri zuten.

Horrez gain, atzo Antzuolan elkartasunezko argazkia egin zuten. EH Bilduk deituta.

Testuinguru horretan, bihar Gure Esku Dago plataformak deitutako manifestazioa izango da Bilbon, *Demokrazia. Erabakitze*ko askatasuna lelopean. Besteak beste, EAJ, EH Bildu eta Podemos Euskadi alderdiek eta ELA eta LAB sindikatuek bat egin dute deialdiarekin.

Manifestazioa 17:30ean abiatuko da, Casilla plazatik, eta autobusak antolatu dituzte Debagoienetik hara ioateko.

Iñaki Beristaini azken agurra eman diote Arantzazun

Astelehenean hil zen Iñaki Beristain Arantzazuko frantziskotarra, 70 urte zituela. Martitzenean egin zuten haren aldeko hileta elizkizuna Arantzazuko santutegian eta ehunka pertsona bertaratu ziren Beristaini azken agurra ematera. Aparkalekuak bete egin ziren, baita basilika ere.

Arantzazura gerturatu ziren, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arantxa Tapia eta Bingen Zupiria sailburuak, Imanol Lasa Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramailea eta Mikel Biain Oñatiko alkatea. Politika, kultur zein kirol munduko hainbat aurpegi ezagun ere izan ziren, eta, hileta elizkizunaren amaieran, Xabier Euzkitzek bertsoak abestu zituen Beristainen omenez.

Bertako guardiano Juan Inazio Larrearen esanetan, Arantzazun "umezurtz" geratu dira Beristainen heriotzarekin. Ikaragarriko pena eta hutsunea utzi dizkigu", gaineratu du.

[illegible]

Zertarako antolatzen da Kilometroak? Mikel Egibarren artikuluari erantzuna

ITZIAR AGIRRE VICENTE
IES R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA BHI-KO
ZUZENDARIA
OÑATI

Harriduraz irakurri ditut Mikel Egibarrek *Kilometroak 2017* aldizkarian idatzi duen artikulua zenbait paragrafo, eta bereziki ondokoa: *Ikastolen mugimendua Euskal Herriak duen hezkuntza sare publiko nazional bakarra da.*

Egibar jauna, ez nahastu jendea zentzu bikoitzeko hitz jokoekin.

Garbi daukat oso ondo pentsatu eta neurtu dituzula idatzitako hitzak, eta horiek mezu politikoa daramatela inplizituki.

Baina zure hitz horiek errespetu falta itzela adierazten dute Euskal Herriko gizartearen %50entzat.

ISE-IVEI erakundeak dioenez –irakas sistema ikertzen duen erakunda–, gaur egun ikasleen %50 baino gehiago sare publikoan daude –sare publikoari buruz ari naizenean, benetako sare publikoari buruz ari naiz– eta ikasleen beste %50 itunpekoetan.

Egibar jauna, ondo jakingo duzun moduan, ikastolek publiko bihurtzeko aukera, oker ez banago, 93. urtean izan zuten.

Batzuek horrela erabakita, eskola publikoen sarean txertatu ziren, baina ikastola izena mantenduz.

Beste batzuk, ordea, publikoak izan nahi ez zutela erabaki eta ikastetxe pribatu itundu bezala mantendu ziren.

Egibar jauna, hitzei ez zaie beldurrik eduki behar, eta irakasle on baten zeregina gauzak argi eta garbi azaltzea da, eta ez hizkuntza jendea nahasteko erabiltzea.

Oñatin badago euskal eskola publikoa eta gure

izena hartu nahi horrek gurekiko errespetu falta iruditzen zait.

Besterik gabe, poztu nintzen domekan festa on bat ospatu zenutelako, Egibar jauna.

Aitor Orobengoari erantzuna

XABIER LLODIO
LAB
DEBAGOIENA

2017ko irailaren 22ko GOIENA aldizkarian, LAB sindikatuak jarritako kartel batzuen inguruko iritzia eman zuen Aitor Orobengoak.

Kartel horietan LABek dio Eusko Jaurlaritzaren industria politika propaganda hutsa dela. Eta adibide moduan jartzen ditu hainbat enpresa.

LABen akusazioak bidegabeak direla ematen du aditzera Aitor Orobengoak. Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak ezer gutxi egin ahal duelako enpresa horiek laguntzeko.

Jakitun gara Euskal Herriak behar duen industria politika diseinatzeko beharrezkoa dela erabateko burujabetza lortzea, finantza, energia, lan araudia, lege konkurtsala, nazioarteko harremanak... ez baitaude gure eskuetan. Eredu produktibo propioa eraikitzeko Euskal Herriaren burujabetza ezinbesteko bitartekoa da, ados.

Baina burujabetzarik ezaren arazoa aitzakia bihurtzen da burujabetza hori eskuratzeko bidea egin nahi ez denean.

Are okerrago, dituzun eskumenak Espainiako ereduaren translazio soila egiteko erabiltzen dituzunean.

Azken adibidea da gastuaren muga adostu izana PPrekin.

Aitor, zuk kartel bat ikusi zenuen, baina kartel horren atzean badago proposamen zehatz bat.

LABek urgentziazko hamar neurri planteatzen

ditu, euskal industriaren egoerari erantzungo lioketenak. Neurri hauetako askok borondatea soilik behar dute. Beharrezkoak ez diren azpiegiturretan inbertitzeari utzi, eta iruzur fiskalaren jazarpena eta zerga sistema bidezkoagoa proposatzen ditugu sektore publikoaren finantzaketa gaitasuna areagotzeko.

Adinekoen Nazioarteko Eguna: urriaren 1a, jardun dezagun gure bizi-kalitatea hobetzeko

ITZIAR USANDIZAGA
DUINTASUNA ELKARTEAREN IZENEAN
DEBAGOIENA

Bizi-kalitatea, gure ongizate fisikoan, emozionalean eta sozialean eragina duten hainbat faktoreri dagokienez, hala nola: a) gure beharretara egokitutako etxebizitza, b) gure beharrei, hots, elikadurari, zainketari, osasunari, etxeko gastuei –argia, gasa, erkidegoa–, aisia eta astialdiko gozamenari aurre egiteko ahalmen ekonomikoa, eta d) gizarte- eta osasun-zerbitzuak izateko eskubidea.

Azpmarratu nahi dugu, adineko guztiok bizi-kalitate gogobetegarria erdiesteko aukera izan dezagun, ezinbestekoa dela jardunbide profesional egokiak sustatzea eta identifikatzea, eta, horretarako, gizarte-zerbitzuen eskueran jarri behar direla udalerrri bakoitzeko adinekoak zein egoeratan dauden jakiteko informazioa emango duten protokoloak eta programak ezartzeko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak. Zenbatespenen arabera, mendekotasuna duten pertsonen %20k eta mendekotasun handia duten pertsonen %5ek, gutxi gorabehera, ez dute inongo laguntzarik eskatzen. Zumaiaiko anai-arreben

heriotza horren adibide garbia da.

Jardunbide egokien hainbat esperientzia daude Gipuzkoako zenbait udalerritan; Azpeitiko Udalean, adibidez.

Izan ere, adinekoen elkarteon eta udalaren gizarte-zerbitzuen arteko harremanaren emaitza, toki-erakundeak landa-lana egin du adinekoen kolektiboa zein egoeratan bizi den jakiteko, adineko horiek dituzten beharrei erantzuteko eta arretarik gabe zeuden bazterketa-, babesgabetasun- edo mendekotasun-egoerak saihesteko.

Halaber, hainbat udaletatik, adinekoen elkarteekin lankidetzan jardun ondoren, udal- eta foru-baliabideei buruzko informazioa ematen ari dira herritar guztientzat, horiek eskuratzeko eta baliatzeko aukera izan dezaten.

Duintasunaren iritziz, hori da jarraitu beharreko bidea. Uste osoa dugu, gure bizitzaren kudeaketako subjektu aktibo garen aldetik, erabakiak hartzen diren gune guztietan parte hartu behar dugula adinekoen elkarteok, gure esperientzia eta ezaupideak eskaintzeko eta gure eskubideak defendatzeko, hori baita erretiratu eta pentsiodun guztien bizi-kalitate hobea erdiesteko bidea.

Adinekoen Nazioarteko Eguna baliatu nahi dugu, halaber, gure beharrak asetzea sustatu eta bermatuko duten Adinekoen Kontseiluaren sorrera errebindikatzeko.

EAJ-PNV beti Kataluniarekin!

JAVIER GALARZA
OÑATIKO EAJ-PNV-REN LEHENDAKARIA
OÑATI

Beste behin ere, Ernai taldeak berriki sinatutako pankarta eta pintadak salatzen ditu Oñatiko EAJ-PNVk; akusazio faltsuen bidez, Kataluniako

prozesua ez babestea, eta, Francoren irudiarekin lagunduta, PPren eta frankisten konplize izatea leporatzen baitiote alderdi jeltzaleari.

EAJ-PNV ibilbide demokratiko luzeko alderdia da, eta beti egon da eta egongo da herri katalanaren alde.

Kataluniarekin bat egin zuen Francoren diktaduraren aurkako borrokan; babes irmoa erakutsi zien katalanei Euskadi eta Katalunia nazio izateko eskubide historikoak berreskuratzeko borrokan, eta, halaber, katalanen alboan egon zen ETAk Hipercorren eta Vich-en aurka atentatu zuenean. Baita ETak Ernest Lluch hil zuenean ere.

Ezker Abertzalea, ordea –hainbat sigla erabilita: HB, Sortu, Ernai...–, ez zen egon, ez Kataluniarekin, ez katalanekin 50 atentatu –ETak egindakoak– baino gehiago sufritu behar izan zituzten garaian. Hala ere, EAJ-PNVk ez du inoiz erabili argudiatze hori Ezker Abertzalearen kontrako pintadak eta kartelak egiteko eta jartzeko; ezta akusatzeko ere esanez gertakari horien konplizea dela.

Azken 40 urteetan, Ezker Abertzalearen estrategia eta ekintzak bestelakoak izan dira, eta, gure iritzian, orain ez dago legitimatuta, inola ere, inori zer egin behar duen esateko; ez horixe! Ezta bere burua herri katalanaren aldeko defendatzaile bakar moduan aurkezteko moduan ere, beraiek soilik izango balira bezala gaur egun Katalunia babesten duten bakarrak.

Ez gaituzte isilduko EAJ-PNVko alderdikideok. Ez gaituzte diskurtso eta akusazio faltsupean kikilduko, ezta nahastuko ere; izan ere, benetako historia ekintzen bidez frogatzen eta idazten da. Ez da pintada edo irain bidez idazten; are gutxiago, indarkeriaren bidez.



ZABALIK

JON ETXEBERRIA

Kataluniako atea

Kataluniako prozesua oso gertutik bizitzeko aukera izan dut, nire familiaren eta lagun kataluniarren bitartez. Beraiek prozesuan zehar beste kataluniar askok bizitako transformazioaren adibide bat besterik ez da.

Katalanista eta nazionalista sentitu arren nagusiki, inor gutxi aitortzen zuen bere burua independentista moduan nire familiaren eta lagunaren artean prozesua hasi aurretik.

Baina 2010etik hona, beraien egonezina eta haserrea nabarmen handitzen joan dira, Estatuak ematen dien tratatu ekonomikoarengatik eta beraien nortasun katalana errespetatzen ez dela sentitzen dutelako.

2012. urtera arte, Madrilekin akordio justuago baten bidez egoera hobetu zitekeela uste zuten, baina, Rajoyren ezetz borobilaren ondoren, argi gelditu zitzairen independentismoa zela geratzen zitzairen bide bakarra.

Orduraz geroztik, beraien babesa eman diote independentismoari, bai hauteskundeetan, eta bai mobilizazio independentista desberdinetan. Ez ziren bakarrik: Katalunia osoan, 2012. urtean independentismoari babesa %50 handitu zen eta lehenengo aldiz

%40ko muga gainditu zuen.

Igandeko erreferendumean badakite ezingo dutela normaltasunez bozkatu eta emaitzak ez duela balio praktikorik izango.

Baina badakite ere Madrilek ezingo duela mugimendu independentista gelditu debekuz eta atxilotetaz.


Prozesua berriz ere blokeo egoeran sartuko dela uste dute, eta, aurreko bi blokeo nagusietan gertatu izan den bezala –2012an Paktu Fiskala baztertu zenean eta 2014ko kontsultaren ondoren–, hauteskunde berriak deituko dituztela.

Baina, guztiaren gainera, sentsazio berezi bat dute beraien barruan: ate bat zabaldutako eta hemendik aurrera ezer ez da berdina izango Kataluniarendako.

Eta gu, bertan, Katalunian, izango gara igandean familiarekin eta lagunekin, momentu garrantzitsu hauek beraiekin bizitzeko eta gure maitasuna emateko.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



Goiena telebista egoki ikusteko arazoak

OIHANE AGIRRE GOIENA TELEBISTAREN ZUZENDARIA

LTD seinalearen hedapenean matxura bat izan du Goiena telebistak. Hauxe gertatzen da: Goienaren egoitzatik seinale digitala Arrasateko Murumendira bidaltzen da; Murumendi da Goiena telebistako seinale hedapen nagusia. Handik, seinalea Aretxabaletan, Leintz Gatzagan, Eskoriatzan, Arrasaten eta Aramaion jasotzen dute. Murumendiko antenaren mendeko diren beste bi antena ditu Goiena telebistak: bata, San Migelen; Bergaran, Antzuolan eta Elgetan zabaltzen da handik Goiena telebistaren seinalea. Bigarrena, Belarren; Oñatin seinalea zabaltzeko.

Une honetan, matxura Murumendiko antenatan kokatutako ekipotetan dago. Matxuratutako tresneria ez dago erabat martxan. Horregatik, seinalea aldika eten egiten da, Goiena telebista LTDz jasotzen duten telebistetan.

Tresneria berria heltzeko zain dago Goiena,

hondatuta daudenekin ordezkatu eta seinalea egoki zabaltzeko. Aldaketa hori egiten denean, eta seinalea egoki hedatzen ari dela ziurtatzen denean, jakinaraziko zaie Goienako bezero eta ikus-entzuleei.

Matxura honek ez du eragiten Euskaltel kable bidez hedatzen dugun seinalean. Beraz, Goiena telebista Euskaltel bidez, modu digitalean, ikusten dutenek orain arte moduan jarraituko dute Goiena telebista ikusten.

Goiena.eus webgunearen *Telebista* atalean ere ikus daiteke Goiena telebista zuzenean edota saioak nahieran. Kilometroaren gaineko saio berezia eta datorren astean San Migel jaien gainean egingo diren bereziak ere bai.

Barkatu eragindako eragozpenak. Matxura erabat konponduta dagoenean aditzera emango dugu Goienaren bidez.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna Marta Leturia.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

PROTAGONISTA

"Pentsioak sakratuak dira; ezin dira trukerako erabili"

PEDRO ETXEBARRIA GIPUZKOAKO ERRETIRATUEN ETA PENTSIODUNEN ELKARTEKO KIDEA

Mireia Bikuña ARETXABALETA
Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteak kontzentrazioak egingo ditu urriaren 2an, elkarte kide diren erretiratuen elkarteetan. "Nagusien eskubideak" aldarrikatzeko elkarretaratzeak izango direla esan du jarduneko presidente Pedro Etxebarria.

Gipuzkoako erretiratuen elkarte guztietan egingo dituzue elkarretaratzeak. Denok batera, indar handiagoa egiteko?

Hala da. Nagusiak gara, ez gara mutuak. Nagusiak gara, eta, botoa emateko eskubidea dugunez, gure botoa oso garrantzitsua izan daiteke edozein hauteskundetan. Politikariek ez dute hori kontuan hartzen. Ozen esan behar dugu gure eskubideak ez daudela bermatuta. Ez ditu inork bermatzen. Gure ekintzetan sinisten dugu. Astelehenean egingo ditugun elkarretaratzeak eta aldarrikapenak presentzia izan behar dute hedabideetan.



Pedro Etxebarria, Basotxo elkartearen egoitzan. MIRARI ALTUBE

Bailaran ere egingo dituzue elkarretaratzeak.

Antzuolan gaur, egubakoitza, egingo dute. Eskoriatzan eta Oñatin beste egun bat finkatuko dute. Baina gainerako herrietan,

astelehenean elkartuko gara, 19:00etan. Ordu laurdeneko kontzentrazioak izango dira. **Nagusien eskubideak aldarrikatuko dituzue.** Urriaren 1a Nagusien Nazioarteko Eguna da. Eta

horren aitzakian elkartuko gara. Aldarrikapen nagusia gure eskubideak bermatzeko eskaera da: alargunendako pentsioak, beharra dutenendako laguntza, pentsio duinak guztiondako, pentsioak ez daitezela debaluatu, behartsuenei justizia bermatzea... Lurralde mailako manifestu bat irakurriko dugu elkarretaratze guztietan. **Nolakoa da erretiratuen eta pentsiodunen egungo egoera?** Politikariek ez gaituzte kontuan hartzen. Ez gaude euren agendetan. Inpresioa daukagu beste helburu batzuen menpe, ahaztu egin gaituztela. Ozen esango dugu gure botoa gure eskubideekiko errespetua bermatzera bideratuko dugula.

Pentsioak ez dira negoziagarriak. Ezin dira beste behar batzuk kontuan hartuta kudeatu. Sakratuak dira. Toledoko Itunak jasotzen du pentsioen funtsa sakratua dela. Ezin daitekeela ukitu. Ezin dira trukerako erabili. Errealitatea beste bat da. **Nolakoak izango dira etorkizuneko pentsioak?** Zaila da horri erantzutea. Hori da guk bermatu behar duguna. Oraingo borrokak etorkizuneko pentsioetan izan beharko luke eragina.

HAU BE BADOGU!

Katalunian zer gertatuko den zain



Irailean ia ez da beste gairik egon sare sozialetan. Asteon ere, **#1OCT**, **#Votarem**, **#KatU1**, **#ReferendumCAT** eta beste hainbat traol erabilien artean egon dira txiolari euskaldunen artean. Txantxarako tartea ere egon da, eta polizien itsasontzia apaintzen duen **#Piolin** eta hura estali ostean **#FreePiolin** traolak ere erabilienetakoak izan dira.

Alfredo Remirezen aldeko mezu ugari



2005eko Amurrioko jaietan preso bat irudikatzen zuen panpina ateratzegatik urtebeteko zigorra bete beharko du Remirezek **@erreharria** Twitterren-, Espainiako Auzitegi Nazionalak helegitea ukatu ostean. Hori dela eta, **#AIFREEdo** traola *trending topic* izan da sarean, eta txiolari euskaldunaren aldeko elkartasun mezuak ere hainbat eta hainbat izan dira.

Oñatiko Kilometroak, 'trending topic'

Domekan ospatu zuten Txantxiku Ikastolaren aldeko jaia, eta **#lekaixoka** eta **#kmk17** traolak *trending topic* izan ziren:

@kilometroak: "Eskerrik asko gaurkoan Oñatin **#lekaixoka** aritzeagatik! Ikaragarria izan da **#kmk17**".

@AitziGarmendia: "Zorionak gaurko antolakuntzagatik. Ikaragarria eta ezin hobea egin duzuen lana. Eskerrik asko Oñati! **#lekaixoka**".

ITURRI ONETIK

Moda desfilea Bergaran

Moda desfilea egingo dute Bergaran urriaren 21ean, zapatua, 22:00etan, Udal Pilotalekuan. Bedelkarrek eta Bergarako Udalak antolatuta, Bergara Bizi egitasmoaren baitan. Goiena telebistak zuzen-zuzenean emango du.

Herriko 27 komertziok hartuko dute parte eta bakoitzeko lau lagun ariko dira erakustokian. Ekitaldian, zozketak, omenaldiak eta beste hainbat sorpresa izango dira.

Sarrerak izango dira. 5 eurotan salduko dituzte eta alde aurretik eskuratu beharko dira Interneten.

GORA ETA BEHERA



Zabor-poltsak Bergarako espaloian utzita

Bergarako herritar batek bidali digu argazkia. Kexu da, azkenaldian, sarri ageri direlako zabor poltsak hiri hondakinak jasotzeko edukiontzien kanpoan, espaloian utzita. "Hau eguneroko ogia izanik, tronpatzeko beldur barik esan dezakegu, Bergara Garbiaren helburua ez zela Bergara garbi egotea, baizik eta EAJ-PNV alkatetzara eramatea", dio.





Goretti Madina presidentea, Maria Ubarretxena alkatea, Jose Antonio Cano BNI Euskadiko zuzendaria eta Idurre Albizu zuzendaria. X.G.

Askotariko enpresak, helburu bakarrarekin

Debagoieneko BNI taldea martxan da. 'Aukera Debagoiena' izena jarri diote eta gaur egin dute aurkezpen ekitaldia. Hainbat sektoretako 29 enpresa txikik eta ertainek osatzen dute, kontaktuak elkartrukatzuz arlo komertziala indartzeko asmoa dutenak

Xabi Gorostidi ARRASATE

BNI, edo Business Network International, enpresa txiki eta ertainen negozio aukerak handitzeko mundu mailan sortutako dinamika da. AEBetan du jatorria, baina Euskal Autonomia Erkidegoan jada sustraituta dago. Horren erakusle da gaur egun, eskualdeka antolatuta, horrelako hamaika talde daudela, 324 enpresaz osatuta.

Maiatzean aurkeztu zuten egitasmoa, Arrasateko Udalaren babespean. Hainbat jardunetako enpresez osatutako sarea sortzea zen helburua, euren kontaktuak elkarbanatuz, negozio aukera berriak sortzeko eta arlo komertziala indartzeko. Esan beharra dago jarduera ekonomiko bakoitzeko enpresa bakarra egon daitekeela taldean, partaideen arteko konpetentziarik egon ez dadin.

Goretti Madina abokatu oñatiarra Aukera Debagoienako partaide eta presidentea da, eta honela azaldu du zein eratako

enpresek egin duten bat egitasmoarekin. "Arkitektoak, abokatuak, aholkulariak, *merchandising* enpresak, eraikuntza alorrekoak, teleinterpretaziokoak, hizkuntzak ikasteko zentroak, publizitate sakabanaketa aritzen direnak... arlo ezberdinetako 29 kide gara".

Arlo komertziala sendotzera

Maiatzetik hona ostiralero elkartu dira Garaia Berrikuntza Gunean, 06:45ean. "Ordu goiztiar horretan batzen gara, enpresari txiki eta ertainentzat aiposea delako. Gure kasuan, 20 urtean ez dugu apenas arlo komertziala landu. Jendea gugana etorri izan da, eta zortea izan dugu. Baina talde honi esker, gure

TALDEA OSATZEKO BILERETAN, 20.000 EUROKO 65 NEGOTZIO AUKERA SORTZEA LORTU DUTE

bezero sarea handitu egin deza-kegu, eta elkarri laguntzeko aukera eskaintzen digu", azaldu du Goretti Madinak.

Nahiz eta lehen bilerak taldea osatzeko eta partaideak erakartzeko izan, 65 negozio aukera eta 20.000 euroko fakturazioa lortu dira jada.

Enpresa gehiagorentzako lekua

Gaur goizean egin dute taldearen aurkezpen ofiziala, Iturripe kiroldegian, bi helbururekin: alde batetik, BNI Debagoiena ezagutaraztea, jendeak ondo jakin dezan zertarako den, eta bestetik, taldean sartu nahi duten enpresak erakartzeko. Era horretako taldeetan 50 partaide egon daitezke; beraz, 21 enpresarentzako lekua dago oraindik.

Udalaren laguntza

Udalak, ekimena erakunde gisa babesteaz gain, arlo logistikoan laguntza eman du, euren bilerak egiteko Garaia Berrikuntza Gune-ko lokal bat utzita.

Ez da ezohiko bilkurarik egingo Kataluniako egoerari buruz

Gure Esku Dagok mozioa aurkeztu zuen, eta bilkura egin ezean adierazpen instituzionala egitea eskatu zuen

X.G. ARRASATE

Hainbat udaletan iraileko osoko bilkuretan eztabaidatu dira Gure Esku Dagoren mozioak, baina Arrasateko udalbatzan ez da ohiko osoko bilkurarik egin irailean. Hurrengo urriaren 3an da egitekoa, baina urriaren 1eko erreferenduma baino lehen bilkura edo adierazpena egitea zen mozioak planteatzen zuena.

Udal Gobernuak ez zuen beharrezkotzat jo gaia osoko bilkura bidez jorratzea, eta EAJtik adierazpen instituzionala lortzearen alde egin zuten. EH Bilduk ha-

sieratik egin zuen bat mozioaren bultzatzaileekin, eta, gaiaren garrantzia ikusita, bilkura egitearen aldekoak zirela jakinarazi zioten alkateari. Osoko bilkura egitea baztertzen zela ikusita, EH Bilduk, Baleikek eta Irabazik ezohiko bilkura egiteko eskaera formala egin zuten, horretarako beharrezkoak diren sinadurak batu ostean.

PSE-EEk ez du adierazpen instituzionala babestu, Arrasaterekin zerikusirik ez duela iritzita. Ikusteko dago horrek eraginik izango duen urriko bilkuran.



Eguen goizaldean, langileak argi berriak jartzeko lanetan. XABI GOROSTIDI

LED argiteria jartzearen aldeko apustua egingo du Udalak

Mankomunitateak eskualde mailan proiektua egin zuen, herriz herri argiteria sistema eraginkorragoa lortzeko

X.G. ARRASATE

Arrasatek baditu jada kanpo argiteria publikoan lehen LED argiak. Kataide poligonoaren hasieran eta Eroski inguruan jarri dituzte lehenak, eta, gutxi-ka, herri osora hedatzen joango dira.

Mankomunitateko kide diren herrietako kanpo argiteria hobetzeko asmoz, diagnosi energetikoa egin zuten. Elektrizitate kontratuen potentzia egokitzapena eta energia kontsumoa murrizketa lortzeko, ondorengo lau helburuak finkatu ziren: elektrizitate kontsumoa %30

txikitzea, eskakizun ezberdinetarako argiteria erregulatzea, behe-tentsioko araudiari (TBA) egokitzea eta instalazio berrien klasifikazioa A edo B tipokoa izatea.

466.176 euro, bederatzi urtetan

Mankomunitateak Eibarko Perrosanz Electricidad enpresari esleitu dizkio lanak. 466.176 euroko kostua izango dute Arrasateko argiek, eta bederatzi urtez hilero 4.316 euro ordaintzea adostu dute bi aldeek. Hala ere, EVE diru laguntza jasoz gero, kuota murriztu egingo litzateke.



Kepa Arkauz, Seber Altuben, herritarrek antolatutako ongietorrian. MAITE TXINTXURRETA

Kepa Arkauz aske, epaitua izan eta gutxira

2013ko maiatzean atxilotu zuten eta lau urte egin ditu Frantziako kartzelatan. Duela hiru aste epaitu zuten, Parisen, eta pasa den ostegunean irten zen Meauxko espetxetik. Ostiralean ongietorri beroa egin zioten herritarrek

Xabi Gorostidi ARRASATE

ETako aparatu logistikoko kide izatea leporatuta atxilotu zuten, Julen Mendizabal arrasatearra-ekin eta beste lau kiderekin batera. Meauxko espetxetik irten berri den arren, aurretik Villepinteko espetxean egon zen, gainontzeko presoengandik bakartuta.

Irailaren 21ean irten zen espetxetik. Frantzian preso egon izanagatik, herrialde horretatik kanpo bizitzeko baldintzapean geratu zen aske. Hala, Arrasateko errolda-agiria helarazi du Frantziako espetxeetako zuzendaritzara. Ostiral goizaldean Arrasatera heldu ostean, arratsaldean ongietorri beroa jaso

zuen, bertsoen, aurrekuen eta besarkaden artean.

Beste sei preso arrasatear

Orain, sei arrasatear daude kartzelatan. Horietatik hiru aurtien irtengo dira, eta urte gehien daramatzaten Josu Arkauz eta Unai Parot presoek "salbuespen egoera" salatu dute.

Beste hiru libre 2018a baino lehen



**ARATZ
GOMEZ
LARRAÑAGA**

Aratz Gomez izango da libre geratuko den hurrengo preso arrasatearra. Urriaren 19an irtengo da Mont de Marsango kartzelatik, ia 18 urteko espetxealdiaren ondoren.

1991ko azaroaren 16an atxilotu zuten, eta hainbat kartzelatan egon da preso: Valdemoron, Alcala Mecon, Asturiasen, Ocañan eta Mont de Marsanen. Azken hilabeteak Frantziako espetxe horretan betetzea onartu diote aurtien.



**PREMIN
SANPEDRO
LARRAÑAGA**

2017a amaitu baino lehen, Premin Sanpedro izango da aske geratuko beste preso arrasatear bat. Abenduaren 20an irtengo da Jaengo espetxetik.

2001eko ekainaren 14an atxilotu zuten, Txus Goikoetxearekin batera. Hamasei urte hauetan, sei kartzelatan egon da preso: Soto del Realen, Aranjuezen, Asturiasen, Algecirasen, Granadan eta Jaenen, hain zuzen ere.



**TXUS
GOIKOETXEA
GARRALDA**

Premi Sanpedro aske geratzen den egun berean, abenduaren 20an, irtengo da Txus Goikoetxea gaur egun preso dagoen Sevillako kartzelatik.

2001eko ekainaren 14an atxilotu zuten, eta, hamasei urteko espetxealdian, bost kartzelatan egon da preso: Soto del Realen, Aranjuezen, Albaceten, Puerto de Santa Marian eta Sevillan, hain zuzen ere.



EH BILDU ARRASATE

Bizkaia etorbidearekiko kezka

Irudiko lurrak publikoak direla ondorioztatu ondoren, Udalari dagokio bertako malda egonkortzeko irtenbidea bilatzea.

Gaia "bere agendan sartzeko" eskatu dio EH Bilduk Udal Gobernuari, Hirigintza batzordean duela hilabete batzuk konponbideak eskatu eta erantzunik jaso ez zutelako.

Baleiek fiskalitate progresiboagoa eskatu du

Bi neurri zehatz proposatu dituzte hori lortzeko.

Batetik, "herritar guztientzat berdinak" diren zaborraren eta uraren tasetan, hobariak planteatzen dituzte, bigarren urtez igoera izango duten tasak direlako. "Herritar guztioi presio bera egitean, zailtasun gehien duten familiak eta norbanakoak kaltetzen baitira, bereziki, desberdintasunak sakonduz".

Bigarrenik, telefono mugikor, energia hornitzaile handiek edo finantza entitateek lurzoru publikoaren aprobetxamendu pribatuaren tasa ordaintzea nahi dute, "tabernek, arropa dende eta tokiko merkatari txikiek egiten duten moduan".



NIRE USTEZ

ANE GOROSABEL

Emeek emana

Badugu ikusgai eta entzungai gure herriaren alde tinko mantendu diren emakumeen hotsak. Hots isilduak, mesprezatuak, erbusteratuak, torturatuak... Hots ausartak, indartsuak, goxoak, ezinbestekoak... Klaustroetako paretek sakon begiratzen gaituzte, dena adierazi guran, gertatutakoaren lekukoa gal ez dadin, barruak zabalduz, burua tente, beti, asmoa irmo. Istorio krudelak motxilan, hunkigarriak, asko sinesgaitzak, denak adorez beteak.

Orduan, halabeharrezkoa den galdera: eta nik, egoera hartan, zer egingo nuke? Zeinen urrun, gure amamek hartu behar izan zituzten erabakiak eta gureak. Alde batetik, norbera eta inguru-koen bizirautea bermatzeko auskalo nora ihesi irten beharra, frontera eskopeta besapean hartuta, klariona arma gisa, herri honetako hizkuntza eta ondarea mantentzeko konpromisoa. Bizitza zeharo aldatzen duten erabaki aukeratuak, eta ez aukeratuak.

Gure aitzindari emeek emandako pausok gure bidea jorratu dute. Orain, bidea marrazten jarraitzea guri dagokigu, gure errealitatea kolektiboki eraikiz, amesteari utzi gabe.



Red Dragons taldeko kideak, zapatuko festaren kartela esku artean dutela. RED DRAGONS

Motorren mundua eta solidaritatea fusionatzen

Red Dragons taldeko kideak gogotsu daude, euren pasioa herritarrekin partekatzeko eta behartsuei laguntzeko. Hala, Auto Klasikoen I. Erakusketa Solidarioa antolatu dute biharko, eta, adindun ibilgailuak erakustez gain, janari bilketa ere egingo dute

Xabi Gorostidi ARRASATE

Apirilean lehen aldiz antolatu zuen Red Dragons taldeak motor bazkari solidarioa. Bertan, Herriko Plaza motorrez eta motorzalez betetzeaz gain, ia 300 kilo janari batu zituzten Gipuzkoako elikagai bankurako.

"Dena oso ondo joan zen. Lehen aldiz era honetako ekitaldi bat antolatzerakoan, tarte zabala izaten da akatsak egiteko, baina, akatsak akats, jaiegun borobila izan zen guretzat. Jendea erakartzea lortu genuen, eta, are garrantzitsuagoa dena, elikagai bankurako janari kopuru garrantzitsua batzea lortu genuen", adierazi du taldeko kide Iban Marquizek.

Motorren ostean, auto klasikoak Behartsuentzat janaria batzen jarraitzeko, Auto Klasikoen I. Topaketa Solidarioa antolatu dute. Bihar izango da, eta Gari-bai eta Biteri artean egingo dute.

"Apirileko motor bazkari solidarioa antolatu genuenean,

Egitaraua

Hona hemen Red Dragons taldeko kideek biharko prestatu duten ekintza sorta.

- **09:00** Hasiera.
- **11:30** Auto klasikoen erakusketa.
- **14:30** Bazkaria, Al-Andalus jatetxean.
- **16:00** Kontzertuak
- **17:00** Omenaldia
- **17:15** Oparien zozketa
- **18:30** Amaiera

**"MOTOR BAZKARIA
ANTOLATZERAKOAN
GARBI GENUEN BESTE
BAT EGINGO GENUELA
AUTO KLASIKOEKIN"**

jada pentsatuta geneukan urtean zehar beste jai bat antolatzea auto klasikoekin lotuta. Izan ere, motorrek txoratzen gaituzten modu berean txoratzen gaituzte auto klasikoek", azaldu du Marquizek.

Izen emateen eromena

Era horretako ekitaldietan izen emate gehienak egunean bertan egiten dira, eta ondotxo dakite hori Red Dragons taldekoek. "Apirileko motor bazkarian, 09:45ean hamar pertsona zeuden izena emanda. Beldur puntu bat ere sartu zitzaigun, baina, azkenean, 200 parte hartzaile inguru izan genituen. Gaur-gaurkoz, 40 lagun baino gehiago animatu dira".

Autoak eta askoz gehiago

Hala ere, zapatuan ez dira dena autoak izango. Arte martzial erakusketa, bazkaria eta DJak ere izango dira, eta, horrez gain, minbiziak jota hil zen taldekide bat omenduko dute.

Buzkantza eta rock-and-roll ugari Garagartzako jaietan

Gaur eta bihar iluntzean buzkantza dastaketak eta rock kontzertuak izango dira auzoko festetako pizgarri

X.G. GARAGARTZA

19:00etan ekingo diote festari ikurrinaren igoerarekin eta etxafuegoen ez tandarekin. Meza ere egingo dute ordu berean, eta 20:00etan Patxixenak buzkantz-jana egingo dute, trikitilariak kalejira egiten duten artean. Behin buzkantzak bapo janda, kontzertuen txanda izango da. Libertad Condicional eta The Hans Blues Band talde mondra-goetarrak igoko dira oholtzara, 22:30ean.



Iskanbila taldea. ISKANBILA

Zapatuan eta domekan ere bai

Larunbat goizean umeentzako jolasak jarriko dituzte, 11:30ean. Arratsaldean Gorriti eta bere animaliek geldialdia egingo dute Garagartzan, eta 20:00etan, berri egingo dute buzkantz-jana Patxixenak. 22:30ean hasiko da Buzkantza Rock jaialdia; lau talde izango dira: Drop, Sindy

Berbenas, Iruñeko Against You eta Iskanbila talde mitikoa.

Domeka goizean, meza, luntxa eta euskal dantzak egongo dira. Horien ostean, festei datorren urtera arte agur esan aurretik, auzoko bazkaria egingo dute, 15:00etan.

OHARRAK

51koen kintada

Urriaren 21ean batuko dira Eltziegora eta Guardiara joateko. 70 euro sartu behar dira ES333035000155001165563 kontuan, astebate lehenago.

62koen kintada

Urte hartan jaiotakoak azaroaren 4an elkartuko dira, Arteaga jatetxean. 65 euro sartu behar dira 30350001510010123638 kontuan.

Maria Ubarretxena izango da lehenengo 'Harira' saioan

Bueltan da *Harira* Goiena telebistan, Eneko Azkaratek herri ordezkariarekin egiten duen saioa. Maria Ubarretxena izango da lehen gonbidatua, datorren martitzenean, 21:15ean. Herritarrek parte hartzeko aukera izango dute, galderak berriak@goiena.eus-era edo 688 69 00 07 zenbakira Whatsapp edo Telegram bidez bidaliz, astelehena baino lehen.



El Guardaespaldas, Billy Elliot eta El Rey León musikalak Madrilén.

Azaroaren 10etik 12ra

- Hotela erdialdean (gosariarekin)
- Sarrera barne (musikal batera)
- Autobusa: Arrasatetik, Aretxabaletatik eta Eskoriatzatik

Izen-ematea: Arrasate Bidaia • Kontzezino kalea 12 Arrasate • 943 71 25 30 (Izena emateko azken eguna: urriak 10)

265€



Urriaren 8an egingo dute Mondran Bike martxa

Aurten hainbat aldaketa egin dituzte antolatzaileek eta nabarmenena da logistika guztia –irteera, izen-ematea, duxak eta mangerak–, orain arte Musakolan egin izan dena, erdigunera eroango dutela, "herrira hurbiltzeko, sortzen den festa girora"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Azken urteetan tradizio bilakatu da Arrasateko Mondran Bike MTB martxa eta aurten ere ez du hutsik egingo.

Hainbat aldaketa izango ditu aurtengo edizioak. Esanguratsuen da kalean kokatuko dituztela irteera, izen-ematea, duxak eta bizikletak garbitzeko mangerak. Antolakuntzako kide Mikel Bergararen esanetan, lasterketa herrira gerturatu nahi izan dute horrela. "Musakola nahiko urrun gelditzen da eta herriarrek orain arte ezin izan dute ikusi lasterketa honek mugitzen duen errealitatea zein den. 300 lasterketari inguru mugitzen ditu martxa honek eta Euskal Herri mailan ezaguna da. Horretaz gain, herrian bertan sortzen den festa giroan ere murgildu nahiko genuke, lasterketa herrian txertatu", adierazi du.

Beste aldaketa bat da domekan izango dela. "Egutegia estu dago,



lazio Mondran Bike martxa. I.S.

eta domekan egitea erabaki dugu", dio Bergarak.

Ibilbideari dagokionez, hauxe dio: "Urtero saiatzen gara aldatzen". 25 kilometro izango ditu ibilbide motzak, 1.000 metroko desnibelarekin; eta luzeak, be-

rriz, 35 kilometro, 1.600 metroko desnibelarekin. "Aldapa gogorrenak ekiditen saiatu gara, bidexka eta bihurgune gehiago sartuz. Honekin lortu nahi duguna da jende gehiago animatzea parte hartzera. Aurtengo ibilbideak aukera asko ematen ditu eta bakoitzak aukeratu ahalko du egokien ikusten duena", azaldu du Bergarak.

GPSa eramatea gomendatu du antolakuntzak, eta, "lehiatzera baino gehiago, ibilbideaz gozatzera" joateko dei egin dute.

Izen-ematea zabalik

Urriaren 8an izango den arren, izen-ematea zabalik dago, urriaren 4ra bitartean. Horretarako aukera *Kirolprobak.com* webgunean egongo da. Federatuek 10 euro ordaindu beharko dute eta federatuta ez daudenek, 12. Eguenean bertan ere egongo da izena emateko aukera, 15 eurotan. Plaza mugatuak izango dira, 250 parte-hartzaile gehienez.

Arrasate Musikaleko Banda eta Vianako Udal Banda, bat eginda

Elkartruke bat egin dute bi bandek eta bihar, zapatua, kontzertua eskainiko dute Monterronen, 12:30ean

E.A. ARRASATE

Arrasate Musikaleko Bandak eta Vianako Udal Bandak elkartruke musikala egin dute. Hori dela eta, kontzertua eskainiko dute bi bandek batera bihar, zapatua, Monterron parkean –eguraldi txarra eginez gero, San Frantzisko elizan–.

Egitarauko lehenengo hiru piezak Arrasate Musikaleko Bandak interpretatuko ditu, hurrengo hirurak Vianako Udal Bandak, eta, azkeneko bi piezak jotzeko, bi bandak elkarrekin igoko dira oholta gainera.

Vianako Udal Banda

Vianako Udal Bandaren ibilbidea 2004ko urrian hasi zen, Javier Solano Mendiolaeren zuzendaritzapean, eta lehen kontzertua 2005eko herriko jaietan eskaini zuten. Hasiera batean, Udal Musika Eskolatik etortritako 28 lagunek osatu zuten taldea, baina, gaur egun, 55 musikaririk osatuta dago –10 eta 80 urte bitartekoak–.

Bandaren kontzerturik esanguratsuen Juan Manuel Serrat kantautorearekin batera 2013an eskainitakoa izan zen.

Glaukoma taldeak zabalduko ditu aurten Kooltur Ostegunak

Kalima albuma aurkeztera datoz tolosarrak. Herrian aurkeztu ostean, Arrasate da hurrengo geltokia. "Asko miresten dugu Arrasateko gaztetxea. Guretzat, derrigorrezkoa zen aurrenekoetakoa izatea kontzertu hau", dio Juantxo Arakama abeslariak –elkarriketa gaurko *Puntua*-n-. Eguenean izango da kontzertua, 22:00etan –sarrera 5 euro–.

Magia tailerra eta ikuskizuna Imanol Ituñoren eskutik

Magia saioa izango da urriaren 5ean –eguna– Kulturaten, Udal Bibliotekan, 18:00etatik 19:15era. Imanol Ituño magoak, tailerra emateaz gain, *Munduari bira (ia 80) trukotan* magia emanaldia eskainiko die hurbiltzen direnei. 5 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Bibliotekan dago izena emateko aukera, eta plaza mugatuak dira, 30 gehienez.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e. arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behe

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINITZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Antzezlanen magiarekin gozatzeko hilabetea

Antzerkiari eskainiko diote urria Arkupen; umeendako zein helduendako ikuskizunak ekarriko dituzte, batzuek konpainia profesionalek egindakoak eta besteak amateurrek, gehienak euskaraz, eta herriko sortzaileei ere egin diete keinua

Mirari Altube ARETXABALETA

Antzerkiarekin gozatzeko hila-betea izango da urria. Zazpi lan eskainiko dituzte Arkupen, batzuk umeendako eta beste batzuk helduendako; batzuk talde amateurren lanak eta beste batzuk profesionalenak.

Eskoletan ere indartu gura

"Kaleko antzerkia nolabait erro-tu dela gurean ikusirik barruko antzerkia indartu gura dugu orain", adierazi du Joxe Migel Uribarren Kultura zinegotziak, eta Inma Miguel teknikariak gaineratu du: "Profesionalen lanak eta konpainia amateurrenak bateratuko ditugu". Gainera, laguntza eskatu diete herriko aktoreei: Txaro Gallego, Iurgi Etxebarría eta Kepa Errasti: "Errastik ezin etorria agertu du, baina beste biek hartuko dute parte".

Adin guztiak hartu gura izan dituzte kontuan, eta ikastetxeekin elkarlanean hainbat ekintza antolatu. "Antzerkiari bultzada eman gura diogu ikastetxeetan. Hortaz, eskola orduetan ere hurbiltzeko aukera izango dute", dio Uribarrenek. Hala, Ameztu produkzioak *Hankaz gora! Berdintasun istorioak* eta Markeliñeren *Euria* izango dituzte datorren astean; azken horretan, esaterako, galera eta tristura gaiak landuko dituzte.

Txalo Produkzioen *Ettxeko saltsak* antzezlan nabarmendu du Uribarrenek, datorren egubakoitzean izango dena Zaraia aretoan: "Aurten estreinatutakoa da eta eskarmentu handiko aktoreak daude: Mikel Laskurain, Ane Gabarain, Aitziber Garmendia... Zirika Zirkus konpainia ere oso ezaguna da gurean; hortaz, harrera beroa izango du".

Irteera Orora eta Larrinora

Antzerkia ardatz izan arren, beste ekitaldi batzuk ere izango dira Arkupen; zinema itzuliko



Zaraia aretoaren sarreran Gallego, Uribarren eta Miguel. MAITE TXINTXURRETA

da eta ipuin kontaketa egongo da liburutegian. Urriaren 12an, ostera, Oro eta Larrino auzoak ezagutzeko irteera egingo dute. Aitor Antxia Leturiak gidatuta izango da eta izena aurrez eman behar da Arkupeko harreraren.

Herrikoen parte-hartzea

Txaro Gallego eta Iurgi Etxebarría aretxabaletarren ere izango dute lekua.

Urriaren 4an, eguaztena, performancea egingo du Gallegok kalean, 19:00ak eta 21:00ak bitartean. "Herritarrak antzokira gonbidatuko ditut pintxo-pote orduan irtenda", jakinarazi du.

Urriaren 7an, zapatua, ostera, antzerki tailerra eskainiko du Etxebarría: *Imagine eta kitto*. 16 urtetik gorakoendako da eta izen-ematea zabalik daukate Arkupen –plazak bete artean–.

Antzezlanak

Urriak 3

• **09:15/10:15/11:15**
Ameztu produkzioak:
Hankaz gora! Berdintasun istorioak.

Urriak 5

• **09:00/11:00** Markeliñe:
Euria.

Urriak 6

• **22:00** Txalo produkzioak:
Ettxeko saltsak.

Urriak 7

• **22:00** Javier Liñera:
Barro rojo.

Urriak 8

• **17:00** Zirika Zirkus: *Lara eta Larika*.

Urriak 15

• **17:00** Tomaxen
abenturak: *Hiru ipuin, hamaika irri*.

Urriak 21

• **22:00** Alanbike teatro: *In perpetuum mobile*.



Jose Lonbide, iazko sarituetako bat, azokan tomateak erakusten. AITOR AGIRIANO

Tomate itsusiena eta ortu onena sarituko dituzte bihar

Mankomunitateak antolatutako Tomatearen Asteari bukaera emango diote eta pintxoak ere izango dira

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaletako tomatea protagonista izan duen Tomatearen Astea borobilduko dute bihar, irailak 30, egingo den artisautzaren eta nekazaritza ekologikoaren 23. azokaren bueltan. Lehiaketa bi deitu zituen Deba-goieneko Mankomunitateak, ortu lehiaketa eta tomate lehiaketa, eta sari banaketa ekitaldiak bihar izango dira.

Inguruko ortuetan ekoiztutako tomateak Herriko Plazan jarriko dituzte, herritarrek ikus ditzaten (10:30-13:00), eta eguerdi partean sariak banatuko dituzte (14:00); barietate gehien aurkeztu duenak jasoko du bertako produktuekin osatutako otarra, baita tomate itsusiena aurkeztutakoak ere. Azken hori herritarrek aukeratuko dute, eta botoa emandakoen artean ere beste otar bat zozketatuko dute.

Erakusketa bitartean tailer bat ere egingo dutela iragarri dute antolatzaileek: *Nola lortu haziak*. Hortaz, interesa dutenak plazako postura hurbil daitezela.

Tomatearekin egindako pintxoak

Herriko hainbat tabernak ere bat egin dute Tomatearen Asteari, eta pintxoak eskainiko dituzte eguerdi partean.

Hona hemen tabernak eta eskainiko dutena: Bedarretak, ahuntz-gazta arrautza-irinetan pasata eta tomate-konfitura; Gureak, tomatea arrautza-irinetan pasata, urdaiazpikoa, ahuntz-gazta eta piperrarekin; Hirustak, tomate-tosta; Orlyk, bakailaoa tomatearekin; Exprexek, Aretxabaletako tomatearekin egindako tartaleta urdaiazpiko eta parmesanoarekin; eta Taberna Berrik, bakailao-baranda galeper-arrautzarekin, tomate-krema eta ali-oli perrexil-olioarekin.

'Jaietan ere beldur barik jarrera' bultzatuko du Udalak

Sanmigel jaietan murgilduko dira gaur aretxabaletarrak, eta, horrekin lotuta, errespetuaren aldeko mezu argi eta garbia eman gura izan du Udalak. Hala, Andramaixetan lez, *Jaietan ere beldur barik jarrera* dioten zapiak jarriko dituzte herritarren eskura oraingoan ere. Jakinarazi dute tabernetan izango direla salgai euro baten truke.

Barriketan programarako izen-ematea zabalik

Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin gura duten herritarrek elkartzen ditu *Barriketan* programak eta urriaren jarriko dute abian aurtengo ikasturtea. Bien bitartean, izena emateko epea zabaldu dute; hona hemen horretarako helbidea: auzoko@loramendielkartea.eus. Argibideak gura dituenari ere hor emango dizkiote.



Modeloak abrigo dotoreekin.



Kimonoak erakusten.



Erretiratuak eta umea elkarrekin.



Nieves hiru ilobarekin.



Moda desfilean parte hartutako modeloak. ARGAZKIAK: A. TXINTXURRETA ETA M. ALTUBE

Erretiratuak ere dotore alfonbra gorri gainean

Kultura Astean murgilduta dabilta Basotxo erretiratuen elkarteko kideak eta moda desfile eta merienda arrakastatsuak egin dituzte egunotan. Gaur emango diote bukaera Felix Ajuria artzain ezagunak gidatutako gazta dastatzearekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Ekitaldi arrakastatsuei eutsita eta berrikuntzak gaineratuta etorri da aurten erretiratuak antolatutako Kultura Astea. Moda desfilea izan da nobedade handiena, eta harrera beroa egin diote herritarrek: "Oso elegantea izan da desfilea, artista galantak ikusi ditugu alfonbran eta arropa benetan politak erakutsi dituzte; herrian bertan ditugu, gainera". Izan ere, Belar Meta, Asensio eta Lie dende utzi zizkieten arropak eta osagarriak.

Urduritasuna zen nagusi martitzen arratsaldean Basotxo inguruan, modeloen artean, baina alfonbra zapaldu orduko albo-ratu zuten latsa, eta artista han-

diak direla erakutsi. Batzuek ilobak izan zituzten lagun, beste batzuek lagunak, eta Ongizate Saileko zinegotzi Karmele Uribarri ere alboan izan zuten: "Erretiratuak, beste behin ere, erakutsi dute oso aktiboak direla; hortaz, zelan ez egin bat erekin. Oso gustura jardun dut".

Gaur, gazta dastatzea

Eguaztenean, oster, abesten jardun zuten kantu taldekoek, pintxo-potea girotzen. Eta atzo, merienda ederra izan zuten elkartearen bertan: dantzariak eta txistulariek girotutako txokolate-jana, Basotxoko abestaldearen emanaldia eta dantzaldia H. Kinta Y Ku taldearekin.

Gaur bukatuko dute astea, gazta dastatzea eginda, 17:15ean. Beste urte batzuetan ere lagun izan duten Felix Ajuria artzain eta gaztagile otxandiar ezagunak gidatuko du. Gaztaren gaineko argibideak emango dizkie hark.

Elkarretaratzea

Bestetik, urriaren 2an, astelehen, elkarretaratzea egingo dute erretiratuak udaletxe aurrean, 19:00etan, pentsio duinak eskatze. Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak (AGIJUPENS) deitu du, Nagusien Nazioarteko Eguna dela eta: "Pentsio duinak gura ditugu guztiondako, behartsuenei justizia eta elkartasuna ziurtatzea..."



M.A.

Kide berriekin indartu da Aratz

Aratzeko familia, Atzegiko ordezkariarekin batera, Arkupen elkartu zen joan den zapatuan 25. urteurreneko ospakizunak borobildu eta bukatzeko. Atzera begiratua egin zuten, joandakoak gogoan izan, eta esker opariak banatu: laguntzaileei, sorrerako familiei eta elkartera sartu berri direnei. Hiru familia dira horiek, eta pozik hartu dituzte gainerakoek.



M.A.

Mugarria bistan Urkulun

Urkulu urtegiko urak behera eginda daude azken hilabeteotan, euri eskasiagatik, eta horrek urpean egon izan diren bazterrak eta elementuak bistarazi ditu. Horien artean dago mugarri bat, 85. kilometroa adierazten duena, hain zuzen ere. Herritar baten esanetan, handik atera eta errepede alboan jarri beharko lukete mugarri hori, guztien bistora.

Jaikik antolatutako dantza garaikide ikastaroa abian da

Dantza garaikidea: esplorazioa, inprobisatzea eta arreta izeneko ikastaroa antolatu du Jaiki elkarteak, eta atzo izan zuten lehen saioa; eguenetan elkartuko dira (18:30-20:30), kuartel zaharrean. Izena emateko epea zabalik dago; hortaz, interesatuak honako helbide honetara idatz dezatela: jaikielkartea@yahoo.es. Hiru hilabeteko ikastaroaren prezioa

hauxe da: 85 euro langileek eta 75 langabeek –hamar saio–.

Jaikiko kideek ikastaroaren nondik norakoen berri eman gura izan dute: "Saioak entrenamendu-beroketa batekin hasiko ditugu, gorputza fisikoki prestatzeko eta entzumena garatzeko. Gure arreta leku ezberdinetara eramatera jotatuko dugu. Mugitzeko era ezberdinen ikerketarekin jarraituko dugu, eta ondoren, inprobisatzeko egitura eta estrategiak ezagutzen joango gara".

2018ko ordenantza fiskalak onartu dituzte

Iraileko osoko bilkuran, 2018ko ordenantza fiskalak onartu dituzte, Uraren Euskal Agentziarekin hitzarmena sinatu dute eta, Kataluniaren egoeraz bat egiten duen mozioan aldaketa batzuk eginaz, onartua izan da alderdi guztien oniritziarekin

Imanol Beloki ESKORIATZA

Iraileko ohiko osoko bilkuran 2018rako ordenantza fiskalak onartu dituzte; hain zuzen ere, aldaketa tekniko batzuk egin dituzte iazkoekin alderatuz. Esate baterako, ur tasetan aldaketa batzuk egongo dira, urteroko igoerez gainera, eta, horregatik, tarifa berriak onartu behar izan zituzten martitzeneko bilkuran. Familia handia dutenak tarifa bat izango dute, arazo baten ondorioz ura neurrigabe gastatu dutenak beste bat, kasuz kasu aztertuko direnak, eta kontsumo oso kapritxosoa dutenak zigortuak izango direla adierazi zuten, besteak beste.

Uraren Euskal Agentziarekin hitzarmena sinatzea izan zen adostu zuten beste gai bat. Eta, horrekin batera, lan poltsa bat sortzea ere proposatu zuen alkateak. "Hitzarmena egin beharra zegoen. Urak Euskal Agentziakoei bere kabuz, aldiro egiten dute tratamendua udalerriko erreketan, baina udaletxea ere ahalbidetu nahi dugu errekek garbiago egoteko, tratamendu zehatz bat eginaz. Aukera bat ikusten dugu prekarietatean poltsatik denboraldi baterako lana ere bideratzeko", adierazi zuen Joserra Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak.



Iraileko osoko bilkuran esteladarekin ateratako talde argazkia. IMANOL BELOKI

Kataluniari elkartasuna

Kataluniari elkartasuna adierazteko mozioa ere onartu zuten. Legebiltzarrean onartutako testuarekin bat egin bazuten ere, testuari bi aldaketa egin zizkion: Udalak bat egiten duela Kataluniak erabakitzen duenaz, batetik, eta udaletxeko balkoian estelada jartzea, datorren martitzenera arte, bestetik. "Bat egiten dugu Kataluniarekin, ez dugu onartzen estatu espainola erabiltzen ari den mehatxu eta joko zikin hori eta euren egoeraz bat egiten dugu...".

2018ko aurrekontuak prest

Galde-eskeen atalean, 2018ko aurrekontuak izan zituzten hizpide. Aitor Zubizarreta EH Bilduko bozeramaileak horien inguruan galdetu zuen, eta Josu Ezkurdia EAJko zinegotziak adierazi zuen egubakoitz honetarako proposamena amaituta izango dutela. Zenbakiez gain, planteamendu estrategiko sakinagoa adieraziko dutela gaineratu zuen.

Esteladarekin talde argazkia aterata amaitu zuten iraileko osoko bilkura.



PEDRO HERNANDO

Erretiratuei omenaldia, bikain

65 urtetik gorako erretiratuei omenaldia egin zieten domekan. Pilotalekuan 190 pertsona inguru batu ziren bazkaltzeko, eta ondoren, nagusienak omendu zituzten udal ordezkariak. Elena San Vicente 94 urtekoa eta Pablo Ganboa 99 urtekoa. Lore sorta eta txapela jaso zuten udal ordezkariengandik, eta merkatariek emandako opariak ere banatu zituzten.



I.B

Ayotzinapako alde

EskoZap taldeko kideek elkarretaratzea egin zuten martitzenean Fernando Eskoriatza plazan. Horretarako, 43 aukitan, Ayotzinapako ikasle bakoitzaren argazki eta kandela bana jarri zuten, protesta gisa. Hiru urte bete dira Ayotzinapan (Mexiko) 43 ikasle normalista desagertu zirela, eta haien familiei elkartasuna adierazteko asmoz burutu zuten ekintza.

Hitzarmen berria

Eskoriatza Kirol Elkarteko Aresko Saskibaloi Eskolak eta Mondragon Linguak babesletza kontratuaren berriztatze hitzarmena sinatu dute, datozen bi urtetarako. Manuel Muñoz kiroldegian; Javier Corbal, Eskoriatza Kirol Elkarteko zuzendaria, Julen Fornies kirol zuzendaria, eta Joseba Bartolome Mondragon Linguako Komunikazio eta marketin arduraduna batu ziren



GARTXOT ZUBIZARRETA

Untzilla eta Muru arteko mendi irteera izango da urriaren 8an

Makilla eskuen eta ibili basuen lelopean antolatu dute mendi irteera Aretxabaletako eta Eskoriatzako guraso foroak eta hezkuntza foroak urriaren 8rako, domeka. Familiei zuzenduta dago.

Eskoriatzatik 10:00etan Huheziko aparkalekutik irtengo dira irteerara doazen batzuk; beste batzuk, aldiz, ordu berean, Are-

txabaletako plazatik irtengo dira, eta 10:20an, Untzillako elizan egingo dute geldialdia. Hala, bertan denak elkartu ostean, Murura igo, bira eman, eta indusketak ikusteko aprobetxatuko dute goiza.

Hiru orduko mendi ibilaldia izango da, 10:00etan abiatu eta 13:00 inguruan amaituko dutena, eta bertara doazenek 7,51 kilometroko bidea egin beharko dute. Informazio gehiago nahi duenak Mugibili.euskadi.eus webgunean du eskuragarri.

Apotzagan behera ziztu bizian jaisteko asmoz

Zapatuan izango da Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldeko kideek antolatzen duten Apotzagako goitibehera jaitsiera. Aurten bosgarren edizioa izango da, eta, Apotzagan hasita, Intxartxuetarainoko 1,5 kilometroko bidea egin beharko dute parte-hartzaileek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Apotzaga auzoan behera 91 goitibehera jaitsiko dira bihar jokatu den lasterketan. Open Norte txapelketarako puntugarria izango da Eskoriatzako proba, eta Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldeko kideek eginda dituzte egunerako pres-taketa-lan guztiak.

Parte-hartzaile batzuek abiaduraren aldeko apustua egingo dute; beste batzuk, aldiz, *drift* eginaz bihurguneak hobeto hartzen saiatuko dira, baina, lehia-tzeaz gain, ondo pasatzera joango dira partaide guztiak. Hala, bost modalitatetako ibilgailuak ikusi ahal izango dira: errodamenduak dituen goitibehera bakarra, pneumatika modalitateko 28 goitibehera, gravities modalitateko 11, lomboard 2, patinak 3, eta drift-trike modalitateko 46 goitibehera.

Herritarrek

Iaz, Eskoriatzako azkarrena Gorka Urrutia eta Gorka Jurado bikotea izan zen, 1.33.770 eginda. Aurten, aldiz, ez da bikote bera izango herriko proban; izan ere, Urrutiak Antton Salaberriarekin egingo du proba, eta Juradok ez du parte hartuko. Hala ere, herriko beste hainbat parte-hartzaile ere izango dira. Batzuk,



Gorka Urrutia, Apotzagako jaitsieran, aurreko edizio batean. IMANOL SORIANO

urtero parte hartzen dutenak, eta beste batzuk, lehenengoz egingo dutenak. Esaterako: Ioritz Aranguren eta Aritz Zubia, Lander Mediavilla eta Ekaitz Oñate, Mentxu Castelo eta Yolanda Vita, Miguel Angel Arevalo eta Asun Zubia bikoteak, eta Open Norte txapelketarako lehiazera joango den bakarra, Edgar Arevalo.

Eskoriatza eta bailarako parte-hartzaileez gain, iaz bezala, Kantabriako, Gaztela eta Leon-go eta Asturiasko partaidea ere izango dira aurtengo proban.

Umoretsuenari saria

Maldan behera jaisteko ekimen horrekin hasi zirenetik, urteroko sariak banatu izan dituzte, eta, horiekin batera, goitibehera umoretsu eta dibertigarrienari ere eman izan diote sari berezia. Aurreko edizioetan, antolakuntza taldekoek goitibehera bitxia-ekin eta moztortuta ere jaitsi izan dute Apotzaga; aurten ere izango da zer ikusi egunerako prestatu dutenarekin. Bestalde, lasterketa egunean, 14:00etatik 20:00etara itxita egongo da Apotzagako errepedeak

Tortolis ludotekak zenbait tailerrekin hasi du ikasturtea

Astelehenean hasi zituzten ate irekiak, eta bertako begiraleek bertaratzeko dei egiten diete herriko haurrei

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako Tortolis ludoteka-ko ate irekiak izan dira aste honetan, ludoteka gaztetxoan artean ezagutzera emateko. Astelehenean ireki zituzten ateak, eta hainbat ekintza egin dituzte

ordutik hona, haur guztiei zuzenduta: sukaldaritza tailerra, kale-jolasak, betiko mahai-jolasak eta probatzen aritu diren jolas berriak eta eskulanak, besteak beste. Gaur, berriz, jolas librerako tarteak izango dute,

aste osoan zehar aritu diren-entzako deskantsu gisa.

Tortolis ludoteka 16:45etik 18:00etara egongo da zabalik asteko egun guztietan, Haur Hezkuntzako lehenengo mailatik Lehen Hezkuntzako bigarren mailakoentzat. Lehen hezkuntzako hirugarren mailatik bosgarren mailakoentzat, berriz, 10:00etatik 19:15era egongo da zabalik. Informazio gehiago nahi duenak 943 71 49 21 telefonora deitu edo tortolis@gmail.com helbidera idatzi dezake.

LEINTZ GATZAGA | 15



Leintz Gatzagako ohiko osoko bilkuran batutakoak. IMANOL BELOKI

Gatzagako Udalak elkartasuna adierazi dio Kataluniari

Udaletxe ondoko parkean estelada jarri dute, eta martitzenera arte bertan egongo da

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagan ohiko osoko bilkura egin zuten atzo, eta udaletxeko bilkura aretoan hainbat gai landu zituzten.

Ehiza denboraldia hasi berri da, eta, hirugarren enkanterako proposamenak aurkezteko epea amaituta, laugarren enkante bat ere ireki berri dute; izan ere, postu batzuk oraindik esleitu barik geratu dira. Hala ere, oso postu gutxi geratu dira banatu gabe, eta udalbatzako kideek adierazi zuten albiste "oso ona" dela.

Kataluniari elkartasuna

Kataluniari elkartasuna adierazteko mozio proposamena ere onartu zuten udalbatzako kideek. Hiru puntutan banatuta adierazi zuten mozioa: autodeterminazio eskubidea herri guztiei dagokien oinarritzako eta ezinbesteko eskubidea denez, Kata-

luniari bere etorkizuna erabakitzeko eskubide hori dagokio- la aitortzea; Kataluniako erreferendumarekin elkartasuna publikoki adieraztea; eta Herriko Plazako mastan Kataluniako ikurra jartzea. Azken puntua moldatu, eta udaletxe ondoko parkean estelada jartzea erabaki zuten; martitzenera arte egongo da.

Gatz Museoa zabaldu

Gatz Museoa Euskadiko Enogastronomia Museo eta Guneen Sarea Elkartera atxikitze-ko erabakia ere onartu zuten. "Azkenaldian, buru-belarri ari gara museoarekin, eta Euskadiko Enogastronomia Museo eta Guneen Sarea Elkarteren parte bagara, onerako izango da; he-dapen handiagoa emango diogu modu horretan...", adierazi du Eneka Zankadak, Gatzagako alkateak.

Iturburuaren prozesuarekin buru-belarri

Iragana, gatz eta etorkizuna proiektuaren bigarren lan-saioa egin dute aste honetan Gatzagako herritarrek, Aztiker Soziologia Ikergunearen Aholkularitzako Xabi Lukeren eta Markel Ormazabalaren gidaritzapean.

Gatz iturburuaren proiektua ezagutzeko eta ekarpenak egiteko eta gatz iturburuaren us-tiaketa proiektua aurkezteko

eta ekarpenak jasotzeko aprobetxatu zuten saioa. "Herriak oso ondo hartu du halako ekintza bat gauzatzea. Parte-hartze handia izaten ari da, eta guk uste baino jende gehiago hurbildu da. Hogei pertsona inguru batu ziren eguazteneko bigarren saioan, eta herriaren ikuspuntua zein den jakitea oso garrantzitsua da guretzat", esan du Eneka Zankadak, Gatzagako alkateak.

Prozesuari amaiera emateko, hirugarren urratsa urriaren 28an izango da, kultura etxean.



Ondare Babesa enpresako kideak –tartean, Etor Telleria– 2014an egindako indusketa batean, Murugainen. JOKIN BEREZIARTUA

Murugain proiektuaren emaitza, bertatik bertara

2011n abiatu zuen egitasmo hori Ondare Babesa arkeologia enpresak; Burdin Aroko herrixka bateko harresia, gerra zibileko lubakiak eta zenbait aztarna aurkitu dituzte, eta orain arte lortutakoa erakutsiko du Etor Telleria arkeologoak, bihar, 11:00etan

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Bisita gidatu baten bidez, 2011tik hona Aramaio, Arrasateko eta Aretxabaletako mendietan aurkitutakoa erakutsiko die herritarrei Etor Telleria arkeologoak. Untzilla auzoan abiatuko da bisita. "Murugain puntan hasi ordez, Untzillan hasiko dugu bisita, eta, igotzen goazen heinean, geldialdi batzuk egingo ditugu, gauzak bertatik bertara azalduz. Jendea paisaia kokatzen joango gara bisitan, testuinguru historiko bat emana eta leku bakoitzean zer aurkitu den azalduz. Dibulgazio lan bat da, azken finean", adierazi du Etor Telleria arkeologoak.

Hain zuzen ere, dibulgazioa eta zabalkundea dira Murugain proiektuaren helburuak aurtan. "Aurtengo gure helburua hori izan da. Gehiago indusi beharrean, daukagun horri forma ematea. Alde batetik, difusioa, eta, beste batetik, ateratako aztarnak sendotzea eta zaharberritzea. Horregatik, han ditugun

aztarnak txukun jarri nahi izan ditugu", dio Telleriak.

Auzolana

Hasieratik herritarren inplikazioa bultzatu nahi izan du proiektu horrek, bai aramaioarrena, baita inguruko herritarrena ere. "Herritarrek ere lagundu dute honetan guztian, auzolanak garrantzi handia izan du. Asteazkera arkeologo profesional lantalde batek egin dugu lan eta asteburuetan auzolaneko herritarrek etorri dira. Denon artean lortu dugu hori guztia azalera-tzea. Zentzu horretan, proiektu integral bat izan da, ondarearen berreskurapenean guztiok jardun dugulako", azpimarratu du arkeologoak.

UNTZILLAN HASIKO DA BISITA, 11:00ETAN, ETA MURUGAINERAINO IRITSIKO DA, GELDIALDIK EGINEZ

Bi ikerketa-lerro

Proiektuaren hasierako helburua Burdin Aroko herrixka bat aurkitzea zen. Hala ere, indusketek aurrera egin ahala, gerra zibileko zenbait lubaki ere aurkitu dira. "Hala, bi ikerketa-lerro horiek aintzat hartzea erabaki genuen, bi gaiek zeukaten interesa kontuan hartuta. Gainera, azkenean, protagonismo handiagoa hartu du gerra zibileko lubakien gaiak, Burdin Aroko herrixkarenak baino".

Beraz, hainbat elementu ikus-teko aukera izango da biharko bisitan. "Mendi guztiaren ingurua nola zegoen trazatuta lubaki sare baten bitartez, Burdin Aroko herrixkako harresiaren zati handi bat, zenbait aztarna..."

Paisaia eta gizakia

Ondarearen Europako jardunaldien baitan kokatzen da biharko bisita eta jardunaldi horien gai nagusia ondorengoa da: paisaia eta gizakiak nola eragin duen paisaia horretan.

Udalak askotariko lanak egin ditu Kruzetan

Batetik, abereak errepidera ez irteteko Udalaren lurretako itxidurak indartu egin dira eta paso kanadarrak, garbitu. Arabako Foru Aldundiari berari dagoz-kion paso kanadarrak garbitzeko eskaera ere egin dio Udalak, eta bilera eskaera egin dio, animalien arazoari aurre egiteko. Bestalde, egur karga-lekua txukundu egin du Udalak.

Arraga auzoan saneamendu sarea osatzen ari dira

Ekainean onartu zen Arragako saneamenduan Iturrieta sartzeari, aurretik auzoaren saneamendua egin zenean kanpoan geratu zelako. Beraz, lehen fase honetan sarean sartuko da Iturrieta eta hurrengo fasean, Arraburu baserria. Azken horrekin, auzoko saneamendu sarea osatuta geratuko da. Lehen fasearen kostua 11.253 euro da.

Parkeen mantentzea ardatz duen ikastaroa urritik azarora arte

Kuadrillak antolatuta, lorategien, parkeen eta eremu berdeen mantentzeari buruzko ikastaroa egongo da urriaren 6tik azaroaren 3ra bitartean. 90 orduko ikastaroa izango da. Izena emateko, 945 43 01 67 telefonora deitu edota ekonomia@gorbeialdea.eus helbidera idatzi. Bost lagun behar dira gutxienez ikastaroa osatzeko. Legutition izango da.

Blue Berri Band taldeak itxiko du aurtengo egitaraua

Talde gasteiztarra izango da Sastiñan joko duen azkena.

Jazz, swing, bossa nova, funk eta blues doinuak eskainiko ditu Agustin Chaves gitarrak-joleak, Fran Serrano kontrabaxu-joleak eta Geral Ramirez abeslariak osatzen duten taldeak.

Gaur, egubakoitza, izango da kontzertua, 19:30ean, Sastiñan, eta aurtengo azkena izango da.



NIRE USTEZ

ANDERE
ARRIOLABENGOA

Herriak dauka giltza

Urriaren 1a gainean daukagu. 48 ordu baino gutxiago gelditzen diren honetan, zalantzak ziurrak baino gehiago dira. Espainiako Estatuak makineria judizial eta polizial guztia jarri du bere aginduetara eta Herrialde Katalanak errepresio lotsagarrienaren –edo lotsagabeenaren– protagonista bihurtu dira.

Ezin dut disimulatu. Inbidiatan nago. Hiri eta herrietako kale eta plazak herritarrez gainezka ikusteak emozionatu egiten nau. Herritarrek beraien eskubide zibil eta politikoak urratzen dituztenei aurre egiten ikusteak hunkitu egiten nau. Desobedientzia modu kontzientean azken muturreraino eramateko prest dagoen herriak oilo-ipurdia jartzen dit.

Eta, bat-batean, leihotik begiratu, eta emozio eder hori samin bihurtzen da. Euskal Herriko kale eta plazak hutsik daude. Herri bezala ditugun eskubideak behin eta berriz zapaldu arren, isiltasuna da nagusi. Zer behar du herri zahar honek kalera atera eta berea dena aldarrikatzeko? Katalunyak zerbait erakutsi badigu, horixe baita, herri botererik gabe, instituzioak umezurtz daudela.

San Migel jaiak ospatuko dituzte Etxaguen auzoan

Gaur, egubakoitza, bertso afaria egingo dute Etxaguen auzoan, 21:00etan. Odei Barroso urruñarra eta Xabat Gallettebeitia lekeitiarra izango dira saioa osatuko duten bertsolariak, eta gai-jartzaile lanetan, berriz, Beñat Ugartetxea mallabitarra arituko da. Asteburuan hainbat ekin-tza gehiago egingo dituzte –gehia-go Goiena.eus webgunean–.

SANMIGELAK 2017

ARETXABALETA
JAIETAN!



- EGITARAUA
- KANTU AFARIA
- AZOKA

- BEINKE-LORAMENDI DANTZA
- HERRI KIROLAK
- BOLEROAK ABESBATZAREKIN

ALKATEAREN AGURRA



UNAI ELKORO
ARETXABALETAKO
ALKATEA

Udazkenari ongietorria emateko hemen ditugu berriz sanmigelak, iraileko azken asteburuan Atxabalta musika, dantza eta alaitasunez betetzen duten jaiak. Aurtengo honetan, ordea, igandean, hemen jaiei amaiera ematen izango garen bitartean, katalanek beraien etorkizuna erabakitzeko hitzordua daukate; Espainiako gobernuak jarritako traba guztiak gainditzea lortuko dutelako ustetan, beraientzat nire babesik beroena. Hemen gaudenontzat, ondo pasa jaiak, eta bete ditzagun kaleak alaitasunez eta euskaraz.

JAIETAKO EGITARAUA

EGUBAKOITZA 29

19:00 Arrasateko KILIKIEN KONPARTSA ertaina eta Aretxabaletako ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK, Arrasateko eta Aretxabaletako gaiteroekin batera.

21:00 KANTU AFARIA. Herriko plazan. Sei Pistols & Trabuko Bat taldearekin.

ZAPATUA 30

10:00-14:00 ARTISAUTZAREN ETA NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN 23. FERIA, Durana kalean.

10:00-14:00 BERTAKO GANADUAREN IV. FERIA, Arlutz kantxan.

10:00 DIANA, Aretxabaletako txistulariekin.

10:30 TONBOLAREN IREKIERA, Loramendiko Iristu gazte taldeak antolatuta.

10:30 Loramendiko Tril emakume taldeak antolatuta, TALO TXOSNA. Pagaldai tabernan.

11:30 Leizarra Musika Eskolako TRIKITILARIAK. Kaleetan zehar.

12:45 TXALAPARTA. Durana kalean.

13:00 Simon Otxandategi taldearen JOALDUNAK. Aretxabaletako kaleetan zehar.

14:30 ELKARTASUN BAZKARIA, Iturrigorri frontoian.

18:00 BOLO TXAPELKETA. Bolatokian. Izen-ematea 10 euro. Lau sari egongo dira.

19:00 Beinke-Loramendi dantza emanaldia. Herriko Plazan.



Aretxabaletako erraldoiak jaiei hasiera ematen. AITOR AGIRIANO

20:00-21:30 eta 22:30-00:30 ALAIKI taldea. Herriko plazan.

DOMEKA 1

11:00 DIANA, Aretxabaletako gaiteroekin.

11:00 Basotxo elkartearen eskutik DOKE TXAPELKETA, Basotxo aurrean.

13:00 HERRI KIROLAK, Herriko plazan. AIZKOLARIAK: Aitzol Atutxa Ugaitz Mugerzaren kontra –Euskadiko txapeldunak binakakoetan–. HARRI-JASOTZAILEAK: Izeta II.a

200, 250, 270 kiloko harriekin eta 111ko bolarekin. AIZKOLARIAK ETA TRONTZA: Irati Astondoa eta Alazne Eteburua, enbor ebaketan eta trontzan. HARRI-JASOTZAILEA ETA INGUDE ALTXAKETA: Karmele Sarasola. Aurkezlea: Gabisola.

16:00 25. SAN MIGEL MUS TXAPELKETA. Herriko plazan. Garaikurra, txapela eta dirua emango zaie lehenengo sailkatuei. Izen-ematea: 15:15-15:45, 20 euro.

19:00 SANMIGELETAKO KONTZERTUA Aretxabaleta Abesbatzaren eskutik, musikariak eta dantzariak lagun dituztela. Iturrigorri frontoian.



Mobiliario
ARENAZA altzariak

Bizkaia kalea 1 **ARETXABATETA**
Tel./Faxa: 943 79 08 07
mobiliarioarenaza@hotmail.com

■ **Altzariak**

■ **Diseinua**

■ **Apainketa**

*ondo ibili
jaixetan!*



Bikote bat gogotsu abesten iazko kantu afarian. AITOR AGIRIANO

Mingainak bizi, eztarriak bero: abesteko prest!

Herriko plazan tripa ondo bete ostean, mingainak dantzan jarriko dituzte gaur gauean aretxabaletarrek. Ohiturari eutsiz, Sei Pistols & Trabuko Bat taldeak girotuko du, beste behin ere, San Migel jaietako kantu afaria

Itziar Larrañaga ARETXABALETA

21:00etan goraino beteko da, aurtan ere, herriko plaza, kantu afariari hasiera emateko. Txartel guztiak salduta, 650 bat lagun elkartuko dira bertan, konpainia onean afaldu eta gogotsu abesteko prest.

Sei Pistols & Trabuko Bat

Urte asko daramatza kantu afari-ko gidari lanetan Sei Pistols & Trabuko Bat taldeak. Aitor Ziardegi taldeko kideak aipatu du urtero abesti berriak gehitzen saiatzen direla, baina aurtan ez dutela berrikuntzarik sartuko: "Sanmigelak gainera etorri zaizkigu eta ez dugu abesti berriak prestatzeko astirik izan". Hala ere, azken orduko abesti berri bat egongo da kantu afarian.

Katalunia gogoan

Gure Esku Dago-k proposatuta, Lluís Llach-en *L'estaca* abesti ezagunaren bertsio elebiduna abestuko dute. Kantuaren letra banatuko dute denek abesteko.

Herriarren parte hartzea

Aurreko urtean Durana kaletik herriko plazara aldatzeko era-

bakia hartu zen, eta aurtan ere leku berean jarraituko du.

Partaide kopuruak gora egin ahala entzuteko arazoak hasi ziren Durana kalean. Horretaz gain, leku aldaketa proposatzeko beste arrazoi bat ere izan zuten taldekideek: "Kantu afaria baino gehiago, herri afari bilakatzen ari zen sentsazioa geneukan, eta horregatik egin genion proposamena Udalari kokapena birplanteatzeko. Iaz plazan egin zen, eta asmatu genuela uste dut, batez ere, bildu zen jendetzagatik".

Gainera, inguruko herriekin alderatuz, Aretxabaletan beste inon baino arrakasta handiagoa izan du ekimenak hasieratik, eta bide beretik jarraitzen du.

Hala ere, gazte jende gutxi ikusten da. "Ez dakigu ze tekla jo gazte jendea erakartzeko", aitortu du Sei Pistols & Trabuko Bat taldeko kideak. Afarian jotzen diren kantu motek eragina izan dezaketela uste du Ziardegik, baina soluzioa ez da erraza, haren ustez: "Gatibu jotzen hasten bagara, kantu afaria baino gehiago, bertsio kontzertu bilakatzen da".



Herrikideak, ARLO GUZTIAK landuz, jabeen komunitateen kudeaketan lan egiten du; jabeen lasaitasuna bermatuz eta, betiere, zerbitzuan PRESTUTASUN osoa bilatuz.

Hurbil egoteak ematen duen erosotasunaz baliatuz -Aretxabaletan gaude- zure komunitatea zentzuz eta arduratsu kudeatzen dugu. Horretaz aparte, beste balio bat dugu: eraikuntzan eta lan arloen zuzenketan urte askotako esperientzia (ezbeharrak, dokumentazioa, laguntzak...)

Ondo pasa sanmigeletan!

 **HerriKide**
Komunitateen kudeaketa

Basabe,4 - EO-11 20550 Aretxabaleta
Tel./Faxa: 943089875 / Tel.: 679455764
herrikide@outlook.com
www.herrikide.net

Bertako produktuz betetako azoka

San Migel jaien barruan, Durana kalean egingo den 23. azokan, nekazaritza ekologikoko hamasei postu izango dira eta artisauenak, berriz, 35. Arlutzeko kantxan laugarren urtez egingo da bertako ganaduaren feria

Imanol Beloki ARETXABALETA

San Migel jaietako artisautzaren eta nekazaritza ekologikoaren azoka irailaren 30ean, zapatua, izango da. Aurtengoa hogeita hirugarren edizioa izango da, eta 10:00etatik 14:00etara bitartean Durana kalean jarriko dituzte postuak.

Hain zuzen ere, produktu ekologikoen hamasei postu izango dira, 26 mahaitan banatuta. Garaiako barazkiak, gazta, eztia, ogia, intxaurrak, landare ekologikoak... mota horretako produktuak izango dira, besteak beste. Nekazaritza Ekologikoaren Elkarteko Adrian Sanchezek haxe adierazi du: "Azokan izan-



lazko azokan, emakume bat, erosten. AITOR AGIRIANO

go diren elikagai guztiak ekologikoak izango dira, eta azpimarratzekoa dela uste dut zuzeneko salmenta egiten ekoizleak egongo direla. Ekoizle guztiak gipuzkoarrak izango dira eta nafar bat ere izango da, berakatzak saltzen. Hala, aukera bikaina egongo da lehen mailako produktuak erosi eta, edozein zalantza izanez gero, ekoizleei galdetzeko...". Herritarrek jarritako bost postu ere izango dira, gainera: Mendibitzuko ardi-gazta eta haragia, Maria Jesus Rebultaren barazkiak eta Kurtzebarri eskolako ikasleen eta Jose Lonbideren barazkiak, besteak beste.

Artisauen 35 postu


Barazki eta fruitu ekologikoez gainera, artisau postuak ere izango dira, urtero moduan. Hala ere, ez da aldaketa handirik izango aurtengo edizioan. Izan ere, iaz azokan izan ziren postu berdinak egongo dira. Euskal Herri osoko ekoizleak elkartuko dira bertan, eta 35 postu izango dira, guztira; horietatik sei Aretxabaletakoena izango dira.

Zapatak, alpargatak, artilea, kremak, sendabelarrak, bitxiak, larrua, euskal panpinak, egurra eta taila... halako produktuak izango dira. Gainera, produktuak saltzeaz gain, hainbat artisauk produktuak azokan bertan ekoiztuko dituzte, eta nola egiten duten ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Artisautza eta nekazaritza ekologiko postuak ikusteaz gain, Loramendi Elkarteko Tril emakume taldeak antolatuta, talo txosna zabalduko dute 10:30ean, Pagaldai tabernan. Horrekin batera, Leizarra Musika Eskolako trikitilarien eta pandero-joleen musika eta Simon Otxandategi taldearen joaldunak ere izango dira kaleetan zehar.

Formatu txikiko feria

Arlutzeko kantxan, bestalde, bertako ganaduaren feria ere egongo da ikusgai; aurten, laugarren urtea izango du. Urte gutxiz egin den arren, arrakastatsua izaten da, eta animaliak gertutik ezagutzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. "Feria baino gehiago, erakusketak izango da, eta bertan, behiak,



GUREA



Gora, sanmigelak!

TABERNA

Durana 32 ARETXABALETA Tel.: 943 79 20 64

ahuntzak, ardiak, astoak, oi-loak-eta ikusteko aukera izango da. Batez ere, gaztetxoei bideratutako ekimena da; izan ere, haurrak oso gustura egoten dira animaliak ukitzen..." dio Inma Miguelek, Aretxabaletako Kultura teknikariak.

Ikastetxeetako ikasleak ekoizle

Arizmendiko eta Kurtzebarriko ikasleak ere eurek ekoiztutako produktuak saltzen izango dira San Migel jailetako azokan, urtero moduan.

Kurtzebarri eskolako ortuko proiektuarekin 20-25 urte inguru daramatza, eta aurten, butzada eman izan nahi diote. Honela azaldu du Rosa Urreta irakasleak: "Gaur egun, bidegorria amaitzen den lekuan dugu ortua, eta proiektuari garrantzi handiagoa ematen ari gara..."

Arizmendikoak, bestalde, pasa den ikasturteko udaberria ez-kero ari dira lanean ortuko proiektuarekin, eta oilategia ere badute; bertan, hogeioila inguru dituzte. Hala, bi ikastetxeek egin duten lanaren erakusleho gisa erabiliko dute Durana kaleko azoka.

Ortuko produktuak azokara



Kurtzebarri eskolako haurrak talde argazkian. KURTZEBARRI ESKOLA

Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailakoak haziak landatzen izan dira eskola ondoan duten ortuan eta hirugarren mailako haurrek, berriz, ortuan landatutakoa zaindu dute. Hala, kalabazak, piper berdeak, kalabazinak, porruak, patatak, azenarioak, eta abar ekoiztu dituzte, eta horiek eramango dituzte azokara saltzera. Bestalde, masustekin egindako marmelada eta haurrek euren baserrietan bildutako sagarrak eta pikuk ere izango dituzte salgai.

San Migel azokara begira hainbat tailer egin dituzte irailean, txorimalo tailerra, esaterako, eta, saltzera eramango dituzten produktuez gain, horiek ere jarriko dituzte ikusgai azokan. Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako haurrak izango dira produktuak saltzen, eta matematika lantzeko balioko diela adierazi du Urretak. Bestalde, ordu erdian behin, seiko taldeak aldatzen joango dira.

Urte osoan ekoizteko asmoz



Arizmendiko haurrak ortuan lanean. MYRIAM GURIDI

Arizmendi Ikastolako haurrek hainbat produktu eramango dituzte azokara: Lehen Hezkuntzako bigarren mailako haurrek hostore-lazoak, laugarren mailako ikasleek krispetak eta seigarren mailakoek, aldiz, sagar-dultzea. DBHko laugarren mailakoak ere izango dira sanmigeletako azokan, tartak saltzen, ikas bidaiarako dirua lortzeko asmoz.

Almen gunean ortuko proiektuarekin Lehen Hezkuntzako laugarren mailako haurrak hasi ziren, DBHko laugarren mailako talde batean, eta irakasle talde baten laguntzarekin. Bada, hasi berri diren arren, proiektua indartzen ari dira, eta bertan, tomateak, piperrak, kalabazak, kalabazinak, piperminak, eta abar ekoiztu dituzte. Agian, hainbat produktu azokan erakusgai jarriko dituzte, baina urte osoan zehar ekoiztu nahi dituzte garaian garaiko elikagaiak.

GARAJE NORTE

CROSSLAND BERRIA

MODELO BERRIAREN IRTEERA-ESKINTZAK APROBETXATU!

DISEINU BERRITZAILEA SUV BATEN ABANTAILA GUZTIEKIN

PREZIO BIKAINA



OPEL OnStar

Zerbitzu eta konektibitateko zure laguntzaile pertsonala



ZURE AUTOAK 4G WIFIA DAUKA!

Potentzia handiko OnStar® antena dago sabaian, konexio azkar eta iraunkorra izan dezazun, zazpi gailu konektatzeko aukerarekin.

AUTO MARKA GUZTIAK KONPONTZEN DITUGU.



BOSCH DIAGNOSI-ZERBITZUA

* DESKONTUAK www.myOpel.es webgunean izena emanda dauden Opel autoentzako aplikagarriak. ** Autoaren adina lehenengo matrikulazioaren datan oinarritua. Deskontu baliagarriak 4 urtetik aurrerako Opel autoentzako bakarrik. *** Deskontua Tailer Mekanikoak egindako lan guztietan aplikagarria. Osagarriak eta pneumatikoak ez daude barne. Eskaintza hau ez da beste promozio batzuekin bateragarria. 2017ko abenduaren 31ra arte baliagarria. General Motors España SLUK programa hau alda/ken dezake.



Wir leben Autos.

www.myOpel.es

Siempre cuidamos lo que fabricamos | Posventa lo que fabricamos | Opel

OPEL zerbitzu ofiziala

BASABE POL. A 1-3. pab.
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 71 20 03

"Talo on baten sekretua irin freskoa da"

PILI ELKOROBARRUTIA TALOGILEA

Loramendi elkarteko talogileek dena gertu dute sanmigeletako posturik arrakastatsuenetako bat izateko. Aurten ere, lagun talde ederra batuko da lanerako

Maider Arregi ARETXABALETA

Pili Elkorobarrutia aretxabale-tarrak lau urte daramatza talogile San Migel jaietan. Urtero Loramendi kultura elkarteak antolatzen du talo postua, eta, aurten ere, "ilusio handiz eta gogotsu", dena prest dutela ar-rreratu du.

Zein da zure lana?

Masa egiten ibiltzen naiz. Momentuan bertan egiten dugu, gainera, masa freskoa, eta ekarri berria den irinarekin.

Hortaz, masa da talo ona egiteko sekretua?

Bai, bai. Irina egin berria izatea ezinbestekoa da; hau da, irin freskoa izan behar du. Izan ere,



Pili Elkorobarrutia, alboan Karnele Unzueta eta Angelines Lopez dituela. GOIENA

sekulako aldea dago, eta igarri egiten da freskoa ez bada. Horregatik, urtero-urtero errota batetik ekartzen da arto-irin egin berria eta guk masa egiten dugu ur epelarekin ondo-ondo nahastuta.

Talo-jotzean ere igarri egingo da, ezta?

Bai! Eskuko kolpea oso garrantzitsua da. Taloak fin-fina izan behar du. Teknika behar da, berehala igartzen da-eta ondo jota dagoen edo ez. Ondo jotzen diren harrotu egiten dira plantxan. Hori oso ona da, nahiz eta gero berriro jaitsi. Esan bezala, taloa plantxan harrotzeko, fina izan behar du, eta hor esku-kolpea da gakoa.

Zenbat jende aritzen zarete egun horretan lanean?

Bi txanda egiten ditugu. Batzuk masa egiten, beste batzuk talo-jotzen, txistorra eta hirugiharra erretzen beste batzuk, zerbitzari lanetan... gutxi gorabehera, txanda bakoitzean 15-20 lagun. **Sekulako giroa sortuko da zuen artean.**

Izugarria. Giro oso ona izaten dugu eta horregatik bakarrik merezi du. Batzen garen zenbait

jenderekin urtean behin elkartzen naiz, eta hor izaten da.

Taloea jan gabe, gainera, oso herri-tar gutxi geratuko da.

Bai, bai. Arrakasta izaten dugu, dena agortzen da eta. Ekartzen den irin-zakukada bukatzen da beti. Izan ere, horrelako euskal jai batean, ia guztiok gura izaten dugu taloea jan eta sagardoa das-tatu.

Jan bai, baina erreleboa hartzeko prest izaten da jendea?

Bai; ni, adibidez, Karmeleren bitartez animatu naiz. Eta oso gustura. Sekulako giroa izaten dugu denon artean. Eta hor ari-tzen gara bata besteari talo-jotzen irakasten edo behar denean la-guntzen. Izan ere, festa giroan, dena jendearen bistan prestatzen dugu.

Eta talo bat jatekotan, zein da zure gustukoena?

Niretako, txistor-taloea. Hiru-giharra ere goxoa da, baina, niretako, onena txistor-taloea da. Horretaz gain, gaztarekin ere ikusi izan dut nik beste leku batzuetan, baina guk ez dugu gazta erabiltzen. Eta umeenda-ko txokolatzekoa ere egongo da, noski.



Loramendi elkartearen historia, dantzan jasota

Urteroko ohiturari jarraituz, Beinke-Loramendi dantza egingo dute bihar, zapatua, Herriko Plazan, 19:00etan; parte hartzaileen kopurua zehazteke dagoen arren, iaz baino lagun gehiago batuko direla dirudi, entseguetan ikusitakoaren arabera

A. Aranburuzabala ARETXABALETA
Loramendi euskara elkartearen sorrera irudikatzen du Beinke-Loramendi dantzak. Jose Ramon Vitoria arrasatearrak konposatutako doinuekin asmatu zuten, 1994an, Loramendi dantza taldeko bi kidek, eta bi elkartearen bateratzea du ardatz.

Askotariko herritarrak dantzan
Herritarrak dira protagonista. "Profil eta adin ezberdinetakoek hartzen dute bikoteka parte. Zerrenda horretan badaude urtero izaten direnak, baina aurten, bereziki, pozik gaude, aurpegi berri asko ikusiko ditugulako. Aurreko edizioekin alderatuz,

gazte asko hurbildu da entseguetara, eta, orain arte ez bezala, mutil asko horien artean. Ez dakigu zehazki aurten zenbat dantzari izango diren, baina iazko kopurua -70 lagun- gaindituko dugulakoan gaude", dioite Loramendi elkarteek.

Herriko plazan, bihar, 19:00etan
Mitarte kaleko Pagaldeixenean elkartuko dira, urtero moduan, dantzan egingo duten herritarrak, eta txistularien atzetik joango dira elkarrekin kalejiran Herriko Plazaraino. Han egingo dute, txistulariek lagunduta, 19:00etan, euskararen aldeko elkartearen omenez dantza.



iazko San Migel jaietan egin zuten emanaldia. MIRARI ALTUBE

Iristu, Loramendiko gazte taldearen tonbola

Iaz, Loramendi elkarteak gazte taldekoek euskararen aldeko tonbola jarri zuten, eta aurten ere, halaxe egingo dute. Bihar, zapatua, Pagaldaixeneko pareko espaloian izango da jokatzeko aukera, 11:30ean hasita.

Euro baten truke, dardo bat
Iaz bezala, sariak eskuratzeko dardoak bota beharko dira; euro baten truke dardo bat eta bost euro, berriz, lau eurotan. Nafarroako kontserbak eta beste hainbat opari daude jokoan.



iazko euskararen aldeko tonbolan gazte bat dardotan jokatzeko. AITOR AGIRIANO



Gemes
Irudi aholkulariak

MIKROPIGMENTAZIOA

LEHEN



ORAIN



**Metodo berria (ilez ile)
Bekainen konponketak eta begietako linea
Itxura alaiagoa**

*Ondo ibili
sanmigeletan!*

Ilargi plaza 2 • Tel.: 943 79 99 18 • ARETXABALETA



Aretxabaletako San Migel jaietako herri kirolen erakustaldian, iaz, aizkolariak lanean. GOIENA

Euskal Herriko Txapelketa nagusirako 'berotzen'

Urriaren 15ean Donostian jokatu duten hitzordu handirako sailkatuta dauden aizkolarietako bi, Atutxa eta Mugertza, izango dira domekan Aretxabaletako plazan; Irati Astondoa eta Alazne Etxaburua, berriz, aizkoran eta trontzan ibiliko dira

Xabier Urzelai ARETXABALETA

Domekan San Migel jaien barruan Aretxabaletako plazan egingo duten herri kirolen erakustaldiak saltsa polita izango du -13:00etan hasita-. Batetik, aizkoran zein baino zein gehiago izango diren Aitzol Atutxak eta Ugaitz Mugertzak finala dute jokoan hamabost egun barru. Eta bestetik, emakumezkoetan herri kirolean historia egin duten Irati Astondoa eta Alazne Etxaburua izango dira zein baino zein gehiago.

Txapelketa Nagusirako sailkatuta

Euskal Herriko Txapelketa Nagusia urriaren 15ean jokatu dute, Donostian, eta domekan gurean egongo diren aizkolariak dira finalerako sailkatuta dauden sei etako bi.

Duela hamabost egun jokatu zuten sailkatze jardunaldia, Abadiñoako frontoian; orduan, hamar aizkolari jardun zuten lehian, finalerako zeuden sei txarteletako bat lortzeko borrokan. Ugaitz Mugertza aizkolari mutrikua-rrarekin batera, Iker Vicente, Mikel Larrañaga, Iñaki Azurmendi, Aitzol Atutxa eta Joseba Otaegi aizkolariak sailkatu dira

Donostiako probarako; aurten ere hutsunerik handiena iaz Aretxabaletan programatuta egon zen Jose Mari Olasagasti igeldotarrarena izango da. Gipuzkoarrak bigarren urtez egin du huts, eta bigarren urtez jarraian parterik ez hartzeak bigarren mailara jaisteak ekarriko du.

Aizkolariak, Abadiñon, 54 ontzako, 60 ontzako eta 72 ontzako bina enbor moztu behar izan zituzten. Etzi, egunean bertan argituko dute Mugertzak eta Atutxak zer lan egin beharko duten. Hori horrela, bi aizkolariendako, erakustaldia baino gehiago, entrenamendu saioa izango da domekakoa.

Emakumezko erreferenteak

Herri kirolen erakustaldiak duen beste osagai bat Irati Astondoren eta Alazne Etxaburuaren arteko lehia da. Bi kirolari horiek

**MUGERTZA ETA
ATUTXA DONOSTIAKO
FINALERAKO
SAILKATUTA DAUDE
JADA**



Disfrutatu SANMIGELAK!

atx

aretxabaletako **ehbildu** komunitatea

erreferente dira, 2015eko ekai-nean emakumezkoen arteko lehenengo herri kirolen desafioan hartu zuten-eta esku. Orduan, aizkoran eta segan egin behar izan zuten, eta Etxaburuak segan trebezia galanta erakutsita lortu zuten lehenengoz txapela janztea. Aipatu bezala, saio historikoa izan zen, lehenengo aldia zelako emakumezko batek herri kirolen desafio batean txapela janzten zuena. Domekan protagonista berberak izango dira plazan, baina egin beharreko lanak bestelakoak izango dira, aizkoran egitearekin batera trontzan egingo dute eta.

Ondoren, Karmele Sarasolak egingo ditu harri-jasotzaile lanak eta ingude altxaketa ere egingo du. Eta, azkenik, Izeta II.ak erakustaldia egingo du 200, 250 eta 270 kiloko harriekin eta 111 kilo bolarekin.

ETXABURUAK ETA ASTONDOAK HISTORIA EGIN ZUTEN 2015EAN, EMAKUMEZKOEN LEHEN DESAFIOAN



Bolo-zalea, jaurtiketa egiteko unean. IMANOL SORIANO

Bolo txapelketa zapatu arratsaldean

Urteak dira San Migel jaien barruan bolo-zale talde batek bolo txapelketa antolatzen duela —giro oso polita egoten da, gainera—, eta bihar, zapatua, elkartasun bazkariaren ostean (18:00), urte osoan udal biltegian gordetzen dituzten boloei hautsa kendu ahal izango diete herritarrek.

Izen-ematea txapelketa hasi aurretik egingo dute (10 euro) eta antolatzaileek batzen duten dirua irabazleen artean banatuko dute. hau da, txapelketa irabazten duenak urdaiazpikoa eta batutako diruaren %40 eramango du. Bigarren sailkatzen denak urdaiazpiko-besoa eta batutako diruaren %25. Hirugarren sailkatuarendako urdaiazpikoa eta batutako diruaren %20 eta laugarren sailkatuarendako ere saria egongo da, urdaiazpikoa eta batutako diruaren %10.

Udala batuko da dokera aurten

Basotxo elkartearen eskutik, doke txapelketa egingo dute domekan, 11:00etan, Basotxo aurreko lorategian, eta domekakoa seigarren edizioa izango da: "Aurreko bost edizioetatik lau Aretxartekook irabazi ditugu, talde ona dugu eta", dio, barrez, domekara begira saltsa apur bat jartzen hasi den Idoia Elexpuruk. Izan ere, jai giroan egiten duten txapelketa da: "Oso giro ona egoten da txapelketan, ederto pasatzen dugu, eta ondoren, Basotxoko lagunek luntx ederra prestatzen digute".

Aurtengo nobedadeetako bat izango da Aretxabaletako Udaleko ordezkariak ere taldea osatuko dutela. Hala, Aretxartekin, Basotxorekin, UDArekin eta Loramendirekin batera, Udala bosgarren taldea izango da: "Ez dakit txapelketako kanporaketa fasea zelan antolatuko dugun, baina konponduko gara".



Basotxoko lorategian batuko dira dokean egiteko. GOIENA

Ondo pasa San Migelak!!








EGUZKIGRAF

inprimategia

zure
zerbitzura

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
 Araba ibilbidea
 20550 Aretxabaleta
 Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
 E-mail: info@eguzkigraf.com



Abesbatzako kideak kontzertua eskeintzen, iaz. IMANOL SORIANO

Boleroak entzungai abesbatzaren eskutik

Urtero moduan, Aretxabaletako Abesbatzaren kontzertua biltzen du San Migel jaietako egitarauak. Bada, jada prest dute erreperitorioa. Abesbatzako kideek azaldu dutenez, emanaldi "berezia" izango da domekakoa

Iker Oñate ARETXABALETA

Herriko abesbatzak kontzertua eskainiko du urriaren leian, domekan, Iturrigorri frontoian; 19:00etarako finkatu dute hitzordua. Bada, abesbatzako kideek prest dute erreperitorioa: boleroak abestuko dituzte. "Maitasunaren eta maitasunik ezaren bueltan dihardute genero horren parte diren abestiek", argitu du Angel Barandiaranek, Aretxabaletako Abesbatzako zuzendariak. Tartean, *Solamente una vez*, *Ángelitos negros* eta *El reloj* abestiak dituzte erreperitorioan.

Aipatu beharra dago musikariaren eta dantzariaren laguntza izango dutela abeslariak. "Boleroek erritmo karibetarra dute, nolabait. Beraz, abestiak entzuteaz gain, herriko dantzariaren dantzaldiak ikusteko aukera izango dute bertaratutakoek. Emanaldi berezia izango da", dio Barandiaranek. Nuria Fernandez de Arroyabek zuzenduko du dantza taldea.

Horiez gain, esan bezala, musikariak ere izango dira emanaldian; zehatz esanda, piano, perkusio eta akordeoi joleen laguntza izango dute abesbatza-

ko kideek. Jose Luis Franzesena, Unai Franzesena eta Araceli Telletxea musikariek izango dute horren ardura.

Bada, emanaldiko protagonistek jada prest dute domekakoa saioa; ordu eta laurden pasa iraungo du. Barandiaranek argitu duenez, tarte horretan, hainbat aldaketa egingo dituzte, "emanaldi dinamikoa" eskaini guran. "Askotariko formatuetan eskainiko ditugu abestiak. Batzuetan, solista bat izango da protagonista, eta, beste batzuetan, ez da halakorik izango, esaterako", azaldu du. Besteak beste, Mariatxen Urkia, Lurdes Urkia, Mari Carmen Etxandia eta Imanol Aizpurua izango dira solisten artean.

Bide horretan, abesbatzak bere xede nagusiari eutsiko dio domekakoa emanaldian: gaur-gaurkoz zuzenean nekez entzuten diren abestiak eskaintzea. "Lehen, arrakasta izaten zuten boleroak; beraz, emanaldi askotan entzun zitezkeen; gaur egun, dena den, bestelakoa da panorama. Jende nagusiak ezagun izango ditu erreperitorioko abestiak", azaldu du.



IOSU

harategia • taberna

Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08

Ondo pasau sanmigelak!

Kataluniari keinu

Tartean, Kataluniak egiteko asmoa duen herri galdeketari ere egingo diote keinu, emanaldia herri galdeketaren egun berean dela aprobetxatuz. "Urriaren leko galdeketari gure ekarpena egin gura diogu abesti bat eskainiz", dio. Gauzak horrela, *El Cant dels Ocells* abestia sartu dute erreperitorioan.

Urteroko kontzertua

Aretxabaletako Abesbatzaren saioa ez da berrikuntza San Migel jailetako egitarauan; beraz, emanaldiko protagonistek badute esperientzia. "Urteak dira San Migel jailetako kontzertuaren ardura hartu genuela. Ezin daiteke uka hitzordu garrantzitsua dela abesbatzaren egutegian; denbora luzez jardun behar izaten dugu kontzertuaren prestakuntzan murgildurik. Urte erdi daroagu domekako emanaldia prestatzen", aitortu du Barandiaranek.

Bestetik, emanaldian parte hartzen dutenen konpromisoa azpimarratu du zuzendariak. "Horrela errazagoa da halako zerbait antolatzea", azaldu du.

"Jarriak gara datorren urteko kontzertuari begira"

ANGEL BARANDIARAN ARETXABALETAKO ABESBATZAKO ZUZENDARIA

Ibilbide luzea du Aretxabaletako Abesbatzak. Besteak beste, herriko hainbat egitasmotan parte hartzen du urtean zehar, emanaldien bidez euren alea jarritz. Bada, horietan gehienetan egon da Angel Barandiaran abesbatzako zuzendaria.

Noiz jaio zen Aretxabaletako Abesbatza?

1980an sortu genuen abesbatza. Aurretik egona zen abesbatza talderik herrian, baina geldi zegoen kontua. Orduan, herriko parrokoa etorri zitzaigun, elizan abestuko zukeen korua sortzeko ideiarekin. Aurrera egitea erabaki genuen. Hasiera hartan, Juan Luis Izagirre zen zuzendaria eta gizonez osaturik zegoen abesbatza.

Askorako tartea uzten dute 37 urtek. Eboluziorik ere izango zenuten.

Hala da. Sortu eta urtebetera, emakume ahotsa igartzen

genuen faltan. Beraz, abesbatza misto bilakatzea erabaki genuen. Estatuko hainbat lehiaketatan parte hartzen hasi ginen orduan; Tolosan eta San Vicente de La Barqueran izan ginen, adibidez. 1982an, oster, Izagirre hil zen eta neu hasi nintzen zuzendari lanetan.

Gaur-gaurkoz, zer eskaintzen duzue emanaldietan?

Denetariko abestiak eskaintzen dizkiegu gure emanaldietara datozenei. Emanaldiak emanaldi, kontzertu bakoitzera egokitzen dugu erreperitorioa. Finean, jendeak zuzenean nekez entzun ditzakeen kantuak eskaintzea dugu helburu; filmetako abestiak, rantxerak eta aurreko mendeetako abestiak, adibidez.

San Migelekoa ez da urtean zehar eskaintzen duzuen kontzertu bakarra, ezta?

Hala da. Hainbat hitzordu izaten ditugu urtean zehar. Besteak



MIRARI ALTUBE

beste, Loiolako Santutegian eskainiko dugun emanaldi bat prestatzen dihardugu; hainbat konpositore jesuitaren omenezko kontzertua izango da Loiolakoa.

Lan asko egongo da horren atzean.

Noski. Bi entsegu-egun ditugu asteaz; ordu eta erdi inguruko saioak izaten dira. Horiez gain, beste entseguren bat ere sartzen

dugu tarteka. Gainera, beste taldeekin koordinatzea ezinbesteko dugu zenbait emanalditan.

Eta aurrera begira, zer?

San Migel jailetako kontzertuari dagokionez, jada jarriak gara datorren urteko kontzertuari begira. Bestetik, bestelako hitzorduak prestatzen jardungo dugu emanaldiaren ostean.

ARETXARGI

aretxargi@aretxargi.com

BELOORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

☎ 943 532 628 ☎ 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK

*Ondo ibili
sanmigeletan!*



Udaletxe zaharrean ere ez da festarik faltako

Urteroko moduan, Aretxabaletako Gazte Ekimenak bere egitaraua osatu du aurtengo San Migel jaietarako; gaur eta bihar musika izango da protagonista udaletxe zaharrean, eta antolatzaileek gerturatzeko dei egin nahi izan diete herritar guztiei

Eneko Azurmendi ARETXABALETA

Gaur hasiko dituzte San Migel jaiak Aretxabaletan, eta, urteroko ohiturari jarraituz, Aretxabaletako Gazte Ekimenak (AGE) bere egitaraua prestatu du jai hauek ospatzeko.

Hori dela eta, udaletxe zaharrean hainbat emanaldi egongo dira gaur –egubakoitza– eta bihar –zapatua–.

Bertso saio batekin emango diete hasiera jaiak, gaur, 19:30ean. Lekaixoka bertso-eskolako hiru bertsolari arituko dira nor baino nor gehiago: Martin Berrizbeitia aretxabaletarra, Xabi Igoa aramaioarra eta Haizea Arana eskoriatzarra.

Hori bukatu ondoren, kontzertu akustikoa egongo da, Idoia Asurmendi eta Leire Elejalde bikote aramaioarraren eskutik. 20:30ean izango da hori.

Bihar, berriz, oso bestelako musika egongo da entzungai udaletxe zaharrean. Izan ere, 20:00etan, Urretxu-Zumarraga gaztetxeko hainbat kidek osatzen duten Traka-traka Elektrotxarangaren emanaldia izango da.

Horren ostean, berriz, DJ Baltasarrek jarritako musikaz gozatzeko aukera izango dute gerturatzeko direnek, 23:00etan hasi eta ordu txikiak bitartean.

Aretxabaletako Gazte Ekimenak udaletxe zaharrera gertu-

ratzeko dei egin nahi izan die herritarrei: "Urtero moduan, taberna zabalik edukiko dugu asteburuan, eta herritar guztiei, ume, gazte zein helduei, dei egin nahi diegu hurbildu daitezen prestatu dugun egitarauaz gozatzera", azaldu du Andoni Lapuertak, AGEko kideak.

Gaineratu du eurak ere gogotsu daudela San Migel jaiak behar bezala ospatzeko. "Andra Mari jaiak oso gustura igaro genituen eta sanmigeletarako ere gogotsu gaude. Gure helburua beti izan da herritarren parte-hartzea bultzatzea eta oraingoan ere hala izango da. Beraz, disfrutatu dezagun".



Traka-Traka Elektrotxarangako kideak. FACEBOOK



Idoia Asurmendi eta Leire Elejalde aramaioarrak. I.A.



Ostiralero,
sagardotegiko menua

35€

Giro soinua trikitiarekin!

*Deitu eta
erreserbatu!*

Mendiola elizatea 5
Eskoriatza • 943 71 56 18



*Ondo pasau
sanmigelak!*

The background of the poster features several stylized vegetables, each filled with a different plaid pattern. These include a green bell pepper at the top left, an orange pumpkin at the top right, a purple eggplant on the right side, a green leafy vegetable at the bottom right, a yellow bell pepper at the bottom left, and a red tomato on the left side. The entire composition is set against a light blue and white plaid background.

San Miguel jaiak 2017

ARETXABALETA
IRAILAK 29/30
URRIAK 01



Aretxabaletako
Udala
KULTURA SAILA

Indarkeria identifikatzea eta erasoari aurre hartzea

Euskal Herriko Mundu Martxak hiritik kanpo egindako lehen bilera egin zuen zapatuan Bergarako gaztetxean, eta saio "jendetsua eta emankorra" izan zen; eraso matxistei aurre hartzeko eta erantzuteko protokoloa aztertzeko balio izan zuen, besteak beste

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergara izan da Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak aukeratu duen herria lehen aldiz hiri batetik kanpo deitutako bilera ireki bat egiteko. Irailaren 24an egin zuten jardunaldia eta Martxanterak taldeko Maite Aristegiren eta Ane Eginoren arabera, "jendetsua eta emankorra" izan zen. "Hogei bat lagun espero genituen, baina, 40tik gora elkartu ginenez, gaztetxeko areto baten egin beharrean patioan egin genuen. Hego Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorri zen jendea", azaldu du.

1995ean ekin zion Emakumeen Mundu Martxak ibilbideari eta ordutik hona bost urtean behin egiten da mundu osoan zehar; duela bi urte Bergaratik pasatu zen martxa. "Oso arrakastatsua izan zen, emakume eta eragile askok hartu zuten parte", dio Aristegik. Martxa egin bitartean beste ekimen batzuk antolatzen dira; 2018ko urrian Bilbon egingo den nazioarteko topaketa, adibidez. Aurreko topaketa Mozambiken egin zen eta hurrengo urtean Euskal Herrian egingo da. "90 herrialdeetako jendea etorriko da, feministen herria osatuko dugu. 2020ko martxa nola-koa izatea gura dugun marraztuko dugu".



40 lagundik gora elkartu ziren gaztetxean egin zuten batzarrean. MAITE TXINTXURRETA

"Inpotentzia sentitzen dugu"

Zapatuan gaztetxean elkartu zirenek eraso matxisten kontrako protokolo berritua aztertzen ere aritu ziren. "Erailketa matxista baten aurrean kalera nola irten koordinatzea izaten da Mundu Martxaren lanik agerikoena; prentsan agertu eta 24 ordura kalean agerraldiren bat egitea jasotzen du, esaterako. Hala ere, 2016ko azaroan 300 emakume elkartu zituen bilkura feminista baten protokolo horri hobekuntza batzuk planteatu ziren". Hortik, bi ondorio aipagarri ateratu zituz-

ten gaztetxean: "Batetik, eraso emanen denean salatzeaz harago joan behar gara, izan ere, badi-rudi ohitu egin garela elkarretaratzetara. Inpotentzia sentitzen dugu eta horri buelta eman diezaioketen ekintzak jasotzen dira protokolo berrituan. Argi dagoen beste gai bat da subjektuaren arabera indarkeria mota ezberdinak daudela: arrazakeria dela, pobrezia, neokolonialismoa...". Uste dute, besteak beste, Bergaran bertan baliabide gehiago jarriko beharko lirakeela eraso horiei aurre egiteko.



NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO

Emozioak

Gizakiok emozioak adierazteko dauzkagun oinarritzko lau alderdietako bat poza da. Poza, bizitzan zehar sentitu eta adierazten duguna, arrazoi ezberdinengatik izan daiteke: urrezko ezteien ospakizun bat, iloba baten jaiotza, Rezustaren ezkerkada itzel bat ikustea...

Duela gutxi nik emozio bat sentitu nuen Vatikanora joan ginenean. Bergarako Koru Parrokiala gonbidatu zutela-eta meza batean ohorezko tokian laguntzera. Vatikanon oraindik liturgia latinez da, eta horrelaxe kantatu genuen, latinez, euskarazko bi motete kenduta, horretarako baimena eskatuta aurrez.

Orduantxe sentitu nuen esandako emozioa, zirrara, marko dotore hartan, Erroma bisitatzen duten turistaren moduko publiko zabal haren aurrean.

Buruan daukat oraindik eztarrian egin zitzaigun korapiloa, moteteak bukatzeko eta aldi berean malkoren bati eusteko egin behar izan genuen ahalegina.

Nago emozio hori, poz hori, euskaraz, eta ez latinez edo gazteleraz, kantatzetik zetoirela.

Niretzat, esperientzia zoragarria eta zirraragarria izan zen.

Martxan da Kirol Argazkien Lehiaketa, urriaren 11ra arte

Udalak, Arizondo argazkizale elkartearen laguntzarekin, Argizaiola lehiaketarako baliagarria den Kirol Argazkien Lehiaketa antolatu du, beste urte batez. Aurtengoa 27. edizioa izango da eta lanak urriaren 11 baino lehen aurkeztu beharko dira. Zortzi sari banatuko dituzte, zuri-beltz eta kolore modalitateetan banatuta: lehenengo saria, 210 euro eta trofeoa; bigarren saria, 180 euro eta trofeoa; hirugarren saria, 150 euro eta trofeoa; herriko onenak, 120 euro eta trofeoa. Argazki onenekin erakusketa jarriko dute Aroztegin, urriaren 20tik 29ra; erabakia urriaren 14an hartuko dute.

Zetazeoak eta itsas hegaztiak ikusteko irteera antolatu dute

Laboratorium museoak zetazeoak eta itsas hegaztiak ikusteko irteera antolatu du azaroaren 4rako. 12 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta Santurtziko portutik irtenda Kantauri itsasoan zortzi bat orduko ibilbidea egingo dute, bi adituk lagunduta. Plaza mugatuak direnez, ize-na ahalik eta lasterren ematea komeni da, 943 76 90 03 telefono zenbakian. Prezioa 70 euro da; barruan sartzen dira Bergaratik Santurtzira joan-etorria egiteko autobusa eta zortzi orduko itsasontzi ibilaldia. Jana eta edana norberak eramane beharko du. Aldez aurretik azalpenak emateko hitzaldia egingo dute azaroaren 3an, Laboratoriumean.

IZEDER
Arte Dekoratifoa

- Haur eta helduentzako eskulan ikastaroak eta tailerrak
- Enkarguak

Matrikulazio epea zabalik! Informa zaitez!

Bidekurutzeta 24 - BERGARA • Tel.: 651 70 76 20 - 620 98 49 21

Udalbatzak, "zilegitasun osoa" erreferendumari

Etzi Katalunian egitekoa den erreferendumaren alde agertu dira EAJ, EH Bildu eta Irabazi, eta kontra PSE-EE; bestalde, Bergaran martxan diren bi etxe kaleratzeren gaineko gobernuaren eta oposizioaren arteko informazio trukaketak eztabaida piztu zuen bilkuran

Jokin Bereziartua BERGARA

Domekan Katalunian egitekoa den erreferenduma presente izan zen asteleheneko osoko bilkuran, batetik Gure Esku Dagok eta bestetik EH Bilduk EAJrekin adostutako mozio baten bidez; PSE-EEK aurka bozkatu zuen, erreferenduma alde bakarrekoa eta legez kanpokoa dela iritzita. Gainerako taldeek erreferenduma babestu zuten; hartutako konpromisoen artean dago, besteak beste, domekara bitartean estelada bat jartzea plazako ikurrina handiarekin batera.

Bestalde, Bergaran martxan diren bi etxe kaleratzeren inguruan Irabazik gobernuari infor-

mazioa eskatu baina jaso ez izanak eztabaida eragin zuen. EH Bilduk ere irmoki salatu zuen gobernuak informazioa "berandu eta era mugatuan" eman izana, eta gaineratu zuen bi kasu horiei Udal moduan nola erantzun jakiteko eskatu zutela eurek ere informazio hori. Gobernuak, gaia osoko bilkuran atera izana salatzeaz gain, martitzenean egindako batzordean eman zituen argibideak. Datuok alde zuretik ez ematearen arrazoi nagusia izan da, gobernuak dioenez, "kontu handiz" gorde beharrekoak direla, gaiaren sentiberatasuna dela eta. Oposizioak ez zuen arrazoi hori ontzat hartu.

Boluko frontoia estali egingo da Irailaren 23ko kontsultan parte hartzera deituta zeuden auzotarrak erabaki zuten frontoia estaltzea; %34,23koa izan zen parte hartzea, eta estalkia jartzearen aldeko botoak -245 boto, %56,9- gehiago izan ziren aurkakoak baino -184 boto, %42,8-. Osoko bilkuran agerian geratu zen beste behin gobernuak eta oposizioak ikuspuntu ezberdinak dituztela kontsultara heldu aurreko prozesuaren inguruan.

Amaitzeko, Goiazorako bide publikoa hobetzeko Santa Marina parrokiarekin doako eskualdaketa gauzatu izana "lorpena" da, gobernuaren ustez.

Hilzorikoa, otsailerako

Sevillako Ondare Historikoaren Kontsebaziorako Andaluziako Institutuan ari dira zaharberritzen San Pedro elizako Hilzoriko Kristoa, martxa onean. Jon Molinaren arabera, 2018ko garizuman itzuliko da, otsail erdialdean: "Sevillatik Donostiako Artzain Onaren elizara emango dute, bertan erakusgai egon dadin. Ondoren, Bergara ekarriko dute, dagokion betiko lekura".



J.M.

Erreka garbiketan izena emateko azken eguna, urriaren 2a

Urriaren 7an egingo da erreka garbitzeko auzolana eta partaideak seminarioko patioan, Labegarietan edo Osintxun elkartuko dira (08:30). Aseguru kontuak direla-eta ezinbestekoa da aurretik izena ematea, urriaren 2a baino lehen: Udaltzaingoa, Agorrosingo harreraren, Udalaren webgunean edo errekagarbitzeko@gmail.com-era mezua idatzita.

Karlos Galarragak irabazi du udako postal lehiaketa

Goiena komunitatea
Jardun elkarte / BERGARA

Japoniatik bidalitako eta berak marraztutako postal batekin eraman du saria. Bidaiatzen duen bakoitzean koadernotxo batekin joaten da eta tartetxo bat duenean marrazteko ohitura du. Benetan polita eta originala! Zorionak eta gozatu irabazitako tabletarekin!



BISITA EZAZU ETXE PILOTUA

Ate irekien egunak:

/ Irailak 29, ostirala / Irailak 30, larunbata
15:00 - 19:00 10:00 - 14:00

Komenio kalea 1, Bergara

- Kanpotik, eraikin dotorea eta, barrutik, modernoa.
- Bergarako erdigunean.

Bisita ezazu gure webgunea
www.komenioetxea.com


Ordutegi jarraia:
Astelehenetik ostiralera:
08:00etatik 20:00etara

Larunbatetan:
10:00etatik 14:00etara

Askatasunaren etorbidea 3
Donostia
T. 943 543 543
info@komenioetxea.com



Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka kalea 11, behe
943 76 33 99 / 646 43 34 58

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

IGONE MORRAS

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18, solairuarte esk.
685701796

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

SADHANA YOGA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55



Domekan herriko hainbat taldek tailerrak emango dituzte San Martin plazan. ARGAKIJABEAXXX

Bergaran sortzen den kultura erakustera

'Kultura kalera' egitarauaren baitan, asteburu honetan herriko elkarteek eta taldeek pisu berezia izango dute. Hala, zapatuan herriko hainbat musika taldek eta abesbatzak kontzertua emango dute elkarrekin eta domekan tailerrak izango dira

Maite Txintxurreta BERGARA

Kultura kalera egitarauaren baitan, Bergarako taldeak izango dira protagonista asteburu honetan. Izan ere, bihar, zapatua, herriko taldeen kontzertu erraldoia izango da eta domekan, berriz, Bergarako hainbat taldek tailerrak eskainiko dituzte kalean.

Lehenago, baina, gaur, egubakoitza, Duphonik bikotearen piano eta bonbardino kontzertua izango da Arrizuriaga parkean, 19:00etan hasita.

Zapatuan, goizean, Bergarako lorategi historikoen bisita gidatua izango da, Europako ondareari buruzko jardunaldien baitan (euskaraz). Hurrengo egunean, domeka, herriko bisita gidatua ere izango da (11:00).

Bihar arratsaldean, 18:00etatik aurrera, Ehunzango batukadak animatuko ditu kaleak.

Hainbat talde batuta

Era berean, 19:00etan San Martin plazan kontzertu berezia izango da. Aritzeta abesbatza, Bergarako

Asteburuko egitaraua

Irailak 29, egubakoitza

- **19:00** Duphonik Arrizuriaga parkean.

Irailak 30, zapatua

- **11:30** Lorategien bisita.
- **18:00** Batukada kalejira.
- **19:00** Herriko taldeen kontzertua.
- **21:00** Kopla Barik, Simon Arrietan.

Urriak 1, domeka

- **11:00** Bisita gidatua.
- **11:30** Txistulari kalejira.
- **12:00** Alai taldea.
- **12:00 -13:30** Tailerrak San Martin plazan.
- **13:30** Txistulariak plazan.

Musika Eskolako abesbatza, Bergarako Orfeoia, Gabero Orfeoi Gaztea, Sutargi eta San Josepe taldeak elkartuta eskainiko duten kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.

Kontzertuaren ostean, bertsoen tarte izango da. Hala, 21:00etan Kopla Barik eskolakoek emanaldia eskainiko dute Simon Arrieta plazan.

Tailerrak kalean

Urriaren 1ean, berriz, 11:30ean txistularien kalejira izango da, eta ondoren Alai taldearen ahots emanaldia.

Eguerditik aurrera, berriz, San Martin plazan Bergarako hainbat talde eta elkarteek tailerrak emango dituzte, doan, bertaratzen diren herritarrendako. Taila elkarte, Zeramika elkarte, Bolillos taldea, BET erraldoi konpartsa, Arizondo Argazki elkarte, Jardun Euskara elkarte, BEART, Musika Eskola eta Ehungintza tailerra izango dira kalera eurek egiten dutena erakustera aterako direnak.

Egitarau oparoa gertatu dute Angiozarko San Migel jaietarako

Besteak beste, meza, tortilla lehiaketa eta Low Cost De Luxeren eta Kobrazuloren kontzertuak izango dira gaur

M.T. BERGARA


Atzo hasi zituzten sanmigelak Angiozarren, eta asteburuan hainbat hitzordu izango dira.

Gaur meza (11:00) izango da, erretiratuen abesbatzaren emanaldiarekin. Bukatzean, luntxa egingo dute Pagomendin.

Arratsaldean, umeendako puzgarriak, briska txapelketa (17:00), batukada (19:30) eta patata-tortilla lehiaketa (20:00), azken hori jateko eta sagardoz girotuta. Gauean, berriz, 23:30ean hasita, musika izango da Low Cost De Luxe eta Kobrazulo taldeekin.

Bihar, eguerdian, umeen jolasak izango dira, eta triki-txikiteoa buruhandiekin. Gero, herri bazkaria. 18:00etan mus txapelketa, eta afaltzeko ogitartekoak elkarrean; gauean, DJak eta argi festa.

Bukatzeo, domekan, azken urtean jaiotakoei ondoetorria (12:00), trikiti eskolako kalejira eta pilota partiduak (12:30) izango dira eguerdi partean. Arratsaldean, Latirili taldearen *Sim&Sam* polizia abentura kale antzerkia (18:00), txokolate-jana (19:00) eta San Migelen zerurtzea eta agurra (20:00).



IMANOL SORIANO

Hamabost futbol talde ditu BKEk

Bergara Kirol Elkarteko futbol sailak harrobiko taldeak aurkeztu zituen zapatuan, Ohorezko Erregionaleko partiduaren ostean (BKE 2-0 Zarautz). 2017-2018 denboraldian hamabost talde izango dituzte, iaz bezala; hamar gizonezkoenak eta bost emakumezkoenak. Futbola herrian indartsu dagoela eta "oso pozik" daudela adierazi du losu Elorza presidentek.

Txirrindularitzan aritu nahi duten gazteei deialdia

Lokatza Ziklismo Eskolak 2018an errepideko txirrindularitzan lehiatu nahi duten neska-mutil gazteendako batzarra deitu du datorren asterako. Kadetei eta gazte mailakoei zuzenduta dago deialdia, eta urriaren 4an, eguaztena, 19:00etan izango da bilera, Agorrosin kirolguneko batzar gelan.

Lokatza Ziklismo Eskolak denboraldi-aurrean izango duen *planing*-a azalduko dute elkarreko arduradunek, eta, horrez gain, urtean zehar taldeak izango duen funtzionamenduaz ari-tuko dira. Bestalde, txirrindulariek eta gurasoek izan ditzaketen zalantzak argitzeko, galderetarako tarte izango da.

Antzuolan, Bergaran, Elgetan edo Soraluzen 2000tik 2003ra bitartean -biak barne- jaiotakoak daude deituta.

Espaloia esleitzeko prozedura berriz zabalik

Interesatuak 30 eguneko epea dute ustiaketa proposamenak udaletxean aurkezteko. Udalbatzak, bestalde, bi mozio onartu ditu domekan Katalunian egitekoa den erreferendumari babesa adierazteko

Larraitx Zeberio ELGETA

Elgetako udalbatzak martitzenean egindako osoko bilkuran onartu zituen, aho batez, antzokiaren kudeaketarako baldintza orokorrak. "Bere garaian lan-keta sakona eskatu zuten eta aurreko baldintza berak mantentzen dira, aldaketa txiki batekin", azaldu zuen Kultura zinegotzi Janire Lazkanok. "Hileroko kanona 200 euro da, baina, kopuru horretaz gain, 25 euroko gehikuntza bat ezartzen dugu. Hori da matxura txiki bat egon zenean konturatu ginelako ur hornidurak bazituela akats batzuk, eta, estimazio bat eginda, ikusten dugu 25 euroekin betekote litzatekeela Udalak daukan zatia". Oposizioak galdetu zuen inork interesik agertu ote duen antzokiaren ustiaketarako, eta Udal Gobernuak ordezkariek erantzun zuten gerturatu dela jendea galdezka.

Bestalde, Espaloia kafe antzokian izango dute jarraipena Herrixa Dantzan ekimeneko saioek urritik aurrera. Ekintza hori babesteko, Patxi Monterorekin duen lankidetzaren hitzarmena berrituko du Udalak. Hitzarmena irailetik ekainera bitartekoa izango da eta 3.000 eurokoa izatetik 1.500 eurokoa izatera pasako da. "Udalak aurrerantzean zuzeneko musika saioak ordainduko ditu. Urtean hiru izango dira, eta, gehienez, 500 euro saioko", azaldu zuen Lazkanok.

Kataluniarekin lotuta, bi mozio

Domekako erreferenduma dela eta mozio bana aurkeztu zuten EH Bilduk eta Gu Geu Elgetak. EH Bilduko ordezkarien aldeko botoekin egin zuen aurrera lehenengoak eta oposizioa abstenitu egin zen. Gu Geu Elgeta taldeak aurkeztutakoak udal ordezkariek guztien aldeko botoak jaso zituen. Iraitx Lazkanok alkateak, hori bai, zehaztu zuen EH Bilduren iritziz motz gelditzen zela.



Elgetako udalbatza, martitzenean. L.Z.

HERRIXA DANTZAN SAIOEK URRITIK AURRERA IZANGO DUTE JARRAIPENA UDALAK BABESTUTA

Bolatoki taberna

Jose Monterrosoren heriotzaren ostean, familiak erabaki du Bolatoki tabernaren ustiaketarekin jarraitzea, eta 2018ko maiatzaren 31ra arte indarrean dagoen kontratua haren emaztearen izenean jartzeko erabakia onartu du udalbatzak. Aurreko kontratuaren baldintza berak mantentzen dira. "Proposamena da esleipenak jarraitzen duen bitartean kontratua aldatzea oinordeko horien mesedetan", esan zuen Iraitx Lazkanok alkateak. Aho batez hartu zuen erabakia udalbatzak.

Hileta zibilak San Roke ermitan

Aurrerantzean, hileta zibilak egiteko aukera izango da San Roke ermitan. Aurretik, beste sei espazio zeuden finkatuta: Udal Pilotalekua, Mendizaleen plaza, Domingo Iturbe plaza,

frontoi zaharra, San Roke osteko plaza eta udaletxeko areto nagusia. Proposamenak oposizioaren oniritzia izan zuen, baina galdetu zuten ea ez ote den neurri kontraesankorra. Alkateak erantzun zien eraikin hori udaletxearena dela. Barruan dauden kristau sinboloekin zer gerta daitekeen galdetuta Lazkanok esan zuen bateren batek horrela eskatzen badu kendu egin beharko direla. "Erabilera erabat erlijiosotik aparte uste dugu beste edozeinek daukala eskubidea han hileta katoliko bat egin daitekeen moduan beste modu bateko agur bat egiteko".

Sendagilearen etxebizitza

Medikuak erabilitako etxebizitzarekin lotutako kontratua urte amaieraraino luzatzea erabaki zuen martitzenean udalbatzak. Lanpostuarekin batera jaso zuen 34 urtez herriko sendagile izandakoak Udalaren jabetzakoa den etxebizitza erabiltzeko aukera. Kontratua amaituta hustu egin behar du. Udalbatzak onartu du epe hori 2017ko abenduaren 31ra luzatzea, "etxea hustu eta behar den baldintzetan uzteko" denbora izan dezan.



LUIS MARI ARANTZETA

Erretiratuak Artziniegan

Goiena komunitatea / Xalbadorpe erretiratuaren elkarte / ELGETA

Elgetarrek museo etnografikoa eta 500 urteko arte ospetsua ikusi zituzten aurreko eguaztenean egindako irteeran. Amurrio eta Urduña ere bisitatu zituzten. Astelehenerako, berriz, nagusien eskubideak aldarrikatzeko elkarretaratzea deitu dute. 19:00etan izango da, Mendizaleen plazan.

125. urteurrena ospatu nahi dute Elcoro enpresan

1892an zabaldu zituen ateak Elcoro enpresak, Eibarren lehenengo eta Elgetan 1910. urtetik aurrera. Fernando Rodriguez de la Iglesiak zuzentzen du lan-tegia, eta, 2008an hasitako krisi ekonomikoa oso gogorra izan dela onartuta ere, baikor agertzen da. "Hemen jarraitzen dugu, eta, 2007ko zenbakietan ez bagaude ere, egoerari buelta ema-

ten hasiak garela esango nuke", adierazi du. Hori dela eta, enpresaren 125. urteurrena ospatzeko ekitaldiak antolatu ditu urriaren 7rako. Eguerdian plaka baten inaugurazioa eta bedeinkazio ekitaldia egingo dituzte Pagatzako plantan eta horrekin batera suziriak botako dituzte, "espíritu gaiztoak" uxatzeko. Gero, bazkaria egingo dute. Elgetako plantak 95 langile zituen 2007an eta 63 bat ditu egun. Langileek ere egoera gogorra bizi izan dute urteotan.

Gazteleku zerbitzuan bihar emango diote hasiera ikasturteari

10 eta 14 urte bitarteko gazteen-dako gunea da, eta, aurreko ikasturtean moduan, zapatueta eta domeketan emango du zerbitzua, 16:00etatik 20:00etara. Nerea Villak gidatuko ditu ekintzak aurtien ere, eta zerbitzuak bihar, zapatua, zabalduko ditu ateak, 16:00etan. Izen-ematea zabalik da udaletxean, eta hilean behin ate irekiak egingo dituzte, nahi duenak zerbitzua eza-gutzeko. Iaz hainbat tailer, hitzaldi eta irteera egin zituzten. Ikasturte honetan ere bide beretik jarraituko dute. Ordaintzeko hainbat formula daude: astebururako bonuak 10 eurotan, 25 euroko hileko kuota edo 120 euroko ikasturte osoko kuota.

OHARRAK

Ipuinak liburutegian

Eneko Haritzaren eskutik saioa gaur, 18:00etan.

Azken barikua

Gaur, 20:00etan, presoen aldeko elkarretaratzea plazan.

Irteera Kantsatzeko

Domekan familiendako irteera Aitzulora eta Orkatzategira. Irteera 09:00etan plazatik.

Memoria tailerrak

Memoria lantzeko tailerrak urriaren 18tik otsailaren 3ra izango dira. Izen-ematea zabalik da udaletxean.

Memoria jardunaldiak

Hurrengo astean, Elgetan. Argibideak 3. orrian.

Urtarrilerako zabalik gura du gimnasioa Udalak

Beste deialdi bat egingo du Antzuolako Udalak Eguzki auzoko gimnasioa kudeatzeko enpresa bat kontratatatzeko; deialdi horretan, baina, baldintza malguagoak jarri dituzte, herritarrak erakartzeko eta erabiltzaile kopurua handitzeko asmoz

A.T / M.A ANTZUOLA

Hutsik dago Antzuolako Udal Gimnasioa, itxita jarraitzen duelako, oraingoan. Orain arte Eguzki gimnasioaren kudeaketa eraman duen enpresaren kontratua uztailan bukatu zen. Udalak deialdia egin zuen uztailan, ondorengo urteetan gimnasioa eramateko, baina ez zen inor aurkeztu. Orain, beste deialdi bat egingo dute, Udalak ahalik eta lasterren zabaldu nahi dituelako berriro herriko gimnasioaren ateak.

Antzuolako Udal Gimnasioa kudeatzen zuen aurreko enpresari uztailan bukatzen zitzaion kontratua amaitu aurretik, Udalak lehiaketa deitu zuen ondorengo urteetan gimnasioa eramateko. Zerbitzua hobetu nahi zuten, lehiaketako baldintza-pleguan hainbat aldaketa egin zituzten.

Horien artean, kontratua eramango zuen enpresarentzat diru gehiago jartzea erabaki zuten: bikoitza -9.000 eurotik 18.000ra igo zuten aurrekontua-; baina ordutegi zabalagoa, larunbatetan irekitzea eta ikastaro-mota dibertsifikatzea ere eskatu zuen Udalak. Helburu nagusia zen erabiltzaileei, herritarrei, aukera gehiago ematea. Lehiaketa irekira, baina, ez zen inor aurkeztu.

Hortaz, herritarrek itxaron egin beharko dute ikasturte berriko Udal Gimnasioko jarduerekin hasteko. Beñardo Kortabarria alkatearen nahia da urtarrilerako gimnasioko ateak zabalik izatea herritarrendako. "Buelta bat eman diegu baldintza-pleguei eta malgutu egin ditugu, pixka bat. Adibidez, zapatuetan zabalik egotea eskatzen jarraitzen dugu, baina, zubia den kasuan, itxita egotea ere aukera izango da kudeatuko duen enpresarendako. Lizitazioaren epea urte gehiagora luzatu dugu -lehen, bi urtekoa



Beñardo Kortabarria alkatea Eguzki gimnasioan. AMAIA TXINTXURRETA

BALDINTZEN PLEGUA MALGUTU EGIN DU UDALAK ETA BESTE DEIALDI PUBLIKO BAT KALERATUKO DU

zen-. Uste dugu hona datorrenak inbertsioak egiteko marjina handiago izango duela modu horretan. Eta jende gehiago ere animatuko dela gimnasioko jardueretan parte hartzera uste dugu", dio alkateak.

Erabiltzaileak penatuta

Kalean, herritarren artean eta, batez ere, erabiltzaile direnen artean sumatu dute galera hori.

Mari Karmen Larrañaga herritarrek gaineratu du sasoian egoteko gimnasia edo pilatesa egiteko aukerarik izan ezean, erretiratuak Olaranen goizetan eskaintzen diren luzaketak egitera ere animatu direla: "Hipopresiboak eta luzaketak egiten ditugu eta igarri dugu orain jende gehiago etorri dela saioetara. Hala ere, ekintza horrek ez du gimnasioa ordezkatzen".



PILAR ETXANIZ
ANTZUOLA

"Asko sumatu dut gimnasioaren falta. Pilates egitera joaten nintzen eta gustura nenbilen; pena da".



MARI KARMEN LARRAÑAGA
ANTZUOLA

"Herriarendako ez da batere ona; antzuolarrendako Udal Gimnasioa martxan jartzea behar bat da".

Nagusien eskubideak aldarrikatuko dituzte gaur

Urriaren 1ean, domeka, ospatuko da 'Nagusien Eguna'; gaurko, egubakoitza, elkarretaratzea deitu dute (19:00)

Maidar Arregi ANTZUOLA

Landatxope erretiratu elkarteak elkarretaratzea antolatu du gaurko 19:00etatik 19:15era, plazan. "Herritar guztiei zabaltzen diegu deia. Izan ere, pertsona nagusien eskubideak etengabe ari dira urratzen, gehienon bizi-baldintzak gero eta kaxkarragoak dira, pentsioen kaxa hustear dago, bertako dirua Estatuko Gobernuak bere interes politikorako erabili duelako. Kasu askotan, familien sostengu bakarra gara: bai krisi garai honetan laguntza ekonomikoa ematen diegulako, baita umeen

zaintza bermatzen dugulako ere. Gure aktibitate honek, gainera, gobernuen politiken ondorio kaltegarriak arintzen ditu. Pentsio askoren kopuruak ez dira nahikoak bizitza duina bermatzeko. Uste dugu ez dela bidezkoa gure bizitza osoan gizartearen ongizateari egin diogun ekarpenaren ondoren tratatu hau jasatea. Gizarteko sektore batzuen egoera ere larria dela badakigu: gazteen etorkizun iluna, emakumeek sufritzen duten diskriminazioa... Denok batera egin behar diogu aurre egoera honi", azaldu dute.



IMANOL SORIANO

Bigarren derbia jokatu dute

Domekan 16:30ean Ipintzan jokatu du denboraldiko bigarren derbia Antzuolak, Bergararen aurka. Bi taldeak hiru punturekin daude sailkapenean, partidu bana irabazita. Aloñaren aurka jokatu dute derbian 1-5 galdu zuen Antzuolak. Bazekiten partidu gogorra izango zela; izan ere, lider dagoen Aloña taldea da igoera postuetako faboritua.

Arrolak irteera antolatu du Oñatiko parajeetan barrena

Urriaren 8rako, domeka, antolatu du Arrola Mendi taldeak irteera Oñatiko parajeetan barrena. Arrikrutzen, Orkatzategin eta Araotz auzoan barrena ibiliko dira mendizale antzuolarrak. Izena emateko aukera urriaren 3an Olango lokalean egongo da -19:00-20:00-. Urriaren 8ko irteera 08:30ean Olaran etxetik izango da.

Adimen emozionala lantzeko saioak eskainiko dituzte

Familia hezkuntza emozionala lantzeko, emozioak identifikatzen ikasteko, izendatzeko, erregulatze edo maneiatzen jakiteko ikastaroa egingo dute urrian Olaran etxean. Izena emateko epea gaur, irailak 29, bukatzen da. Udaletxean, Gizarte Zerbitzuetan edo gizarte@antzuola.com helbidean eman dezakete izena interesa duten herritarrek.



Ken Zazpi taldea, musika emanaldia eskaintzen. KEN ZAZPI

Musika eskaintza zabala San Migel jaietarako

Musikarik ez da faltako San Migel jaietan; era guztietako emanaldiak biltzen ditu egitarauak. Azken urteetan moduan, hiru gune nagusi egongo dira: herriko plaza, Atzeko kalea eta txosnagunea. Emakumeen presentzia indartu egin da horietan

Iker Oñate OÑATI

Musika emanaldiz beterik dago San Migel jaietako egitaraua; askotariko estiloak topatu ahal izango dira egunotan herriko kaleetan. "Gustu eta adin ezberdineko jendearentzako egitaraua eraikitzea izan dugu helburu nagusi", azaldu du Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak. Besteak beste, Ken Zazpi, Iseo & Dodosound eta London Orkestrak jardungo dute agertoki gainean.

San Migel eguneko kontzertua

Azken hiru urteetan, San Migel egunean –irailak 29– sona handiko taldeak ekartzeko apustua rekin dihardu Udalak. "San Migel egunak ez zuen gura beste indarrik. Hori irauli nahirik, egun horretan inbertsio handiagoa egitea erabaki genuen. Orain artean, arrakasta izan du saiakerak", dio Zubiak.

Bide horretan, Ken Zazpi musika taldeak jardungo du plaza-ko agertokian; 23:00etan hasiko da kontzertua. "Abesti ezagunak dituzte eta ikuskizun polita es-

kaintzen dute, gainera", dio Zubiak. Argitu duenez, adin ezberdineko jendeari dago zuzenduta. Talde bizkaitarrak pop-rocka lantzen du, euskaraz.

Emakumeen presentzia indartzuz

Aurten, arreta berezia jarri dute agertokietan emakumeen presentzia indartzeko jardunari. Gauzak horrela, besteak beste, Iseo & Dodosound taldea azpimarratu du Zubiak: "Taldea ezaguna da. Mundu mailako birak egiten ditu". Reggae dub estiloaren bueltan dabil bikote nafarra. Bada, Atzeko kaleko agertokian jardungo dute gaur, San Migel eguna, arratsaldeko zazpi eta erdietan.

Bestetik, The Ladies: Rock & Roll-aren Jaia taldearen ema-

TARTEAN, KEN ZAZPI, ISEO & DODOSOUND ETA LONDON ORKESTRA IKUSTEKO AUKERA IZANGO DA

naldia izango da Errosaixo Egunean –urriaren 1ean–, 19:00etan hasita. Zehatz esanda, 50eko eta 60ko hamarkadetakoa giroa berreskuratu du aipatutako tributuak –kantuak zein estetika, esaterako–. "Ez da erraza izan emakumeen tributu bat aurkitzea", aitortu du Zubiak.

Txosnaguneko eskaintza

Bestetik, era askotako musika taldeak izango dira txosnaguneko agertokian. Herri Egunean –bihar–, esaterako, Autobus Magikoa, Los Zopilotes Txirriaus eta Sua entzuteko aukera izango dute bertaratutakoek. 22:00etan hasiko da.

Bestetik, aurten, berrikuntza dakar txosnetako egitarauak: gaur ez da Karrikaldirik egongo. Horren ordez, Eskean Kristo, Bitz eta Humus musika taldeek jardungo dute, 22:00etan hasita. Aipatu beharrekoa da Bitz musika talde oñatiarrak orain dela gutxi berrekin diela emanaldiei, denbora batez gel-dirik egon ostean.



NIRE USTEZ

XABIER IGARTUA

Auzolanetik, estatugintza

Kilometroak jaia "egun biribila, bikaina" izan dela azpimarratu dute antolatzaileek. Zenbait ezinezko herritar boluntario kopurua, Oñatira etorritako milaka partaidek egun borobila izan zezaten lanean. Laguntzen ibilitako gehien-gehienak ikastolen mugimenduak bere baitan dituen baloreak babesten: euskara, euskal kultura, Euskal Herria oinarri duen hezkuntza proiektua...

Auzolan hitza aipatu izan da. Bakoitzaren gaitasun mugatuak elkartuta gauza apartak egiteko gai garela ikusi dugu igandean. Berdin astebete lehenagoko mendi martxan, Hatortxurock jaialdian edo 2016an Debagoienean Euskal Estatu Independente bateko herritarrak izan nahi genuen galdeketa egin zenean.

"Nahi duzu Katalunia estatu independente izatea errepublika gisa?" galdera erantzungo dute urriaren 1ean. Oztupoak ugari; Kataluniako auzolan erraldoia gainditzeko beste ez, baina. Estatugintza. Kilometroak festan ikusi dugunez gurean oraindik ere bada indarra. Albotik Kataluniara eserita begira jarraitu behar al dugu?



ALOÑAKO IGOERA

Euskal Kopa konbinatua

Aloña Mendik bigarren postua erdietsi du Euskal Kopa konbinatuan; domekan izan zuten azken lasterketa puntuagarria, Beriainen (Nafarroa). Guztira, hiru izan dira Euskal Kopa konbinatuko proba puntuagarriak: Beriainekoaz gain, Aloñako Igoera eta Euskal Herria Mendi Erronka. Tartean, banakako hainbat sari ere eskuratu dituzte oñatiarrek.

Martitzen eguerdian zabalduko dituzte igerilekuak

Urteroko garbiketa eta desinfekzio lanak egiteko itxi dituzte igerilekuak. Datorren martitzenean, urriaren 3an zabalduko dituzte, 14:00etan. Igerilekuak ez ezik, Zubiko kiroldegiko gainerako kirol instalazioak ere ordu horretan zabalduko dituzte. Igeriketa ikastaroak eta ur ekintzak, bestalde, urriaren 6an hasiko dira.

Partidua lekuz aldatu du Aloña Mendi saskibaloit taldeak

Herriko jaiak direla eta, Aloña Mendi saskibaloit taldeak lekuz aldatu behar izan du asteburuko partidua. Hain zuzen, Azpeitian jokatuko dute. Bihar dute norgehiagoka, 16:15ean, Errotandi Okindegia ISB taldearen aurka. Ligako bigarren partidua izango da biharkoa; 77-54 galdu zuten aurreko asteburuan, Zast Zarautzen kontra.

Erresistentzia probara, "buruarekin lehiatzera"

AUTOMOBILISMOA Xabier Fernandez 'Purito'-k Espainiako Erresistentzia Proban hartuko du esku urriaren 14ko eta 15eko asteburuan. Bi lasterketa egingo dituzte, eta ordubeteko proban aurreko postuetan egoteko lehian egon gura du

Xabier Urzelai ARRASATE

"Aitortu behar dut niri esprinteko lasterketak gustatzen zaizkidala, horiek motibatzen naut gehien, baina Espainiako Erresistentzia proban lehiatzea erronka da niretako, azkar baino gehiago, buruarekin gidatu behar delako, eta kalkulagailuarekin eskuan", dio Xabier Fernandez *Purito*-k –lasterketarako 15 egun geratzen dira–.

Arrasatekoarendako benetako erronka irteera puntuan egon ahal izatea da, eta autoa puntuan izatea ez da merkea. Bost lasterketak osatzen dute CER –Campeonato de España de Resistencia–, eta bi aste barru Nafarroako zirkuituan egingo dutena egutegiko azkena izango da, aurrekoak Jaraman (Madrid), Montmelon (Bartzelona), Ricardo Tormon (Valentzia) eta Motorlanden (Aragoi) egin eta gero: "Ilusio handiarekin goaz; izan ere, autoak urte osoan ez dit batere arazorik eman eta nik uste dut zapatuko lasterketan, ordubetekoan, zorte apur batekin aurrealdekoen borrokan ibil gaitezkeela. Ikusteko dagoena da domekako lasterketara, bi ordukora, bai ni eta bai autoa zelan iristen garen".

Erregularitasunean dago gakoa

Zapatuko lasterketara begira aurrean ibiltzeko ezinbestean egin behar da sailkapen txanda ona: "Hor bai, hor derrigor estutu behar da autoa; behin lasterketa hasita, erritmo azkarra hartzea komeni da, baina hori baino gehiago, erregularra izatea itzuli guztietan, denbora antzerakoak egitea. Gasolinaren kontsumoa asko zaindu beharko dugu; izan ere, depositu bakkarekin egin gura dut lasterketa. Gasolina botatzera boxetara sartu behar badut, jai dut, aurrean ibiltzeko aukera guztiak joango zaizkit; horregatik, ezin dut modu agresiboan gidatu,



Purito-k goitik behera margotu du autoa aurten. X.FERNANDEZ

CER LASTERKETAN ESTRATEGIAK GARRANTZI HANDIA DU, ETA AUTOA ZAINTZEN JAKITEAK

buruarekin ibili behar dut, eta gurpilak ere zaindu egin beharko ditugu, nahiz eta domekako lasterketan are eta garrantzitsuagoa izango den gurpilak ondo zaintzea".

Pilotu bakarra

CER lasterketan pilotuz aldatzeko aukera dute parte-hartzaileek, "Baina nik bakarrik egingo dut lasterketa, eta bakarrik egiten dugunoi, boxetara sartzen ez garenoi, 90 segundo gehitzen dizkigute; pilotua aldatzeko behar den denbora, alegia.

Zapatuko lasterketaren ostean, baina, lanak ez dira amaituko: "Ea zelan amaitzen dugun lasterketa. Kolpeak egoten dira, autoak arazoak izan ditzake... Baliteke lasterketa amaitu ostean lan egin behar izatea domekan osterera ere autoa puntuan jartzeko. Guztira, lauzpabost

mekaniko izango ditut nirekin, eta ea ez dugun aparteko lanik egin behar lasterketa batetik bestera, seinale ona izango litzateke hori.

Domekan bi ordu

Domekako lasterketa erronka handiagoa izango da, lan bikoitza izango du-eta aurretik: "Nik zapatukoari ematen diot garrantzia, hor egin gura dut lan ona, eta hor ditut benetako aukerak. Domekan, berriz, zalan-tza handiagoak izango ditugu. Batetik, pilotu bakarra naizenez, gaitza da bi orduan erabat kontzentratuta egotea. Pentsa, nekeak jota itzuli bakoitzeko segundo erdi galtzen badut, sekulako galera izango dut. Bestetik, lasterketako estrategiak garrantzi handiagoa izango du domekan, apur bat motelago ibili eta gurpilak ez aldatzen ahalegindu, erasokorrango pilotatu eta gurpil aldaketa bat programatu...".

CER-en 40-50 autok batera hasiko dute lasterketa; tartean egongo dira Porsche GT, Ferrari eta halako auto *potoloak*, baina gero, kategoriak banatzen dituzte denak.



Lasterketako antolatzaile Rosado eta Arana, iazko irudi batean. VIMEO

Lehenengo aldiak baino pilotu gehiago izango ditu domekakoak

ENDUROA Atzo, eguna, 120 lagunek emana zuten izena; bi tramu sekretupean gorde dituzte antolatzaileek

X.U. OÑATI

Domekan (09:30) egingo dute Arrasateko II. Enduro Txapelketa, eta parte-hartzeari dagokionez jendeak oso ondo erantzun du: "Joan den astean beldur ginen, baina, egia esan, oso pozik gaude, aurrez 120 pilotuk eman dute-eta izena, eta, gainera, tartean bi emakumezko egongo dira. Horrekin batera, domekan bertan ere seguru jendea animatuko dela izena ematera (45 euro). Horretarako, baina, komeni da 08:00etarako Arruena parkean egotea", adierazi du Asier Rosadok.

Lasterketak izango dituen tramuei dagokienez, antolatzaileek hainbat ezusteko gorde dituzte: "Lau tramuetatik bi sekretupean gorde ditugu. Iaz Anporreta inguruan ibili ginen, eta aurreratu dezakegu lasterketaren bigarren zatia hor egingo dugula. Baina baliteke lasterketa erdi beste nonbaiten egitea, eta hori da sekretupean gorde duguna, inork aurrez entrena ez dezan. Hala, lasterketa ikusi gura duten herritarrei esango nieke 09:30ean Arruena parkera gerturatzeko, bertan azalpen guztiak jasoko dituzte eta".

Fagor Industrialek babestuko du aurten Aloña Mendi taldea

ESKUBALOIA Oñatiarrek azarora atzeratu dute asteburuan Basauriren kontra jokatu beharreko norgehiagoka

X.U. ARETXABALETA

Aloña Mendiko eskubaloia sailkoek albiste pozgarria jaso dute, akziodunen batzarrean hala erabakita Fagor Industrial enpresak Nazional Mailako taldea babestuko du eta: "Azken urteotan babesleak aurkitzeko zailtasunekin ibili da saila, eta eskertzekoa da kirol honi laguntza emateko gertu dauden enpresak daudela ikustea. Alde horretatik, eskerrak eman gura dizkiegu sail eta talde ezberdinek babesten dituzten erakunde handi zein txikiei, eta besteak

animatu gura ditugu, gure egoera ekonomikoa egonkorra bada ere, inoiz ez delako soberakinik egoten".

Aloñak atsedena izango du

San Migel jaiak direla eta Fagor Industrial Aloña Mendik asteburuan Basauriren kontra jokatu beharreko norgehiagoka azarora atzeratzea erabaki du.

Ford Mugarri Arrasatek, berriz, joan den asteburuan partidua irabazi eta gero, Ereintza-ren kantxan jokatu du zapatuan (17:30).



Joan den astean Estala futbol zelaian Aloña Mendikoek –urdirnez– egindako 1-0ekoaren jokaldia. IMANOL SORIANO

Golak bosnaka egiten ditu Aloña Mendik

FUTBOLA Oñatiarrek ezin hobeto hasi dute Erregional Preferenteko liga, bi partidutan hamar gol eginda; joera horri jarraipena ematea izango da Urzelairen mutilen erronka; asteburuko partidua zaptura aurrerratu dute, San Migel jaiengatik

Xabier Urzelai ARRASATE Badira hasiera oneko denboraldiak, eta ondoren dator Aloña Mendik bi jardunaldi hauetan egin duena. Iaz, golak egiteko zailtasun handiak izan zituzten txantxikuek, baina, kategoriaz jaitsi diren urtean, taldea sendotu egin dute –Axi Ugarteren itzulera ordainezina da– eta kontrarioaren atera erraztasunez iritsi dira bi jardunaldi hauetan –hamar gol egin dituzte–.

Antzuolaren kontra zaptuan jokaturako norgehiagokaren ostean, baina, bosgarren (1-5) goleko egile Mikel Palaciosek garbi egin zuen berba: "Hau luzea da, eta maila honi eustea izango da benetako erronka. Ondo hasi gara eta honi jarraipena eman behar diogu orain".

Oñatikoari ez zaio arrazoirik falta, kategoria horretan ibili diren Mondrak edo Bergarak ondo dakite ez dela erraza gora egitea, urtero egoten direlako bizpahiru talde indartsu eta gainontzekoak ere ez direlako

hankamotzak. Baina hasiera bikaina izan da, eta, hasiera on horretan San Migel jaiek kome-ni dena baino eragin txikiagoa izan dezaten, partidua zaptura aurreratzea erabaki dute. Hala, bihar 16:30ean Soralezaren bisita izango dute Azkoagainen.

Leintz Arizmendik ere etxean Emakumezkoen Euskal Ligan, Leintz Arizmendik etxean jokatuko du domeka arratsaldean –16:30, Mojategi–. Ligako estreinaldian garaipena eskuratu bazuten ere, hurrengo bi partiduetan esku hutsik geratu dira, eta bigarren garaipenaren bila zelairatuko dira domekan. Kontrarioa, Barakaldo, bosgarren dago, bi partidu irabazita.

IAZ GOLAK EGITEKO ZAILTASUNAK IZATETIK KONTRARIOAREN ATEA ERRAZ ZULATZERA PASA DIRA OÑATIKOAK

Bergarak bikain jarraitzen du Ohorezko Erregional Mailan Bergara da kategoriako ezuste positiboena, dagoeneko hiru garaipen batu dituzte-eta Mikel Juaristiren mutilek: "Azken bi urteak oso onak izan dira gure-tako, aurtun mailaz igo gara, eta, kategoria berriaren aurrean, nahiz eta denboraldi-aurrean zailtasun batzuk izan genituen oso ondo hasi dugu liga. Egia esateko, badakit zer-nolako taldea daukadan, baina gu ere apur bat harrituta gaude halako hasiera onaren aurrean".

Aretxabaletak eta Mondrak ere kanpoan jokatuko dute asteburuan. UDAkoak ere ezin hobeto hasi dira, mahoneroen moduan dagoeneko bederatzi puntu dituzte eta azken sailkatu Urolaren zelaian jokatuko dute bihar. Eta Mondrak ere azkar batean uxatu du lehen jardunaldiko porrotak utzitako zapore txarra. Zuri-moreek Zarautz talde gogorraren etxera egingo dute bisita, bihar.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA	EUSKAL LIGA	ERRUGBIA
EMAKUM. EUSKAL LIGA	Eskoriatza-Atxurre	18 URTEZ AZPIKOAK
Ariz. Leintz-Barakaldo	Ordutegia zehazteke dute.	Kanpanzar Ar.-La Rioja
Domeka. 16:30. Mojategi.	Labastida-Mondrate	Zapatua. 11.00. Mojategi.
OHOREZKO ERREGION.	Ordutegia zehazteke dute.	ENDUROA
Urola-Aretxabaleta	ESKUBALOIA	ARRASATEKO II. PROBA
Zapatua. 16:30. Argixao.	EUSKADIKO TXAPELKET.	Domeka, 09:30, Musakolan.
Zarautz-Mondra	Fagor Indus.-Basauri	PILOTA
Zapatua. 16:45. Asti.	Atzeratuta.	SAN MIGEL FINALAK
Pasaia-Bergara	Ereintza-Ford Mugarri	Domeka, 17:00, Zubikoan:
Zapatua. 15:30. Errente.	Zapatua. 17:30. Errenteri.	Iñigo Perez eta Alberdi
ERREGIONAL PEFEN.	GAZTE MUTILAK	Ibon Perezen eta
Aretxabaleta-Eibar	Bergara-Ilcapo Hondar.	Kurainen kontra.
Zapatua. 12:00. Ibarra.	Zapatua. 12:00. Labegar.	Ondoren, Uribe eta
Mondra-Idiazabal	Ormaiztegi-Aloña Men.	Azpitarre Mataren eta
Zapatua. 18:00. Mojategi.	Atzeratuta.	Cordonen kontra.
Bergara-Antzuola	KADETE MUTILAK	EZKER HORMA FEDER.
Domeka. 16:30. Ipintza.	Arrasate-Leizaran	Oñatin
Aloña Mendi-Soraluze	Domeka. 11:30. Iturripe.	Gaur. 19:15. Gazte
Zapatua. 16:30. Azkoaga.	SASKIBALOIA	mailakoak eskuz binaka:
ERREGIONAL MAILA	JUNIORRAK, EUSKADIK.	Aloña Mendi-Aretxabaleta
Aloña Mendi-Anaitasu.	ISB-MU A	Bergaran
Domeka. 16:30. Azkoaga.	Domeka. 12:00. Azpeitia.	Gaur. 19:20. Gazte
Eibartarrak-Arizmendi	GIPUZK. SENIOR MAILA	mailakoak eskuz binaka:
Zapatua. 15:30. Unbe.	Aloña Mendi-Errotaun.	Bergara-Pagazpe.
OHOREZKO GAZTEAK	Zapatua. 16:15. Azpeitia.	Arrasaten
Mondra-Tolosa	MU-Vientos Sur	Gaur. 20:00. Eskuz binaka
Zapatua. 16:00. Mojategi.	Domeka. 17:30. Musako.	nagusiak:
Bergara-Urola	GIPUZK. BIG. MAILA	Arrasate-Gure Txeru
Zapatua. 18:00. Ipintza.	Bergara Sora.-Zarautz	HERRI KIROLAK
Aretxabaleta-Billabona	Zapatua. 16:30. Labegar.	ARETXABALETAN
Zapatua. 15:30. Ibarra.	JUNIORRAK (ERRENDI.)	Domeka, 13:00etan:
Amaiak Bat-Aloña M.	Hernani-MU	Aitzol Atutxa eta Ugaitz
Zapatua. 12:30. Deba.	Domeka. 12:00. Hernanir.	Mugertza aizkoran. Izeta
ARETO FUTBOLA	JUNIORRAK (PARTE-H.)	II.a harria jasotzen. Irati
MAILA NAZIONALA	Bergara-Artletico	Astondoa eta Alazne
Aretxabaleta-Aurrera	Domeka. 12:00. Labegar.	Etxaburua aizkoran eta
Domeka. 12:00. Ibarra.	Take-Aloña Mendi	trontzan, eta Karmele
	Zapatua. 12:00. Tolosa.	Sarasola harria jasotzen.

ERRUGBIA Kanpanzar ARTren azken lagunartekoa bihar

Arrasate Kanpanzar Rugby Taldeak datorren asteburuan hasiko du liga, urriaren 7ko eta 8ko asteburuan, Euskadiko Txapelketako Lehenengo Mailan. Eta liga ondo prestatzeko bidean, asteburuan jokatuko dute azken lagunartekoa Igor Isasiren mutilek –zapatua, 16:00, Lekaroz–, Baztango taldearen kontra. Euskadiko Lehenengo Maila hamar taldek osatuko dute, eta tartean daude La Unica, Getxo B, Marzola Rioja, Atletico San Sebastian, Bilboko Unibertsitatea, Gaztedi A, Ordizia B, Gernika B eta BRT Menditarrak. Hain zuzen ere, azken horien etxean hasiko dute liga arrasatearrek.

ARETO FUTBOLA UDA Aretxabaletak etxean egingo du debuta

Laskorainen kantxan 5-2 galduta estreinatu du Aretxabaleta UDAk Nazional Maila, baina partidu aurretik Arkaitz Ribera entrenatzaileak aurrerratu zuen tolosarrak aurrealdeko postuetan ibili zirela iaz eta lehenengo partidu horretatik ezingo zela ondorio handirik atera. Asteburuan, berriz (domeka, 12:00), etxeko zaleen aurrean jokatuko dute aretxabaletarrek, eta Gasteizko Aurrera taldearen bisita izango dute. Gasteiztarrek joan den astean 4-7 galdu zuten Goierriren kontra.

Mondratek eta Eskoriatzak, berriz, asteburuan jokatuko dute lehen jardunaldia, baina ez dituzte ordutegiak zehaztu.

Bergarak badu ekoizpen berria: 'Alizia musikala'

Azaroaren 11n eta 12an ikusi ahalko da Bergarako Musika Eskolaren musikal berria, Udal Pilotalekuan; Lewis Carroll-ek duela 150 urte idatzitako eleberria oinarri hartuta, egokitzapen "gaurkotua eta modernoa" eramango dute oholtzara, 100 artista ingururekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako Musika Eskolak badu musikal berria: *Alizia musikala*. 1994an ekoiztutako *Miserableak* izan zen lehena eta ordutik hona Bergararen zeinu bereizgarrietako bat da obra handien euskarazko egokitzapena. Azken honetan ere, 100 artista inguru izango dira oholtza gainean.

Lewis Carroll-en *Alice in the Wonderland* obra hartu dute oinarri, baina, hura egin zenetik 150 urte pasa direnez, euskarazko moldaketa bat egin dute. "Egokitzapen oso gaurkotua eta modernoa da", aurreratu du egokitzapen eta eszena zuzendari Valen Moñuxek. "Betiko Alizia egongo da, eleberri originalekoa, baina baita istorio berri bat ere, eta, gainera, paraleloki, beste istorio bat gehitu diogu; Ainhoaren bizitza izango da, gaur egungo bizimoduaren erakusgarri. Kritika puntua izango du, egungo gizarteak wifira eta konektatuta bizitzera duen mendekotasuna agerian utziko duena", gaineratu zuen martitzeneko aurkezpenean egokitzapenaz eta kantuen hitzez arduratu den Oihan Vegak.

Lan gogorra, baina gozagarria

Musikalaren azpiztitulua kritika horri dago estuki lotuta, hain



Untxia -Aitor Garitano- eta Alizia -Alaine Egizabal-, aurkezpenean. A. TXINTXURRETA

justu; *Herrialde miresgarrian badago wifia*. Eta bertako umeen abesbatzan parte hartuko duten 50 gaztetxoak ilusioz gainezka dabilta entseatzen. "Umea musikal baterako entseatzen ari dela disfrutatzen ikustea ederra da. Lan gogorra ari dira izaten, ordu pila bat, baina euren ilusioa eta gogoia dago aurretik", uste du abesbatza zuzendari Nagore Sanzek.

Pertsonaia nagusien papera egiteko *casting*-a gogorra izan zen, eta, abesbatza zuzendari eta kantu irakasle Marije Ugal-

deren arabera, ikuskizunak itxura polita hartu du dagoeneko: "Uste dut asmatu dugula, nor bere paperean oso ondo dago". Aliziari bizia emango dion Alaine Egizabal, esaterako, oso pozik dago bere paperarekin: "*Casting*-erako lan handia egin nuen, eta ni aukeratu nautela jakiteak ilusio handia egiten dit".

Bi ordu inguru iraungo du musikalak, eta, estreinaldia azaroaren 11n izango bada ere, hurrengo egunean beste emanaldi bat egingo dute: Bergarako Udal Pilotalekuan izango da, 18:30ean.

Euskal Herriko eta nazioarteko koreografoen dantzen batura

Dantzaz konpainiaren 'Harri, orri, ar' dantza garaikidea ikuskizuna bihar, zapatua, 19:30ean, Amaia antzokian

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Sormen Koreografikoaren Nazioarteko Zentroa bilakatu dute Dantzaz konpainia azken urteotan; hortaz, askotariko jatorri eta profiletako koreografoekin elkarlanean sortzen dituzte agertokian eskaintzen dituzten lanak.

Elkarlan horren isla da Dantzaz-en azken ekoizpena: *Harri, orri, ar*. Gaur, egubakoitza, ikasleentzako emanaldi itxia egingo dute, eta bihar, zapatua, otera ikusle guztientzako, 19:30ean, Amaia antzokian. Hamar eurotan eskura daitezke sarrerak.

Hiru ikuskizun bateratuta

Dantza garaikidea emanaldia da eta 75 minutuan hiru istorio kontatuko dituztela azaldu du Dantzaz konpainiako zuzendari nagusi Fernando Saenz de Ugarte. "Elkarren artean ez dute loturarik. Lehenengoak *Segun-*

du baten istorioa—erabaki bat hartzeko unean norbanakoaren buruan gertatzen dena jasotzen du. Bigarrenean *Complete Surrender*—Jorge Jauregi Bilboko koreografoa batez ere oinarritu da, esfortzu bat azkeneraino nola eraman azaltzen; eta hirugarren zatian, ikuskizunari ize-na eman dion *Harri, orri, or* izenekoan, gastronomia eta haurren jolas ezaguna bateratu ditu Paolo Mohovich koreografoak Getarian bizi den Enrique Fleischmann sukaldari mexikarraren laguntzarekin. Ikusgarria da elkarrekin sortu duten istorioa; bitxikeria moduan esan, dantzariak agertokian eta emanaldia bukatutakoan, ikusleek ere bai, atrezzo osagai horiek jateko aukera izango dutela. Hori guztia dantzaren bitartez kontatuko dute agertokiko hamabi lagunek".

Joseba Barandiaran ekonomialariarekin berbetan 'EKT' saioan

Askotariko profiletako adituak izan ziren iazko ikasturtean MUK antolatu zuen *Euskal Kulturgintzaren Transmisioa* graduondokoan; eta nork bere esparrutik edo ikuspegitik jardun zuen kulturgintzaren inguruan. Ikasleei ikasgelan kontatutakoak laburbildu zituzten, ondoren, Goiena telebistan eskaintzen ari diren *EKT* saioan.

Datorren egueneko saioan, 21:00etan, Joseba Barandiaran (Legazpi, 1973) ekonomialaria izango du Bilbo Hiria irratiko Ane Zabalak solaskide. EHUn Ekonomia ikasketak egin zituen, eta ondoren, Ekonomia Finantzaren inguruko graduondokoa. Gaur egun, ekonomialari lanetan dihardu Barandiaranek, BBVAn, eta Autonomia Erkidegoko analisiak burutzea da haren egin-beharra. Ogibideaz eta zaletasun duen bertsolaritzaz jardun dute kameran aurrean.

KULTURRIZKETAK

GOIENA TELEBISTA,

URRIAREN 5EAN, EGUENEAN, 21:30EAN

GONBIDATUA: MIKEL MARTINEZ ETA PATXO TELLERIA

goiena
ZU HEMEN ZAUDE



'Handia'-k adituen eta ikusleen onespena du

Euskal erakundeetako ordezkarien eta askotariko profiletako ikusleen aurrean aurkeztu dute, Donostian, Moriarti Produzioen azkeneko lana, eta bihar, zapatua, jakinaraziko dute saririk eskuratzen duen; hurrengo erakusleihoa Londresen du

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Domekan aurkeztu zuten Aitor Arregi oñatiarrak eta Jon Garañok zuzendu duten *Handia* filma Donostia Zinemaldian. Aurreikusten zen moduan, ikusmin handia sortu zuen: zinema-zaleez gainera, erakundeetako ordezkariak eta aktore asko bildu ziren Kursaal aretoan.

Bihar, zapatua, egingo dute amaierako ekitaldia eta han banatuko dituzte sari nagusiak eta bestelakoak; besteak beste, euskal ekoizpen onenarena, hau da, Irizar saria.

Madrilgo kritikariek, aldekoak

Txalo zaparrada eta hitz polit asko jaso ditu dagoeneko filmeko lantaldeak; hortaz, Aitor Arregi zuzendaria gustura da *Handia*-k hasi duen ibilbidearekin. "Oso pozik gaude; sinatuko genuen, orain dela hamar egun, izan dugun harrera edukitzea. Orokorrean, zinema-kritikarien aldetik jasotako iritziak onak dira, badira txarrak ere, nola ez, baina hori normalizat jotzen dugu, kontuan hartuta kritikarien profilak oso ezberdinak direla; kritikari bati muturreko zinema gustatzen bazaio, hari ez zaio gustatuko *Handia*, baduelako bere alde klasikoa. Madrilen, batez ere, oso ondo hartu dute



Handia filmeko lantaldea domekan Donostian. ARITZ DENDATEGI

filma, orokorrean iritzi oso onak edo filmaren aldekoak dira, *El Periódico*, *El País*, *La Vanguardia* eta *ABC* egunkarietan, esaterako. Batzuek diote hemengo lanek bateratasuna sortzen dutela eta horregatik ez dugula gaitasunik kritika zorrotzak egiteko. Hemengo adituen kritika onak jaso ditugu, *Berria* eta *El Diario Vasco* egunkariak, kasu, baina txarrak ere bai, *Gara*-n, esaterako; eta inongo arazo barik diot hori. Akaso, pasio gutxiagorekin bizi izan duen jendeak, kanpotik begira dagoen

jendeak, beste begi batzuekin ikusi du, eta, duda barik, asko poztzen gara horrekin. Era berean, jende askok esan digu pelikula bere buruan hazten ari dela, eta hori da entzun daitekeen gauzarik politena".

Urriaren zinema aretoetara

Donostia Zinemaldiaren ondoren, Londres du *Handia*-k hurrengo geltoki. Zinema aretoetan, berriz, urriaren 20an estreinatuko dute eta aurrestreinaldia egingo dute urriaren 5ean, Gorbetia aretoetan.

'Kulturizketak'-en kapitulu berriak eskaintzeko prest

Urriaren 5ean 21:30ean abiatuko dute bi sortzaileren arteko elkarrizketa saioa berriz ere Goiena telebistan

A. A. ARRASATE

Aspaldiko lagunak eta lankideak diren Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek zabalduko dute *Kulturizketak* solasaldi saioaren denboraldi berria datorren egunean.

Ez dok hiru. Euskal musikaren benetako istorioa antzezlanak da bikoteak egin duen azken lana, eta, hortik abiatuta, agertokietan elkarrekin egin duten ibilbidea gainbegiratuko dute, elkarri galderak eginez.

Aurreko edizioan moduan, ez da aurkezlerik egongo, biek ala biek egingo dituzte galderak, eta horiek erantzun ere bai. Urteak daramatzate bikote artistiko moduan lanean, antzerki obrak sortu, ekoiztu eta antzeztzen. Denborarekin, estilo propioa sortu dutela esan daiteke, iturri askotatik edaten dute, baina berezko marka ere badute. Elkarrizketetan oinarritzen dira euren obrak; horrenbestez, eroso izango dira kameraren aurrean ere.

Goiena Klubaren txokoa



Itsas hegaztiak eta zetazeoak ikusteko bi pertsonarendako egun-pasa zozketatzen dugu!



LABORATORIUM
BERGARA



Handia filmaren aurrestreinaldirako hamar sarrera bikoitz ditugu!



PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "LABORATORIUM" edo "HANDIA" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

SORAN ETXEA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

'Soka' antzezlanak ikusteko sarrerak ditugu.

Amaia antzokian, Arrasaten | Urriaren 8an, 19:30ean

Bertsozale elkarteari esker

Zumaia final-laurdenetako saiorako sarrerak ditugu.

Aitzuri pilotalekuan, Zumaian | Urriaren 8an, 17:00etan

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Soka" edo "bertsoa" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2017 (irailetik aurrera): 20 euro.
Deitu: **943 25 05 05**. kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. 90 metro koadroko etxebizitza salgai Arrasate pasealekuan. Unibertsitatetik gertu. Lau logela, bi komun eta garbata. Balkoi handiarekin eta dena kanpoaldera begira. Oso eguzkitsua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 79 36 45

Arrasate. Garagartz auzoan, Axbabalpe ondoan, ikuspegi politak eta guztiz berritutako 70 metroko etxebizitza dago salgai. Sukaldea eta egongela handiaz gain, bi logela, bi komun eta trastelekua ditu. Prezio ona. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 62 31 52

103. ERRENTAN EMAN

Angiozar. Eraberritutako etxebizitza errentan ematen da Angiozarren: hiru logela, sukalde-egongela, bi komun, aseoa txiki bat eta bokoa dauzka, hainbat solairutan banatuta. Berokuntza, tximinia eta hari musikalarekin, bizitzera sartzeko moduan. Guztiz ekipatuta. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 679 33 18 70 edo 652 73 12 41

Arrasate. Erdigunean logela bateko etxebizitza ematen da errentan. Bizitzera sartzeko prest dago. 619 34 88 52

Oñati. 90 metro koadroko etxebizitza berria ematen da errentan Kurtzebidetan. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. Telefonoa: 615 73 29 83

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Bi edo hiru logela eta igogailua dauzkan etxebizitza behar dut errentan. 697 86 48 91

105. ETXEA OSATU

Arrasate. 25 urteko neska naiz. Urritik ekainera bitartean etxebizitza baten logela bat hartu nahi dut errentan. 658 48 43 31

Arrasate. Bi logela ematen dira errentan erdigunean. Jende arduratsua izatea eskatuko da. Telefonoa: 693 80 64 18

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje moduan erabil daitekeen 79 metro koadroko lokala saldu edo errentan ematen da erdigunean, Burdiniatan. Telefonoa: 607 34 90 43

202. EROSI

Arrasate. Garaje itxia erosi nuke Arimazubín. Telefonoa: 652 74 03 08

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan San Lorentzon. 626 25 75 95

4. LANA

402. ESKAERA

Arrasate. Etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar lan egingo nuke, zaintzan eta garbiketatan. 632 91 89 93

Bergara. 47 urteko emakumea, garbiketa lanetan esperientzia handia duena, etxeko lanak egiteko prest. Baita orduka lan egiteko ere. 647 51 52 80

Bergara. Emakume euskalduna orduka etxeko lanak edota garbiketak egiteko prest. Telefonoa: 615 71 70 68

Debagoiena. Egunean zehar eta asteburuetan ere bai, nagusiak zaintzen eta garbiketetan lan egiten lan egingo nuke. Lege paperak ditut. Telefonoa: 602 69 24 10

Debagoiena. Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 697 86 49 00

Debagoiena. Garbiketa eta ume edo nagusien zaintzan lan egingo nuke. 602 09 79 54

Debagoiena. Garbiketa lanak egiten eta ume edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 631 30 82 95

Debagoiena. Garbitzen edota ume eta nagusien zaintzan lan egingo nuke. 612 27 82 34

Debagoiena. Gizona gertu nagusiak zaindu eta

garbiketak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egunez edota orduka. Berehala hasteko prestasuna. Telefonoa: 632 52 15 20 edo 632 28 89 67

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu, garbiketa egin eta zerbitzari moduan aritzek. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 638 85 43 36

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Erreferentziak aurkez ditzaket. 615 82 65 96

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketetan lan egingo nuke. Gavez edo egunez. Telefonoa: 631 09 50 90

Debagoiena. Neska arduratsu eta langilea nagusi eta umeak zaintzeko edota garbiketak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 667 35 72 77

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketetan aritzeko. Etxean bertan bizi izaten, orduka edo eguneko jardunez. 631 19 02 54

Debagoiena. Neska arduratsua gertu orduka nagusi eta umeak zaindu edota garbiketak egiteko. Gomendio agiriak aurkez ditzaket. 632 89 57 06

Debagoiena. Neska arduratsua gertu orduka, etxean bizi izaten edo egunez zaintza lanetan jarduteko. 685 26 81 42

Debagoiena. Neska arduratsua gertu zaintzan eta garbiketetan jarduteko. Baita gauak ospitalean egiteko ere. Etxean bertan bizi izaten, egunez, orduka edota asteburuetan. 612 54 71 10

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, garbiketa egin eta zerbitzari moduan aritzek. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Telefonoa: 654 11 15 14

Debagoiena. Neska lanerako gertu: etxeko lanetan, garbiketetan, nagusiak zaintzen edota sukalde laguntzaile moduan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 688 29 97 05

Debagoiena. Orduka edo egunean zehar lan egingo nuke ume eta nagusiak zaintzen, garbiketetan, etxeko lanak egiten edota ospitalean gaixoak zaintzen. 602 89 61 39

Debagoiena. Orduka, egunez zein etxean bertan bizi izaten, nagusiak zaintzeko gertu nago. 632 69 40 90

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten, eguneko jardunez edo orduka. 622 24 86 64

Debagoiena. Sukaldaria asteburuetan lan egiteko gertu. Esperientzia handia dut pintxoak, menuak, ogitarteko eta abarrak prestatzen. 666 83 21 95

Debagoiena. Zaintza lanetan, garbiketetan, supermerkaturan edota sukalde laguntzaile moduan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 688 29 97 05

Oñati eta Arrasate. Emakume euskalduna nagusi eta umeak zaintzeko gertu. 680 63 67 80

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Oñati. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatua eta Irakaskuntza Masterduna, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikasleei eskola partikularrak emateko prest. 606 15 11 47

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumaxoak. Sei aste inguruko katakumaxo polit-politak ematen dira opari. Nahi duenak dei

dezala zenbaki honetara: 653 72 89 17

8. DENETARIK

806. GALDU

Betaurrekoak Urkulun. Irailak 20-22 artean, betaurrekoak galdu nituen Urkulun. Graduatuak dira, tolesgarriak eta funda beltz baten zeuden. Aurkitu badituzu, deitu zenbaki honetara. Eskertuko da. Deitu telefono hauetako batera: 943 79 00 16 edo 635 00 83 33

903. DEIAK

Aleman mintzapraktika. Egubakoitzero elkartzen gara Bergaran, 18:30etik aurrera, alemana praktikatzeko. Zuk ere parte hartu gura baduzu, Facebookeko 'Stammtisch Bergara' taldean sartu edo deitu zenbaki honetara: 663 65 76 06

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

BAILARAKO ALKATEEKIN BERTETAN

'Harira' Martitzena, 21:15



GOIENA

ONATIKO JAIEAKO ERREPASOA, IRUDITAN

'Jaiak' Eguaztena, 21:00

EGUBAKOITZA, 29	ZAPATUA, 30	DOMEGA, 1
10:00 Hemen Debagoiena	09:00 Txantxariak 7	09:00 Txantxariak 6
11:00 Onein	09:30 Platopic 16	09:30 Txantxariak 7
11:30 Hemen Debagoiena	10:00 Txantxariak 6	10:00 Platopic 16
12:30 Ikustenda_Artza	10:30 Amaia DJ	10:30 KILOMETROAK 2017
13:00 Platopic 16	11:30 Osoko bilkura: Bergara	11:30 Kulturriketak: Harkaitz-Manu
13:30 Hemen Debagoiena	12:30 Astearen errepasoa	12:00 Osoko bilkura: Bergara
14:30 Gaurkoak	13:30 Onein	14:00 Hemen Debagoiena
14:45 EKT Jose Anjel Irigarai	14:00 Hemen Debagoiena	15:00 Astearen errepasoa
15:15 Hemen Debagoiena	15:00 Kulturriketak: Harkaitz-Manu	16:00 Platopic 15
16:15 Gaurkoak	15:30 Amaia DJ	16:30 Txantxariak 6
16:30 Onein	16:00 Txantxariak 7	17:00 Txantxariak 7
17:00 Gaurkoak	16:30 Platopic 15	17:30 Ur eta Lur
17:15 Kulturriketak: Harkaitz-Manu	17:00 Txantxariak 6	18:00 KILOMETROAK 2017
17:45 Gaurkoak	17:30 KILOMETROAK 2017	19:00 Ikustenda_Artza
18:00 Hemen Debagoiena	18:30 Osoko bilkura: Bergara	19:30 EKT Jose Anjel Irigarai
19:00 KILOMETROAK 2017	20:00 Astearen errepasoa	20:00 Hemen Debagoiena
20:00 Hemen Debagoiena	21:00 Ikustenda_Artza	21:00 KILOMETROAK 2017
21:00 Kulturriketak: Harkaitz-Manu	22:00 Hemen Debagoiena	22:00 Osoko bilkura: Bergara
21:30 Amaia DJ	23:00 KILOMETROAK 2017	23:00 Astearen errepasoa
22:00 Hemen Debagoiena		
23:00 Osoko bilkura: Bergara		

ASTELEHENA, 2

ARRASATEKO ENDURO LASTERKETA

'Harmailatik'

Astelehena, 21:30

ASTELEHENA, 2

ZINEMALDIAREN LABURPENA

'Hemen Debagoiena'

Astelehena, 18:00/20:00/22:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 3



GOIENA

EGUNEKO ALBISTE NAGUSIAK

'Gaurkoak'

Eguaztena, 14:30

EGUENA, 4

ELKARRIZKETA ETA ERREPORTAJEAK

'Hemen Debagoiena'

Eguaztena, 18:00/20:00/22:00

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera utzerik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajeta Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiiena paperean eta Goiiena eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 17 euro 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

ESKER ONA

Encarna Linzoain Ilarduia

Vicente Iturberen alarguna

2017ko irailaren 17an hil zen, 87 urte zituela.



Eskerrik asko Mizpirualdeko egoitzakoei eta egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Beti izango gara zure, beti egongo zara gugan. Maite zaitugu.

Bergaran, 2017ko irailaren 29an.

ESKER ONA

M. Paz Zubialdea Zabala

Fernando Agirrerren alarguna

2017ko irailaren 22an hil zen, 102 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoiei eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2017ko irailaren 29 an.

ESKER ONA

Josefina Sarasua Etxebarria

2017ko irailaren 26an hil zen, 78 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Elgetan, 2017ko irailaren 29an.

OROIGARRIA

Iñaki Beristain Uzkudun

2017ko irailaren 25ean hil zen, 70 urte zituela.



Eskerrik asko Goienan laguntzeko gertu egoteagatik beti.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

Goiena Komunikazio Taldea.
Oñatin (Arantzazu), 2017ko irailaren 29an.

URTEURRENA

Victoriano Etxaniz Mazorriaga

2016ko irailaren 30ean hil zen, 79 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 1ean, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoiei eskerrik asko, sendikoen izenean.
Antzuolan, 2017ko irailaren 29an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:

NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

HILDAKOAK

Gregoria Arietaleanizbeaskoa Maiztegi. Arrasaten, irailaren 22an. 104 urte.

M. Paz Zubialdea Zabala. Bergaran, irailaren 22an. 102 urte.

Trinidad Blanco Gonzalez. Arrasaten, irailaren 22an. 96 urte.

Iñaki Beristain Uzkudun. Oñatin, irailaren 25ean. 70 urte.

Casilda Jimenez Serrano. Bergaran, irailaren 25ean. 93 urte.

M. Carmen Gijon Luengo. Arrasaten, irailaren 25ean. 91 urte.

Josefina Sarasua Etxebarria. Elgetan, irailaren 26an. 78 urte.

Felix Sanchez Delgado. Bergaran, irailaren 26an. 82 urte.

Esperanza Etxebarria Axpe. Bergaran, irailaren 26an. 96 urte.

M. Carmen Axpe Zubizarreta. Aretxabaletan, irailaren 27an. 97 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 29	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Zapatua, 30	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Domeka, 1	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Astelehena, 2	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Martitzena, 3	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguaztiena, 4	FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26
Eguena, 5	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 29	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 30	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 1	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 2	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Martitzena, 3	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguaztiena, 4	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 5	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 29	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 30	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 1	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 2	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 3	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztiena, 4	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 5	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2017ko abenduaren 31ra arte:
IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2017 osoan:
URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4
943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskela@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € Goiena Klubeko bazkideendako 142 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otolara Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



TXUTXU-MUTXUAK

**1. Atsolorra**

Ondoetorria egin diete Oñatin udal ordezkariak azken urtean jaiotako neska-mutikoei. Zapatuko ekitaldira joateko gonbidapena 74k jaso zuten.

4. Ane eta Aitor

Ane Altuna eta Aitor Monedero aurreko zapatuan, irailaren 23an, ezkondu ziren Bizkai aldean. "Zorionak, bikote, kuadrillakoen partetik!".

2. Musakolakoak

Musakolako erretiratuen elkarteko lagunak Britainia eta Normandia aldean ibili dira. Saint Michelen egin dute argazkia, ohitura mantenduz, Zigorrolako kamiseta eta guzti!

5. Marisa eta Manolo

Marisa Fernandez eta Manolo Boizas bergararrek irailaren 26an 25 bete zituzten ezkontuta. Gaur, familiarekin batera ospatuko dituzte zilarrezko ezteiak. Zorionak!

3. Patata-tortilla

Jatunak SA taldekoek irabazi dute Elgetako patata-tortilla lehiaketa. Originaltasunaren saria, Thortiya taldeko Sarats Mentxakak eta Laura Martinek.

6. Infernua handia

Eskoriatzan grabatu dute *Herri txiki infernu handi* saioaren denboraldi berriko bigarren atala. Urriaren 15ean emitituko dute Euskal Telebistaren lehen katean.



#DIOTENEZ

BORRAJA

Oñatiko bizkotxoaren errezeta zaharra berreskuratu dute **Artixa** elkarteko lagunek hilabete honetan eta dagoeneko hasi dira herriko **beste** gozo bat berreskuratu guran. Bidaurretako **mojek** borrajaren **lorearekin** egiten zuten ezti moduko gozo bat da. Ibili dira Bidaurretako monastegian errezeta horren bila eta **Aragoiko** gozogile batekin ere jarri dira harremanetan informazioa partekatu eta formula

bilatzeko. **Udaberrian** loratzen da borraja eta hurrengo urteko herriko jaietarako **gozo** hori berreskuratzea da euren nahia. **Ondare** gastronomikoarekin jarraituz, lehengo **erromes** pastela ere egin gura dute berri.

FINALA

Dagoeneko martxan dagoen Euskal Herriko **Bertsolari** Txapelketako finalerako sarrerak **zozkatuko** dituzte **Oñatin**. Urriaren 7an

Zubikoan egingo duten bertso saioan izango da. **Txinparta** bertso eskolako kideek jarriko dituzte **gaiak**.

KOMUNAK

Joan den **domekan** Oñatin egin zen **Kilometroak** jaian lan ona egin zuen **jasangarritasun** taldeak. Ibilbidean zehar jarri zituzten komunak eroan zituzten enpresak **zoriondu** egin du Txantxiku Ikastola komunak hain

egoera **onean** eta **garbi** uztearren. Oñatiko **alkateak** ere zoriondu du lantalde hori, herriko **inguruak**, bazterrak, garbi mantentzearen.

GORA

Tabernetako edarien **prezioek** gora egin dute —edo egingo dute— bailaran. Oñatin, esate baterako, **bost** zentimo gehiago kobratzen hasi dira **ebaki** batengatik. Bergaran **hamar zentimo** igo zuten **ardoa** uda aurretik eta

Arrasaten beste horrenbeste igo gura dute **garagardo** baten prezioa.

AFARIA

Apotzagan lagun arteko bertso afaria egingo dute gaur gauean. Xabi **Igoa** eta Jokin **Uranga** bertsolariak eta Eneko **Arbeo** eta Lur **Gurrutxaga** soinu joleak egongo dira. **Sanmigeldarrek** ere egingo dute bertsotan. Aurretik, **poteoa** egingo dute.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Ekhi Arriaran Zubillaga
Urriaren 4an, 7 urte.
Zorionak! Ondo ospatu eguna! Patxo handi bat danon partetik.



ARRASATE
Maria Eugenia Urroz Arruabarrena
Urriaren 3an, 67 urte. Zorionak, amama! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta urte askotarako! Muxu handi bat, familia osoaren eta, batez ere, Unaxen eta Izarren partetik!



OÑATI
Eneko Ugarte Kortabarria
Urriaren 3an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, mutiko, etxeko danon partetik. Segi halako jatorra izaten eta asko ikasi!



BERGARA
Eritz Larrañaga Inurrategi
Urriaren 1ean, 3 urte. Egun ona pasatu! Etxekoak.



OÑATI
Anartz Arregi Camino
Urriaren 1ean, 6 urte. Zorionak, Anartz! Ondo ospatu zure eguna eta patxo erraldoi bat, Oxelen, Maialenen, Agerren eta Amaneren partetik.



BERRIZ
Zoe Balsera
Urriaren 1ean, 7 urte. Berrizko printzesa ederrenarentzat, zorionak eta patxo potolo bat! Izeba Kety eta Usua.



OÑATI
Valeria Garcia Daza
Irailaren 30ean, 5 urte. Zure aita, ama, neba, amama, tio, tia eta lehengusuen partetik, zorionak eta patxo asko.



OÑATI
Eñaut Otxoa-Aizpurua Lizarralde
Irailaren 30ean, urtebete. Zorionak, pottoko! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, etxeko danon partetik. Muxu pila bat!



OÑATI
Irai Biain Ezkibel
Irailaren 30ean, urtebete. Zorionak, polit hori! Egund ederra pasatu etxekuekin eta lagunekin. Patxo handi bat, potxolo!



BERGARA
Naroa Markina Urizarbarrena
Irailaren 30ean, 2 urte. Zorionak, polit hori, etxeko denen eta, bereziki, Haizearen partetik! Ondo-ondo pasatu eguna! Muxu handi bat!



ARAMAIO
Nahia Reguero Osinaga
Irailaren 29an, 7 urte. Zorionak, maitia! Primeran pasatu zure eguna, merezi duzu-eta! Muxu potolo bat denon partetik. Asko maite zaitugu!



BERGARA
Naia Gabilondo Kapelastegi
Irailaren 29an, 8 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasatu zure urtebetetzean eta patxo potolo bat, aita xoren, amaxoren, Juneren eta familia osoaren partetik.



ANTZUOLA
Amets eta Oinatz Larrea Garitano
Irailaren 29an, Ametsek 8 urte eta urriaren 1ean, Oinatzek 6 urte. Zorionak eta urte askotarako, pareja! Ondo pasatu zuen urtebetetze egunian! Patxo handi bat, familia osuaren partetik.



ANTZUOLA
Xuban eta Danel Rodriguez
Xubane irailaren 28an, 13 urte bete ditu eta Danelek 6 bete zituen abuztuaren 9an. Bikote ederra! Etxekoan partetik, musu handi bat bioi. Zorionak!



ARETXABALETA
Izaro Hernandez Urzelai
Irailaren 28an, 11 urte. Zorionak, Izaro! Muxu handi bat etxekuan partetik. Bereziki, Gari eta Oihan.



OÑATI
Ane Pelayo
Irailaren 28an, 12 urte. Zorionak, Anetxu! Ondo pasatu eguna eta 12 laztan handi, etxekoan partetik.



ARETXABALETA
Inar Isasmendi Zabala
Irailaren 27an, 2 urte. Zorionak, maitia! Honezkero bi urte! Ze handia gure musikaria! Patxo potolo bat, etxeko guztien partetik.



BERGARA
Xiker eta Joritz
Irailaren 27an, 7 urte. Zorionak, bikote! Ederki pasatu urtebetetze eguna! Belarritik zazpi tirakada bakoitzari aita xoren, amaxoren eta familiakoan partetik!



ANGIOZAR
Iratz Arenaza Etxebarria
Irailaren 27an, 6 urte. Zorionak etxeko danon partetik.



ARRASATE
Maribel eta Kety
Irailaren 26an, urtebetetzea. Zorionak, bikote! Segi halaxe, zinemako izarrak bezala!



OÑATI
Iker Rodriguez Oquendo
Irailaren 26an, 8 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo pasatu zure eguna eta prestatu belarriak. Etxeko danon partetik. Muxuak!



ARETXABALETA
Axel Urzelai Hernandez
Irailaren 25ean, 5 urte, mutikote. Jarraitu horren ederra izaten. Danon partetik, zorionak!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ARAMAIO
Irune Arrizabalaga Gonzalez
Irailaren 25ean, 4 urte. Etxeko danon partetik, ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat Markelen partetik.



ARETXABALETA
Aimar Velasco Racionero
Irailaren 25ean, 3 urte. Zorionak, maitia! 3 urtetxo jada! Oso ondo ospatu eguna eta patxo potolo bat, etxekoan eta, bereziki, Eiderren partetik!

ELGETA
Mikel Mandaluniz Fernandez
Irailaren 25ean, 5 urte. Zorionak, Mikel! 5 urte jada! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetzea! Patxo potolo bat!



ARRASATE
Patxi Souto Arteaga
Irailaren 25ean, 39 urte. Zorionak, aita xoi! Asko-asko-asko maitte zaitugu! Besarkada potolodun karrukada bat muxu!



BERGARA
Ibai Zaitegi Fernandez
Irailaren 24an, 4 urte. Zorionak, Ibai! Patxo pila bat zuretzat, maitte zaitugun danon partetik!



ARRASATE
Araitz Gartzia Dorransoro
Irailaren 24an, 5 urte. Eguneak egunera polittago eta bihurriago! Muxu potolo bat, etxeko guztien partetik. Bereziki Shanen muxu goxoa jaso.



ARRASATE
Sebastian Rodriguez
Irailaren 20an, 11 urte. Zorionak eta ederto ospatu, Sebastian! Bestea asko bete ditzazula! Familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu!

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 29

OÑATI 'Gaztion Eguna'
San Migel jaiak. Eskubaloi txapelketa, bazkaria, jolasak, kolore festa...
Txosnagunean, 11:00etan.

BERGARA Sanmigelak Angiozarren
11:00etan meza, 12:15ean luntxa, 16:00etan puzgarriak, 17:00etan briska txapelketa, 19:30ean batukada, 20:00etan patata-tortilla lehiaketa, 21:30ean pintxoak, eta 23:30ean kontzertua, Low Coast De Luxe eta Kobrazulo taldeekin.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

ESKORIATZA Ate irekiak ludotekan
Jolasak egingo dituzte.
Ludotekan, 16:45ean.

ARETXABALETA Gazta dastatzea Basotxon
Felix Ajuria gaztagile otxandiarrarekin.
Aipatutako lekuan, 17:15ean.

ELGETA Ipuin kontaketa saioa
Kontu txikiak delako saioa, Eneko Haritzaren eskutik. Euskaraz eta doan.
Liburutegian, 18:00etan.

ARETXABALETA Talogintza ikastaroa
Nerabeendako ikastaroa.
Herriko plazan, 18:00etan.

BERGARA Duphonik bikotea
Kultura kalera programa. Piano eta bonbardino kontzertua egingo dute.
Arrizuriaga parkean, 19:00etan.

ARAMAIO Blue Berri Band taldea
Sastiñako azken emanaldia.
Aipatutako lekuan, 19:30ean.

OÑATI Iseo & Dodosoun taldea
San Migel jaiak.
Atzeko kalen, 19:30ean.

BERGARA Olatz Salvador eta Erraiak taldeak
Egubakoitzak kartzelan programa. Sarrerak, hiru euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

OÑATI Eskean Kristo, Humus eta Bitz taldeak
San Migel jaiak.
Txosnagunean, 22:00etan.

ARAMAIO Bertso afaria
Odei Barroso eta Xabat Gallettebeitia bertsotan.
Etxaguen auzoan, 22:00etan.

OÑATI Ken Zazpi
San Migel jaiak.
Foruen plazan, 23:00etan.

ZAPATUA 30

OÑATI Herri Eguna
Erakusketak, lehiaketa, sagardo dastatzea eta herri kirolen erakustaldia, besteak beste.
Herriko kaleetan, 10:30ean hasita.

ARETXABALETA 23. azoka ekologikoa
12:00etan *Nola lortu haziak?* delako tailerra; eta 14:00etan ortu lehiaketaren eta tomate erakusketa popularreko sari banaketa. Tabernetan tomatearekin egindako pintxoak dastatzeko aukera.
Aipatutako lekuetan eta orduetan.

BERGARA Sanmigelak Angiozarren
12:30ean jolasak, 13:00etan txikiteoa buruhandiekin, 14:30ean bazkaria, 18:00etan mus txapelketa, 20:30ean ogitartekoak, 22:30ean DJak eta 23:00etan argi festa.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

ARAMAIO Murugain proiektuaren gainean berbetan
Ondarearen Europako jardunaldien barruan, Etor Telleriaren hitzaldia eta bisita gidatua.
Untzillan, 11:00etan.

BERGARA 'Kultura kalera'
11:30ean lorategi historikoen bisita; 18:00etan kalejira batukadarekin; 19:00etan herriko abesbatzen kontzertua; eta 21:00etan, *Kopla barik*.
Aipatutako lekuetan eta orduetan.

ARRASATE Vianako eta Arrasate Musikaleko Bandak
Elkarrekin egingo dute kontzertua.
Monterronen, 12:30ean.

ESKORIATZA V. Apotzagako Goitibehera jaitsiera
Bosgarrenez egingo dute.
Aipatutako lekuan, 15:00etan.

ELGETA Gazteleku zerbitzua martxan
Zapatuetan eta domeketan zabalik.
Aipatutako lekuan, 16:00etan.

ARRASATE Mahai-futbol txapelketa
Gazteendako ekintza.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

OÑATI 'Herrixa Dantzan'
San Migel jaiak. Harkaitz Allur eta Maddalen Arzallus trikitilariarekin, eta Patxi Monterok gidatuta. Irekia herritar guztiendako.
Atzeko kalen, 18:30ean.

OÑATI Autobus Majikoa, Sua eta Los Zopilotes Txirriaios
San Migel jaiak.
Txosnagunean, 22:00etan.

DOMEKA 1

ELGETA Irteera familiendako: Orkatzategi-Aitzulo
Kantsatzeke Txiki taldearen eskutik lauzpabost orduko mendi irteera.
Mendizaleen plazatik, 09:00etan.

ESKORIATZA Atxorrotzeko Gaztelua eta 'Enekoren bidea'
Ibilbide gidatua, elebitan.
Ibarraundi musean, 10:00etan.

ELGETA Bisita gidatua Intxortara
1936 eta 1937. urteetan izandako borrokak eta erresistentziaren xehetasunak emango dituzte.
Espaloian, 10:00etan.

BERGARA 'Kultura kalera'
11:00etan bisita gidatua, 11:30ean txistularien kalejira, 12:00etan Alai Taldearen emanaldia, ordu berean tailerrak, eta 13:30ean kontzertua.
San Martin plazan, aipatutako orduetan.

OÑATI 'Abentura parkea'
Tirolina, rokodromoa, oreka tailerra, puzgarriak, eskulanak... 3-12 urte artekoendako.
Errementari plazan, 11:00etan.



DANTZAZ

ARRASATE 'Harri, orri, ar' dantza ikuskizuna
Atrezzo jangarria, mariachien musika, zirku garaikidearen kutsua, mugimenduaren energia eta fisikotasuna dira Dantzaz taldearen ikuskizuneko ezaugarri nagusiak. Sarrerak, hamar euro.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:30ean.

BERGARA Sanmigelak Angiozarren
12:00etan azken urtean jaiotakoei ongietorria, 12:30ean trikiti eskolako kalejira, 18:00etan kale antzertia Latirili taldearekin, eta 19:00etan txokolate-jana.
Aipatutako lekuan eta orduetan.

ESKORIATZA 'Garaiz ikasi' antzezlan
Familian ikusteko lana, 3 urteik gorakoendako. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibarren, 17:00etan.

ESKORIATZA Oreka jolasak
Monozikloak eta *slack line* erabiliko dituzte jolasetarako.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARETXABALETA Zinema emanaldia
Komedia bat emango dute, gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 17:30ean.

ARRASATE 'Bat irabazteko'
Erronka jolasak, gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00ean.

OÑATI The Ladies taldea
Errosaixo jaiak.
Atzeko kalen, 19:00ean.

OÑATI Mobydick taldea
Errosaixo jaiak.
Txosnagunean, 21:00etan.

OÑATI Piroteknia ikuskizuna
Errosaixo jaiak. Scura Splats konpainiarekin *Theos foc*

ikuskizuna, postetxean hasita. Foruen plazan bukatuko dute kalejira.
Aipatutako lekuetan, 23:00etan.

ASTELEHENA 2

OÑATI Sokamuturra
Errosaixo jaiak. Arno etxeko zezenak.
Foruen plazan, 09:30ean.

DEBAGOIENA Erretiratuen elkarretaratzeak
Bergarako, Arrasateko, Aretxabaletako, Leintz Gatzagako eta Elgetako erretiratuen elkarteetan egingo dituzte, 19:00etan.
Aipatutako lekuetan eta orduetan.

BERGARA Erreka garbitzeko auzolana: izen-ematea bukatu
Gaur da azken eguna, *errekagarbitzeko@gmail.com* helbidean. Auzolana urriaren 7an egingo dute, Seminarioko patioan, Labegaraietan eta Osintxun.
Aipatutako lekuan.

OÑATI Sokamuturra
Errosaixo jaiak. Arno etxeko zezenak.
Foruen plazan, 17:00etan.

OÑATI Rockalean taldea
Bertsioak egiten dituen taldearekin kalejira egiteko aukera. Foruen plazan hasi eta kalerik kale ibiliko dira.
Aipatutako lekuan, 18:00etan.

MARTITZENA 3

ARETXABALETA Antzerki Astea
Ameztu Produktzioaren eskutik *Hankaz gora! Berdintasun istorioak* delako antzerkia, 4-5 urte artekoendako.
Zaraian, 09:15ean, 10:15ean eta 11:15ean.

ARRASATE Odol ematea
Deialdia egin dute herritar guztiendako.
Anbulatorioan, 16:30ean.

ESKORIATZA Udazkenari ongietorria ludotekan
Mendi irteera egingo dute, hostoak jaso eta ludoteka apaintzeko.
Aipatutako lekuan, 17:00etan.

BERGARA 'Mindfulness' eta meditazioa
Felix Laskurainen taldea astean behin elkartzen da horiek lantzeko.
Bergaran.

EGUAZTENA 4

OÑATI Eskulan ikastaroak: izen-ematea zabaldu
Eskulan dekoratiboak, hariz egindakoak, pintura eta sendabelarrak daude aukeran. Urriaren 18ra arte eman daitezke izena, kultura etxeko sarreran edo udal webgunean.
Aipatutako lekuetan eta egunetan.

OÑATI Igeriketa ikastaroen eta ur-ekintzen hasiera
Nork bere orduetan eta egunetan.
Kiroldegian, 17:00etan.

OÑATI Furgobaratza
Urteko azkena egingo dute.
San Martingo ortuetan, 18:00etan.

ELGETA Elgetako Memoria Historikoa: hitzaldia
Leire Arrieta historialariak *Lehen Eusko Jaurilaritza. Bilbo: 1936-1937* delako hitzaldia egingo du.
Udaletxean, 18:30ean.

ARRASATE Euskal industriaren egoerari buruzko hitzaldia
Zorion Ortigosak, LAB sindikatuko industria federazioko arduradunak,

egingo du berba. *Euskal Herriko industriaren egoera. Erradiografia bat* delako berbaldia egingo du, EH Bilduk gonbidatuta.
Pablo Uranga 8an, 19:00etan.

ARRASATE 'Emakumeen esperientzia kolektiboa eta historiko berreskuratzen' hitzaldia
Julia Mongek eta Zuriñe Rodriguezek egingo dute berba.
Kulturaten, 19:00etan.

EGUENA 5

ARETXABALETA Antzerki Astea
Markeliñe taldearekin *Euria* antzezlana, 11-14 urte artekoendako.
Zaraian, 09:00etan eta 11:00etan.

ELGETA Elgetako memoria historikoa: liburu aurkezpena
Pablo Beldarrainen *Historia crítica de la guerra en Euskadi* liburuaren bigarren edizioaren aurkezpena egingo du Intxorta 1937 Kultur Elkartek, *Intxortako atea*-n, 18:00etan.
Aipatutako lekuan eta orduan.

ARRASATE Magia ikuskizuna eta tailerra
Munduari bira (ia 80) trukotan delako ikuskizuna eta tailerra egingo ditu Imanol Ituiñorekin. 5 urtetik gorakoendako eta euskaraz. Aurrez izena ematekoa derrigorrezkoa da. Leku mugatuak.
Kulturaten, 18:00etan.

ESKORIATZA Literatura solasaldia
Stefan Zweig idazlearen *Novela de ajedrez* liburuari buruzko solasaldia egingo dute, Ivan Repilla koordinatzailearekin, gazteleraz. Aurrez eman behar da izena, 943-71 31 35 telefonoan.
Kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI Gorka Urbizu eta Izaro Andres, aurrez aurre
Rockomunikazioa delako ekitaldian parte hartuko dute Berri Txarrak taldeko kideak eta Mallabiko bakarlariak, Mondragon Linguak gonbidatuta.
Kultura etxean, 19:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Kingsman
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Emoji
Domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Operacion Concha
Zapatua eta domeka: 17:00.

Ali & Nino
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Jacques
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00, 20:00, 20:30.

ANTZOKIA

Emoji
Zapatua eta domeka: 17:00.

Operacion Concha
Zapatua: 19:45,

22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

FLORIDA

La reina Victoria y Abdul
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

La cordillera
Egubakoitzetik astelehenera, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

Tadeo Jones
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Verano 1993
Egubakoitzetik domekara:

16:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Camina conmigo
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30, 22:30.

Kingsman
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:15.

Madre!
Egubakoitzetik eguenera: 17:10, 19:40, 22:30.

La historia del amor
Egubakoitzetik domekara: 19:00, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30, 22:15.

Operacion Concha
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:30, 21:30.

By bye Germany
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 21:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:15.

GORBEIA

Emoji
Egubakoitzetik domekara: 17:05.

El amante doble
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45, 22:00.

Cars 3
Egubakoitzetik eguaztena: 17:30.

Barry Seal
Egubakoitzetik eguenera: 19:45, 22:00.

Kingsman
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 19:30, 22:10.
Astelehena eta eguaztena: 17:30, 20:15.

Handia
Eguena: 20:00.

It
Egubakoitzetik domekara: 17:05, 19:45, 22:20.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:15.

Detroit
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 19:30, 22:10.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:30, 20:40.

A war
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:45, 22:00.

Madre!
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:45, 22:00.

Tadeo Jones
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 18:00, 19:50.

Dunkerque
Egubakoitzetik domekara: 20:30, 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 21:50.

Operacion Concha
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:30, 21:30.

Jaques
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 21:45.

KRITIKA

Morir ★★★★★
Zuz.: Fernando Franco. **Herr.:** Espainia (2017). **Aktoreak:** Marian Alvarez, Andres Gertrudix.

Gaixotasunaren eraginak

ANTONIO ZABALA

Fernando Francoren filmak proposamen latzak izaten dira. Bere lehen filmean, *La herida*-n, *bordeline* gaixotasuna zuen neska baten jarraipena egiten zuen. Orain, *Morir*-en bikote bat daukagu protagonista. Gizonak gaixotasun sendaezin bat du, eta euren harremanaren azken urtea ikusiko dugu. Gaixo dagoena bat izanik, gaixotasun horren ondorioak biek jasango dituzte. Min fisikoa eta psikikoa da. Egoerari aurre egiteko, bikotekidea mundutik eta beste pertsonengandik bakartu egiten da, baina bakartasun hori euren artean ere areagotuz joango da. Gaixoak, bere ahulezian, gero eta eskakizun gehiago ditu. Bestearen arreta eta bizitza ia xurgatzen ditu. Hori dena *Morir*-en ikusten da. Urte horretan zehar, elipsiekin ondo jokatzuz, bikotearen



KOWALSKI FILMS

harremanaren bilakaera ezagutuko dugu. Istorioan gaixoari garrantzia ematen bazaio, oraindik pisu handiagoa emango zaio emaztearen egoera psikologikoari eta bizi duen bizi itogarriari eta mugatuari. *La herida*-n kamerak denbora guztian pertsonaia protagonista jarraitzen zuen, gertuko plano

askotxo erabiliaz. Euren atzetik dagoen ingurune lausotua agertzen zen, behin eta berriro. Zuzendariaren estiloa ez da aldatu azken film honetan. Ezaugarri horiek erabiliaz, pertsonaien begiraden eta keinuen bitartez, horien bakardade emozionala islatzea lortzen du.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Katalunia: Votarem

Erabakitze eskubidea. Egunotan komunikabide guztietan dabil Kataluniako auziaren printzipio demokratikoa. Zorritzarez, printzipio demokratikoari protagonismoa kendu dio bata bestearen atzetik etorri den galdera andanak: bozkatu ahal izango dute? Nola banatuko dituzte boto-paperak? Mossoek galaraziko ote diete kataluniarrei bozkatzeara?

Puigdemont atxilotuko dute? Azken finean, gauza guztien gainetik gailendu dena inguruko parafernalia da.

Katalunia herri bat dela ezin uka, Euskal Herria bezalaxe, eta han nahiz hemen erabakitze eskubide osoa dugu eta hori ezin da zalantzan jarri, ez abertzaleak garenok aldarrikatzen dugulako, printzipio demokratiko bazter ezina delako baizik. Katalunian aukeratu duten bidea hobea edo okerragoa izan daiteke, baina beraiek aukeratu dute horrela egitea. Asko entzuten ari gara Konstituzioaren 155. artikulua, autonomia etenda uzten duen artikulua, baina Espainiako Konstituzioko 8. artikulua dio ejertzitza dela Espainiaren batasuna bermatuko duena, eta ejertzitza Katalunian sartuko den edo ez ikusteko dago, baina onartezina da estatu demokratiko batean horrelako artikulurik egotea. Ni, kataluniarrekin bat: "Votarem".

BUKATZEKO

Zinemaldiaren distira osoa bertatik bertara

Beste urte batez, Imanol Gallego kazetaria Donostia Zinemaldian dago Euskal Herriko kultur jaialdi nazioartekoenaren nondik norakoak gertutik jarraitu eta horien berri emateko. Zeluloideko izar ugari ibili dira egunotan alfonbra gorriaren gainean

Maite Txintxurreta DEBAGOIENAW

Asko izan dira egunotan Kur-saaleko alfonbra gorria zapaldu duten mundu mailako izarrak: Arnold Schwarzenegger, Monica Bellucci, James eta Dave Franco anaiak, Ricardo Darin... Ondoko argazkian, esaterako, Imanol Gallego azken horren ondoan ageri da. Darinek Donostia saria jaso du -Monica Beluccik eta Agnes Vardak ere sari hori jaso dute-, eta *La cordillera* filma aurkeztu du.

Denetarikoz izarrak

"Aurten badago nolabaiteko aldaketa bat; Netflix eta antzeko plataformek sekulako oihartzuna dute. Orduan, adibidez, *Stranger Things* telesailako aktore bat etorri da [Charlie Heaton]...", dio Imanol Gallegok. Hala, betiko zinema izarrez gain, telesailatako aurpegi ezagunak ere arreta erakartzen dute.

"Halako beste adibide bat *La llamada* filma da. Bertan, *youtuberrak*-eta agertzen dira, beste mota bateko izarrak".

Famatuak ikusi nahi dituen jendea goiz ibiltzen da, aukerarik ez galtzeko: "Maria Cristina hoteleko sartu-irtenak ikusteko, goizeko bederatziatarako han



Imanol Gallego kazetaria (eskuman) Ricardo Darin aktorearekin. ARITZ DENDATEGI



Schwarzenegger alfonbra gorrian. A. D.



Belucci, zaleak agurtzen. A. D.

egoten dira, eta batzuek 8-9 ordu ematen dituzte bertan".

"Orain arte ikusmira handiena Schwarzeneggerrek sortu du", dio kazetariak: "Ez da munduko aktorerik onena, baina 80-90eko hamarkadetakoa *takillazo* asko bere pelikulak dira; utzi du bere arrastoa zinemari".

Argazki edo autografo bila doazen horiendako, Gallegok gogorarazi du aktoreak promozio lanetan dabilzala, eta dena "oso neurtuta" dagoela. Euren-gana gerturatze, "modu onean eskatu behar zaie, eta, zortea izanez gero, etorriko dira".

"Erromena"

Kazetariaren ikuspuntutik ere jaialdia "erromena" da: "Mundu osoko prentsa dago, medio asko, kritikari ezagunekin elkartu zaitezke aretorako ilaran... Azken finean, erakusleho bat da pelikulendako, euskal zinemarendako, kanpotik datorrena ikusteko... Denetarik dago".

Gallegoren aurtengo batez beste eguneko bost film ikustea da. Hortaz, Zinemaldia bakarrik existitzen den "burbuila" moduko batean bizi ditu egunok.

"Sorpresak izaten dira. Adibidez, sinopsia irakurrita aspergarriak diruditenak eta gero sekulako pelikulak iruditzen zaizkizunak. Kontrara ere bai, noski", azaldu du.

Urrezko Maskorra

Bihar, zapatua, iluntzean egingo duten amaiera-galarekin agurtuko dute zinemazaleek 64. Donostia Zinemaldia. Gala horretan jakingo da, besteak beste, aurtengo Urrezko Maskorra, jaialdiko sari nagusia, zein filmek irabazi duen.

HARIRA

GOIENA TELEBISTA, DENBORALDI BERRIA

URRIAREN 3AN, MARTITZENEAN, 21:15EAN

GONBIDATUA: MARIA UBARRETXENA, ARRASATEKO ALKATEA.
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA.

BIDALI GALDERA:

BERRIAK@GOIENA.EUS

WHATSAPP: 688 69 00 07

TELEGRAM: 688 69 00 07

goiena
ZU HEMEN ZAUDE

